Espainiako Senatuko lehendakaria bertan euskara erabiltzearen kontra agertu da /18

Bi polizia arin zauritu zituzten Donostian lehergailuz egindako atentatuan /4

Nafarroako Euskararen Legea aldatuko dute PSN-PSOE eta EAk gobernua osatuz gero /5

EUSKALDUNON Egunkaria

Igandea, 1991ko uztailak 28 / II. urtea /199. zenbakia / Salneurria: 75 pta. / 4,5 libera

GIZARTEA

Apaiz baten semearen kontakizun lazgarriak

Manuel Garate Urbistondo apaiz baten semea da. Bere bizitza xelebrearen berri eman dio Leitzan auzo duen Patziku Perurena idazleari: aita apaizaren trikimainak, aitonak amari haurdun geratzeagatik ezarritako zigor beldurgarriak... / 11-13

Indurain txapeldun

Atzoko erlojupekoa irabazi ondoren horiz jantzita sartuko da gaur Parisen

Tourreko txirrindularirik indartsuena zela erakutsi zuen berriro ere Miguel Indurainek atzoko erlojupeko etapa irabaztean. Bere bigarren etapa garaipenaren ondoren, gaurko tramitezko etapa baino ez zaio geratzen Banestoko txirrindulariari Pariseko helmugara horiz jantzita heltzeko.

Indurainek sekulako lasterketa egin zuen Lugny eta Maconen artean korritutako 57 kilometroko lasterketan. Atarrabiatarrak 27 segundu atera zizkion bere areriorik handiena zen Gianni Bugno italiarrari.

Indurain eta Bugnoren arteko aldea handiegia zenez, atzoko etapan jokoan zegoena hirugarren postua zen, izan ere, Chiappucci eta Motteten artean segundu gutxi batzuk besterik ez bait zeuden. Carrera taldeko gizonak bazuen horren berri eta bera izan zen hogeigarren kilometroan txirrindulari guztien artean denborarik onena egin zuen gizona. Hala ere, indartsu hasi arren Indurain, Bugno eta Lemond nagusitu zitzaizkion azkenean Chiappucciri.

Chiappuccik ondo hasi eta gaizki amaitu bazuen, ez zen gauza bera gertatu Gianni Bugnorekin. Gatorade taldeko gizona ez zen oso fin ibili lehen hogei kilometroetan, baina hortik aurrera Indurainek bakarrik lortu zuen denbora hobea.

Atzokoa irabazi eta gero, garaile igoko da Indurain Pariseko podiumera gaurko etapa errazean ezuste handirik gertatzen ez bada. Pirinioetan mailot horia jantzi zuenetik sendo agertu da txirrindulari nafarra, eta maila goreneko aurkariak izan arren, hauek indarge azaldu dira Atarrabiako mozkotearen aurrean. Erlojupekoetan etsairik gabe. Pirinio eta Alpeetako mendian nagusi. Ordekan fin. Akats bat bera ere ez du izan Banestoko txirrindulariak Tourrean.

Onena nafarra izan bada ere, Banesto taldeko txirrindulariek beretzat egin duten lana ere erabakiorra izan da lidergoari eusteko. Tourrean Banestoko liderra berak izan behar zuela frogatu beharra izan du hala ere karreran. / 21-26

Val Louroneko gainean mailot horia jantzi zuenetik egunero igo da Indurain podiumera. MONDELO / EFE

Eli Galdos.

Lurraldea eta Eli Galdos bildu egingo dira abuztuaren 5ean

Eli Galdos Gipuzkoako diputatu nagusia Lurraldea koordinadorako ordezkariekin bilduko da datorren abuztuaren 5ean, Gipuzkoa-Nafarroa autobidearen auziaz hitzegiteko. Jonan Fernandez Lurraldeako bozeramaleak eman zuen atzo bileraren berri EGUNKARIAren galderei erantzunez, eta elkarrizketa egiteko Lurraldeak eskatu zuela argitu zuen. Zita zehaztu aurretik Lurraldeak EAJrekin harremanen bat izan duela onartu zuen Fernandezek. / 4

EGUNKARIA nahasi nahi zuten berri eta paperak /9

BESTERIK

POLITIKA

Baztan: udal berriak eta giro berria Baztanen hauteskundeak eta gero / 6

NAZIOARTEA

Lehendakaritza Kolegiatuak gatazkalekuetara indar armaturik ez bidaltzeko agindu dio Kroaziari / 19

KIROLA

Kevin Richardsonek Aston Vilan jokatuko du datorren denboraldian / 27

SANINAZIOAK ALGORTAN ETA AZPEITIAN / 14-16

Jo aintzina!

JEAN LOUIS DAVANT

PASTORALAZ aburu desberdinak agertzen dira orain zuberotarren artean ere. Hobe segur, bizi berri baten keinua baitugu hor. Pastoralak zer izan behar duen: ederra, eta oroz gainetik ikusteko ederra. Ni arropa ederren aldekoa naiz. Maite ditu ikusleak. Harek ditu ordaintzen eta pagatzen. Beraz herri ttipi batek balia ditzake handi baten bezain errexki, pastoralaren ikustera baitoa jendea, herriaren ttipi ala handiagoari kasu egin gabe.

Halaber ez dut ikusten zergatik jokolari guti behar lukeen pastoralak. Bata gutirekin eman ditaike, bestea hainitzekin, gaiak edo jende kopuruak manatzen duen bezala. Berezia da pastoral bakoitza.

Azken hamabost urte hauetan, ospe handia irabazi du trajeriak, idazle ta emaile desberdinei esker. Ezin dugu orain gibel egin, lehengo bukolismo galduaren bila. Jo beraz aintzina! Aurrera!

Errege soinua

NEREA AZURMENDI

ERREGE-Erreginak beren erresumen azken muturretara eramaten dituzten bira artistiko-politikoak beti iruditu zaizkit, Aita Santuarenak bezala, komunikazio falta arrunta ezkutatzera iristen ez diren ikuskizun zaharkituak. Sofiak berak igarri dio teknokratek marraztu duten Europa honi monarkienganako epeltasuna. Eta ez da gutxiagorako. Errege-Erreginak izarraren atzetik abiatu ziren magoen moduan hartuak diren lurraldeetan ulergarria izan daiteke banderatxoak eskuetan dituztela egun pasa kaleratzen diren etxekoandre eta erretiratuen festa. Baina, dakidala, Madrildik Euskal Herrirako bidea egiten dutenean, Errege Magoen zakuak ez dira beti opariz beteta etortzen. Honela, zer berri ekar dezakete herri honetara, borondate onez eta gogo hobez badatoz ere, telebista eta koloretako aldizkariak direla medio nahiko hurbil dauzkagun Erregeok? Niri, kasu honetan, burutazio politiko sakonak gehiegizkoak iruditzen zaizkit. Errege soinurik gabe ere egunerokotasunak maiz eskaintzen ditu halako kontsideraziotan aritzeko aitzakiak. Honexegatik iruditzen zaizkit gehiegizkoak zalaparta eta iskanbilak. Gehiegizkoak Donostian agintzen duen gobernu-taldeak proposatu dituen laudorioak. Gehiegizkoak bidai honen inguruan sortuko diren buruhausteak. Itzaltzear dagoen izarrari gas berria ematen bazaio, agian merezi ez duen mesedea egiten zaio. Denborak egingo du bere lana alor honetan ere. Geuk denboran atzera egiten ez badugu, behininpehin.

HEMEROTEKA

EL MUNDO

Erregea eta huskeria

Gure herrian zorionez, ama askoren seme-alabak bizi dira. Batzuk Almeriakoak bezain espainolak sentitzen dira; beste batzuk ez dira espainolak sentitzen, baina arrazoi praktikoengatik, hain zuzen ere, eroso bizi dira Espainia instituzionalean, eta azkenik, beste batzuk hiritartasun espainolarekin, hatz egiteko gogoa ematen dien eta egunero hazkaka jartzen dituen bigarren azala edukiko balute bezala sentitzen dira.

Lehenengoentzat Erregea beraien Erregea da; bigarrenentzat, bidaiatzen doazen itsasontziaren oreka bermatzen duen aingura; azkenengoentzat (egunen batean lehenak izan daitezke) frankismoaren jarraipenaren sinboloa, zainetik kendu nahiko luketen bigarren larru horren tatuaia enblematikoa.

(...)

Ikusten da ere Espainia bakarra dela diotenak lasai dabiltzala; Estatutukoak bere tokian lehen baino hobeto finkatuta daudela (barka nazatela EA eta EEk); negoziaziokoak haserreago. Baina funtsean 1981ko pertsonaia berak dira. Ez dut ulertzen, bada, zegatik dagoen horrenbeste kezka filma orduan bezala amaitzeko.

MARIANO FERRER / 1991-VII-27



RICARDO Y NACHO / EL MUNDO / 91-VII-27

Navarra hoy

Aurrerakuntza eta ezkerra

PSOEk gaur egun jarreraz aldatzeko posibilitate edo aukera gutxi dituela kontutan hartuta, ebitaezina da susmatzea, azken orduko jokaera horrek operazio taktiko hutsari erantzuten diola, Diputazioa bereganatu eta gero «Agur Ben Hur» egiteko, eta horrek edozein alderdi politiko behartzen du pentsatzera beharrezkoa dela PSOErekin zuzenean eta publikoki negoziatzea; hori ez da egingo gaizki ulertutako protagonismoengatik, herritarrak eta batez ere boto-emaleak beharrezkoa dutelako jakitea, zein eduki programatiko eta zein konpromezu eta berme politikoren arabera jarri dezaketen konfidantza, Urralbururen PSOE bezalako alderdi batean, azken urteotan abertzaleei huts egin diena eta Nafarroako ezkerra traizionatu duena.

IÑAKI ALDEKOA / 1991-VII-27

EL PAIS

Salas

Orain, Salasi gaixotasunaldian bere gatazka luzean aurrera jarraitzeko indarrak gutxitu egin zaizkio, eta Estatuko manganteak eskuak igurtzi dituzte. Herri honetan milaka milioi lapurtu daitezke, edo atzo Salasek zioen bezala artikulu zoragarri batean, gaztetxoak galbidera ditzakezu, zure izena paperetan agertu gabe. Baina GAL kasuko akusatzailea bazara, iluntasun une bat eta trafiko gatazka bategatik atera zaitezke egunkarietako lehen orrialdeetan eta zigorra jaso dezakezu. Saiek indarrez mugitzen dituzte hegoak zalaparta handia sortu nahian. Agian beharrezkoa izango da errepikatzea, zarataren gainetik, hiru nabaritasun: Salas ez da eta ez da izan inoiz gaur aurkeztu nahi diguten karikatura. GAL kasuari kiratsa dario. Manganteak mangante dira orain ere.

ROSA MONTERO / 1991-VII-27

ZUZENDARIARI

Gauza txikien bidez ere bultza eta heda dezakegu geure mintzaira

Ibilaldi eta oporretako sasoian gaudelarik, postalak edonondik dabiltza, hiririz hiri eta herriskaz herriska, eta haiei esker dexente irabazi bide dute kiosko eta liburudenda saltzaileek. Komunikabide ederra dugu hau benetan eta edonori gustatzen zaio eta edonor baliatzen da hartaz. Baina oraingoan ez noa postale turistikoei buruz hitz egitea; besterik dut gogoan.

Nork ez du ikusi paisaia xarmangarri baten gainean edo irudi baten ondoan esaldi edo pentsamendu sarkor bat daraman postaleren bat? Testu aukeratu, polit, egoki, pozgarriak... ditugu: adiskidetasuna dakarte gogora, gizakorragoak izaten irakasten digute, biziera hobeagora deitzen gaituzte... Idazle, poeta eta pentsalari famatu batzuren obretatik hartuak dira —aipa ditzagun, adibidez, R. Tagore eta P. Claudel—, edo sainduren baten asmoak, edo Bibliako libururen bateko zatiak. Oso maite ditut postaleok eta sarritan erosi ohi, norbaiti bidaltzeko edo liburu baten barruan sartzeko, orrialde gidari gisa.

Baina, halarik ere, zera da hau idatz erazi didana: ez dudala inoiz ere topatu euskaratu den postale testurik. Beti erdara hutsean. Edozein liburudenda erlijiosotan, saindutegitan edo monastegitan. Gaztelaniaz Hegoaldean eta, noski, frantsesez Iparraldean —Belokeko abatetxeaz oroitzen naiz, elebiduna liburutan, baina elebakarra hiztun postaletan—.

Ez dakit nik norengana jo neure ohartxo honekin, baina oso poztuko nintzateke testuok zelanbait eta ahal den neurrian euskaratzeko gaitasuna daukan pertsona adikorren batek irakurriko eta onartuko balit gutuntxo hau. Ederki ere ederki agertuko lirateke postaleok esaldi meditagarria gure hizkuntzaz baleramate. Gainera, horrela, gauza txikitan bada ere, pixka bat erabilkorrago bilakatuko litzaiguke maiteen dugun mintzaira.

LUIS ALBERTO ANTON GORBEA ETA JUAN DE AJURIAGUERRA
BILBO

Oharra:

Eritzi ezberdinek tokia izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 25 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izena, telefonoa, helbidea eta NANren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu beharra izanez gero, zuzendaritzak bere esku izango du horretarako eskubidea.

PERTSONAIA



Miguel Indurain

Indarrez aberatsa
talentutik gizen
lehenez gainera gaurtik
txanpon eta izen.
Ez zekiat oraindik
ohartuko haizen
aurtengoz heu haizela
errege Parisen.

JOXE MARI ARRIETA

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE
Kontseilu Editorialeko Lehendakaria: JOAN MARI TORREALDAI
Kontseilari Ordezkaria: JOXE MIEL ZUMALABE
Gerentea: INMA GOMILA

Zuzendaria: PELLO ZUBIRIA
Zuzendariordeak: NEREA AZURMENDI, LUZIEN ETXEZAHARRETA, IÑAKI URIA
Publizitatea: KORNELIO ROTETA

EUSKALDUNON Egunkaria
Batzorde Parekidea: 72564 E
Lege Gordailua: SS 800/90

HELBIDEAK
Egoitza soziala, Pulizitatea eta Administrazioa: Antso Jakituna, 16-1. / 20.010 Donostia / ☎ 46 90 22 / Faxa: 45 59 57
Erredakzio eta Tailerra: ANTZA S.A. Industrialdea 01-02 Pabilioak / 20.160 Lasarte-Oria / ☎: 37 15 45 / Faxa: 36 54 93
Araba: San Antonio, 20-1.ezker. / 01005 Gasteiz / ☎ 23 38 72 / Faxa: 23 38 73
Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45-13.esk. / (Irrintzi dorrea) / 31011 Iruñea / ☎: 17 80 78/79 / Faxa: 17 80 77
Bizkaia: Barroeta Aldamar, 2-1.eskuma. / 48002 Bilbo / ☎: 423 90 62 / Faxa: 423 94 60
Lapurdi / Nafarroa Behera / Zuberoa: 2, Galuperia kaia. / 64100 Baiona / ☎: 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11

Iragarrita zegoen erasoa

EGUNKARIA prestatzen hasi ginenetik jakina zen oztopoak izango genituela; batez ere ekonomikoa, noski, baina baita laster agertu zen beste bat ere: euskal egunkarian «MVLNek izan zezakeen hegemonia» apuntatzen zuen norbaitek artikulu batean (1990go abuztuak 14); bost egun gero neronek erantzun nion *Deian* bertan euskararen egitasmo berri honen kritikan agertzen ziren prejuizioak aipatzen, eta geure helburua euskara zenez gero aurreritzi hau uxatu nahian prejuizio hori zutenen partaidetza eskatuz, hasieratik lanak elkarrekin zuzen egiten saia gintezen.

Gero, lanean ari ginela, eta Euskaldunen EGUNKARIA 1990 bertako abenduan kalera irten eta gero ere bai, berriz, eskaini genion partaidetza Jaurlaritzako Kultur Sailari.

Ez dugu oraindik erantzunik jaso.

Gauzak honela, 1991go uztailak 10 zituela, EGUNKARIA bere 184. alean, Joseba Arregi jaunak prentsaurre bat eskaini zuen ordurarte Kultur Saileko egunkariaren arduraduna, J.R. Beloki, Gipuzkoako Diputazioan beste kargu bat hartzeko egitasmo honetatik kanpora geratzen zela adierazteko; eta gertaldi honetan Beloki jaunak izan zuen aukera iragarpen baten antzera hau esateko, «tentazio baten berri emango dizuet... Ez dakit zer egingo dedan, baina igual bidaliko diet dokumentu fotokopiatu bat nere tarjetarekin»... Hau kazetari jakinminduen aurrean aidean geratu zen. Gauzak honela, egun bereko arratsean neronek entzun nuen etxean ETBren gaueko berri zerbitzuaren erdarazko emanaldian, azken berri bezala, hauxe: «EUSKALDUNON EGUNKARIAren zuzendariaren izendapena ETAko buruzagien oneritziz egin omen zela ulertu daiteke, Frantzian atxilotutako ETArrei harrapatutako dokumentazioan».

Eta besterik gabe amaitu ziren berriak.

Ni neu aho zabalik geratu nintzen. Kezkatuta, noski, «oneritzia», «omen zela» eta «ulertu daiteke», kondizio askotako esaldia zen; baina entzundakoa buruan bueltaka hasi nintzenean konturatu nintzen ez nintzela gogoratzen fermuki nola esana izan zen. Ez nion inori deitu hurrengo egunarte, eta Joxemiel Zumalaberi entzundakoa nolabait pasa nionean, ez nintzen ausartzen nire hitzak baieztatzea. Hasi ginen galdezka, eta pertsona gutxik entzun zuen hau, euskaraz eta erdaraz, emana izan bazen ere. Eta neuk eskatu nion, EGUNKARIAko zuzendaria den Pello Zubiriari zintaren grabazioa eska zezala. ETBek eman zizkigun biak; euskarazkotik jaso ditut hitzez-hitz idatzi berri dudana.

Geroztik, uztailaren 24ean, Santio bezperan, argitaratu zuen Barcelonako *El Periódico* egunkariak, bere Politika orrialdean titulo honen azpian: «ETA controló la salida de un diario», eta honen azpian, lehengo «omen» guztiak ezabaturik orain, amarillismo mafioso batean gauzak poliziak nahi bezala gertatu baitliran. Eta hurrengo egunean, 25an, *Navarra Hoy*en, erantzupidearen izpi bat ere gabe Cataluniakoari kopiatuz: «ETA controló la salida del periódico EGUNKARIA.

Hara nola gertatu diren gauzak. Beste egunkarietara ere «filtratuko» zuen hortarako gai izan zenak material bera, baina ez dira hain errazki lohian sartu.

Zer esan genezake gezur honen erabilera honetaz?

Nik, neure aldetik, hau: Zuzendari bila emandako pauso guzti horietan egon naizela; banan bana zuzendaritzarako eskaintzak egiten jardun genuela asteak zehar, eta ez zuela inork hartu; ba, denak profesionalak izanik, bakoitza bere lanetan zebilelako, bat, eta, bi, baliteke Egunkari euskaldunak eskaintzen zien iraupenaren garantia handiegia ez zelako. Euskararen bideak denak baitira ahulak eta arriskugarriak: Bi arazo hauek normalak izan ziren, eta ez zen honetaz ETAko norbait bakarrik enteratuko, beste talde politikoak ere bai, noski, ez genuen eta hainbeste jende ikuitzerakoan diskrezio gehiago izaterik izan. Geure herriko alderdiek denek jakin zuten zertan gabiltzan, eta Kultura Saileko egunkariaren arduradun zirenak ere bai, eta besteak. Hauek bere garaian jakin zutena. Eta orain polizia espainoleko «filtrazio» honek diona zer da? Hori bera, kanpotik norbaitek jaso zuena. ETAk honelako informazioa behar bazuen, barruan ez egotearen seinale garbia da. Diruz ere ez ginen ibili ginen eta gabiltzan bezala ibiliko.

Baina nork jarri du martxan poliziak jasotako eta gero gezur txarrera joan den informazio soil hau?

MARTIN UGALDE
EGUNKARIA S.A.-KO ADMINISTRAZIO KONTSEILUKO LEHENDAKARIA

EGAn zein gaitasun neurtzen ote den?

TOLOSAKO Laskurain Ikastolako irakasle batzuk EGUNKARIAn (noiz?) eta *Eginen* (1991-07-16an) aireratutako idazkia dut gogoan.

Puntu asko aipatzen dira bertan; beharrezkoena ez, agian. Ez dagokit niri erantzuna puntuz puntu ematea, bertako hainbat eta hainbat xelebrekeria azpimarra nezakeen arren.

Bi gogoeta egin nahi nituzte soilik.

Bata. D eta B ereduetako ikastetxe askotako ikasleek gainditzen dute EGA. Kalifikazio-fitxak begiratu besterik ez. Laskuraingoek (guztiek?) huts egin omen dute. Zergatik?

Bestea. EGAn zein gaitasun neurten ote den? Aipatu irakasleen arabera, eskolan ematen den hizkuntz gaitasuna neurtu beharko luke EGAk; badirudi, ondorio hori atera daitekeela beraien idazkitik: beren ikasleen hizkuntz gaitasunaren erantzule bakartzat edo hartzen dute eskola. Nik, berriz, neure aldetik, ikuspegi glotodidaktiko guztiz herrena deritzot horri. Eskolak bakarrik ezin eman du, orohar, eta maila sozialean, trebetasun linguistiko erabateko eta guztiz jatorrik, ez entzumenari eta mintzamenari dagokionez, ezta idazmenari dagokionez ere; beti ere, esan bezala, arazoa maila sozialean hartzen dut eta ez indibidualean. Hizkuntzaren ikaste/irakaste prozesuan zerbaitegatik aipatzen dira murgilketaren egokitasuna (ala, beharra?), hizkuntz ingurumari naturalean bizi beharra, e.a. Esan nahi da, ikaste/irakaste formalez gain, beharrezkoa dela eskolan eman ez daitekeen moduko eta mailako (eta kalitateko) komunikazioa: komunikazio-aukera alegia eta komunikazio-iharduera (pleonasmo eta guzti).

Horiek horrela, EGAk zer gaitasun neurtzen duen? Ba, azterketetan matematikarik ez dagoenez, are gutxiago eskuarteko gai honetan, «neurri bateko komunikazio-gaitasuna», esango nuke: bai idazmenean eta idatziaren ulermenean, bai mintzamenean. «Neurri batekoa» esateak ez dakarren zehaztasuna, aztertzaile guztiek azterketari guztiei neurri bera edo berdintsua emateak dakarke.

Bukatzeko, esperientziaren arabera, esan daiteke, trebetasun-maila egokirik lukeen azterketaririk ez dela gelditzen EGA azterketan maila aitortu gabe; mailarik ez duenen bati maila aitortzea gerta daiteke, eta gertatu izan da.

Horrenbestez, EGAn hutsegin luketen azterketariei buruz, galdera beste modu batera egin beharko litzateke: zer-nolako lotura eragiten dute irakasleek eskolako euskararen ikaste/irakaste formalaren eta hizkuntza bererren eguneroko (etxeko, kaleko, ikasgelaz kanpoko...) erabileraren artean? Hori argitzen ez den bitartean, ezer gutxi aterako genuke delako azterketaria B nahiz D ereduan dabilelakotik.

Eta berriro esan, erabilera hori idazmenean ere oso argi isladatu ohi da.

DIONISIO AMUNDARAIN
IDAZLEA

BERRIAK ZIRI

INAKI ANASAGASTI
EAJko bozeramalea Kongresuan
DEIA
1991-VII-27

«HBk elkarrizketa eskatu beharko lioke Erregeari, eta beren eskakizunak onartu ez arren, gutxienez entzun egingo lieke»



F.FERNANDEZ ORDOÑEZ
Espainiako Kanpo Arazoetarako ministroa
EL MUNDO
1991-VII-27

«Gobernuak ez du inoiz Erregearen irudia instrumentalizatu, ez orain eta ez lehen»

PAOLO FABBRI
Palermoko Unibertsitatean hizkuntzaren filosofiako katedraduna»
DIARIO 16
1991-VII-27

«Diskurtso politikoa ekikaziaren diskurtso bilakatu da, publizitatekoa bezala»

RAFAEL BENGOA
Sanitatearen Plangintza, Antololaketa eta Ebaluaketako zuzendaria Eusko Jaurlaritzan»
1991-VII-27

«Sanitatearen erreformak ez du eraginik izango pentsionisten ekonomian»

ZAKILIXUT

© Olariagak



Irurtzun-Andoain autobidea

Eli Galdos Lurraldearekin bilduko da abuztuaren 5ean Diputazioan

Jonan Fernandez: «Instituzioen eta Lurraldearen arteko akordioa da konponbide bakarra»

Eli Galdos, Gipuzkoako diputatu nagusia Lurraldearekin bilduko da datorren abuztuaren 5ean, Jonan Fernandezek atzo egunkari honi jakin erazi zionez. Bileraren eskaera duela egun batzuk egin zion Lurraldeak eta Galdosek baiezkoa eman zuen laster batean.

PELLO URZELAI / **BERASTEGI**

Lurraldea koordinadorak, Leitza eta Berastegi artean egin duen akanpadaren balantzea egiteko eta erakundea eta Lurraldearen beraren arteko akordioaren beharra azaltzeko asmoz, akanpada lekuan izandako prentsaurrekoan jakin erazi zuen Eli Galdosi bilera baten eskakizuna egin diola eta baiezkoa jaso duela.

Bilera honen eguna zehaztu aurretik, Lurraldeak Eusko Alderdi Jeltzalearekin harramenen bat izan duela onartu zuen Jonan Fernandezek, baina zehaztasunik eman gabe. «Ez da izango Lurraldea beharrezko diskrezioa hausten duenik», esan zuen.

Gipuzkoako diputatu nagusiarekin bildu edo biltzeko asmorik ote zuen galdetuta, Lurraldearen eskaerari erantzunez datorren abuztuaren 5ean bera eta Eli Galdos bilduko direla eman zuen aditzera Jonan Fernandezek.

Lurraldeako kideek akanpada lekuan eman zuten prentsaurrekoa. VILLAGRAN

«Bilera honi buruz ez dugu oso ikuspegi baikorra, EAJrentzat kortesiazko zita bat dela iruditzen bait zaigu, gatazka honetan distraitzeko eta entretenitzeko estrategiaren barruan kokatzen dena», adierazi zuen Jonan Fernandezek.

«Makinek lanean jarraitzen duten bitartean bilera bat onartzeak ez du beraien jarrera aldatzen, aitzitik, distraitzeko estrategia pausua dela dirudi; elkarrizketarako borondatea lanei dagozkien zeinu argiekin adierazi behar bait da», erantsi zuen Fernandezek. Galderen aurretik, instituzio eta koordinadoraren arteko akordio bat erdiesteko beharra azpimarratu zuten Lurraldeako kideek.

AKORDIOA KONPONBIDE BAKARRA

«Instituzioen eta Lurraldea mugimendu sozialaren arteko akordioa da Leitzarango autobidearen auziaren konponbide bakarra», adierazi zuen atzo Jonan Fernandezek, Lurraldeako kideek akanpadaren lekuan eskaini zuten prentsaurrekoan.

«Gurez ustez, aurtengo otsailaren 25ean Donostian 'Konponbide demokratiko baten alde' mobilizazioan parte hartu zuten 35.000 pertsonek konpromezua eta erantzukizuna jarri zituzten Lurraldearengan, gatazka elkarrizketaren bidez konpontzeko», azaldu zuen Jonan Fernandezek. «Eta elkarte hau, bere gain hartutako erantzukizuna betetzeko prest dago», gehitu zuen.

Helburu hau lortzeko Lurraldea «baikor» dagoela esan zuen Jonan Fernandezek. «Bideragarritasun tekniko, politiko eta sozialaren ikuspuntutik —azaldu zuen—, instituzioen eta Lurraldea mugimendu sozialaren arteko akordioa da Leitzarango autobidearen gatazkarentzako konponbide errealista bakarra».

Lurraldearen bozeramaleak Eli Galdos eta Gabriel Urralbururi dei egin zien aipatu erreflexioa kontutan hartzeko: «Lurraldearekin akordioa bere baitan ez duen edozein estrategia porrot egitera kondenatuta dago».

Akordioa atzeratzen baldin bada, Jonan Fernandezen esanetan, «koordinadora bere lana berrindartzeko prest dago». Gaur, Azpirozko gainean 12.30etan egingo den konzentrazioaren ondoren, abuztuan lau mobilizazio egingo ditu Lurraldeak, 8, 14, 22 eta 29n. «Paseo erreibindikatiboak» izango dira Berastegiko plazatik abiatuko direnak. Irailaren 1ean, Bi Aixitarte pasabidean mendizale eta eskalatzaileen biltzarra egingo da.

Akanpadari dagokionez, partaidetza ona izan dela esan daiteke, 45 denda eta 150 pertsona inguru zenbatu ahal bait ziren atzo. Billabonako koadrilen bisita izan zuen atzo akanpadak.

Iñaki Anasagasti: «Gizartearentzat txarra litzateke hirukoitza haustea»

DONOSTIA

Gasteizko Gobernuak mantentzen duen paktu hirukoitzari buruz galdetu ziotenean, Anasagastik «lau urteko legegintzaldia beteko duela» uste duela esan zuen. Kanpotik egiten zaizkion erasoak indartu besterik ez dute egiten, bere esanetan. «Euskal gizartearentzat txarra litzateke» hitzermena haustea, «Euskadik egonkortasun, gobernabilitate eta lasaitasuna behar duelako».

Euskal parlamentariak onartu egin zuen Euskadiko Ezkerraren krisiak hirukoitzaren bidean oztopoa izan zela. Hala ere, EEren barnean istilutan dauden bi alderdiko kontseilariek Ardanzaren gobernuan jarraituko dute «bi parteek hala adierazi digutelako». Ez zuen Madrileko Gobernuan sartzeko PP edo PSOErekin itunak sinatzeko zurrumurrua komentatu nahi izan, bere ustez «gauza horietaz hitzegiteko goizegi da oraindik».

ERREGEAREN ETORRERA DELA ETA

Iñaki Anasagasti EAJko parlamentariaren esanetan, Europa Press agentziak egindako elkarrizketan adierazi duenez «HBk erregearekin elkarrizketatu beharko luke, bere aurka manifestazioak antolatu beharrean». Espainiako Parlamentuko Euskal Taldearen bozeramalearen ustez, HBk «kalean erregea iraindu beharrean, elkarrizketa bat eskatu beharko lioke beharrezkotzat jotzen dutena adierazteko». Jokaera hau «zibilizatutako pertsonena da» Anasagastiren ustez, eta erregea entzuteko prest egongo zela ziurtzat jo zuen. Hala ere, buru jelkideak ez zuen ziurtasun bera agertu Erregeak bere eskakizunei erantzungo ote zien galdetu ziotenean. Anasagastik positiboki baloratu du errege-erreginen etorrera, eta maizago gertatu behar zela adierazi zuen, «hamar urtetan behin etorri beharrean».

Poliziaren aurkako atentatua Donostian

Poliziaren aurkako bonba-auto bat lehartarazi egin dute Donostian

DONOSTIA

Bonba-auto bat lehertarazi egin zuten atzo goizaldean Donostian, polizi kotxe bat igarotzen ari zenean. Atentatua 1.55etan gertatu zen Errondo pasealekua eta Ferrerias kalea elkartzen diren lekuan eta kotxearen barruan zihoazen bi poliziek zauri arinak besterik ez zituzten izan bizkar eta aurpegian, polizi autoaren blindajeari esker. Gobernu Zibileko iturriek adierazi dutenez, bonba-autoak ustez amonala den 25 kilo lehergailu eta metraila zituen bere barnean.

Eztandaren eraginez 39 kotxe eta gertuko etxebizitza batzuk kalteak izan zituzten. Lehergailua jartzeko erabilitako autoa guztiz txikitua gelditu zen. Polizi autoaren (DGP-2916-E matrikulako Citroen BXa) atzekaldea eta aurrekaldea ere kaltetuak izan ziren, azken honek aurrean aparkatuta zeuden kotxeei jo bait zien.

Atentatua egiteko erabili zen kotxea, Alfa Romeo 33 gorria, bi ordu lehenago armaturik zihoazen bost lagunek lapurtu zioten Igeldo auzoaren inguruan zegoen bikote bati. DYAri egindako deian, ETAren izenean hitzegiten zuen lagun batek bi gazte zuhaitz bati lotuta zeudela ohartarazi zuen. 3.30etan goardia zibilek aurkitu zuten bikotea, kotxea lapurtu zitzaien lekutik 3 kilometrotara, Vasco Press agentziak agertu duenez.

Eztanda egin eta berehala, Polizia Nazionaleko kideak eta EDEX taldekoek (lehergailu indargabetzeko taldea) bonba-autoaren hondakinak arakatu zituzten. Polizi iturriek adierazi dutenez, atentatugileak Errondo pasealekuaren beste aldean dagoen baso batetik jarri zuten martxan lehergailua. Udaltzaingoak metraila bezala erabil zitezkeen torniloak aurkitu zituen atentatu lekutik 500 metrotara. Jose Maria Gurrutxaga, Gipuzkoako Gobernadore Zibila, atentatua gertatu zen lekura iritsi zen baina ez zuen inolako adierazpenik egin.

Bi poliziak zauri larririk gabe atera ziren blindajeari esker. EFE

Vasco Press agentziak kontsultatutako polizi iturrien arabera, azken egunotan izandako atentuen ugaltzeak Erregearen bisitaren aurrean «atentzioa deitzea» du helburu. 'Donosti' komandoa litzateke ekintza guztien egilea Gobernu Zibilaren iritziz, hilabete batean inolako atentaturik egin gabe egon ondoren. 1989ko apirilean antolatu zen komando honi 18 atentatu eta bost kotxe lapurreta leporatzen zaizkio. Ekintza hauen ondorioz, 5 pertsona hil dira eta beste 37k zauriak izan dituzte. Martxan dabilenetik egindako 59 atentatuetan 14 hildako eta 48 zauritutako izan dira. Hauetako 8, Amarako auzoan dagoen Gobernu Zibilaren egoitza inguruan izan dira.

Manifestazio bat izan da Irungo atentatuaren aurka

IRUN

Manifestestazioa egin zen atzo Irunen, ostegunean Goardia Zibilaren koartelaren aurkako atentatuagatik protestatzeko. Antolatzaileen esanetan, mila pertsona inguru bildu ziren. Belasco-Eneako Bizilagunen Elkarteak antolatutako manifestaldia, Irungo kaletan barrena ibili zen 'Por la paz y contra el terror' (Bakearen alde eta terrorearen aurka) lemapean.

Manifestaldi amaieran antolatzaile batek atentatua gaitzetsi zuen «basatia eta ankerra» izan zela adieraziz. Ekintzaren ondorioz «errugabe asko hil zitezkeen alfer alferrik» esan zuen bozeramaleak eta han bildutakoei «kaltetu guztiekin solidarizatzea» eskatu zien.

Ostegun goizeko atentatuan 16 pertsona zauritu zituzten eta kalte material ugari sortu ziren koartel, etxe eta zenbait autoetan.

Nafarroako lehendakariaren hautaketa prozesua

PSOEk eta EAk HBri leporatu diote azken erabakiaren erantzukizuna

Bi alderdien egitasmoak Euskararen Legearen aldaketa aurrikusten du

Gobernu programa amankomunaren aurkezpenean, HBrekin paktatzea «ezinezkoa» dela adierazi zuten PSOE eta EAk, eta alderdi horri leporatu zioten azken erabakiaren erantzukizuna. Beren egitasmoak Euskararen Legearen aldaketa eta EAErekin harremanak estutzeko batzorde iraunkor baten sorrera aurrikusten ditu, besteak beste.

A.UNANUE / **IRUÑEA**

Nafarroako Gobernuko lehendakaritzari eusteko saioan, Gabriel Urralburu sozialistak aurkeztuko duen gobernu egitasmoa plazaratu zuten atzo PSN-PSOE eta Eusko Alkartasunak.

Gobernu egitasmoa azken asteotan izandako negoziaketen emaitza da eta dagoeneko ziurtatua dago aldeko 22 boto (19 PSOErenak eta 3 EArenak) jasoko dituela Foru Parlamentuan. IUren bi parlamentariek aurrez esana dute abstenitu egingo direla eta UPNk kontrako botoa emango dute.

Herri Batasunak edukiko du beraz giltza, abstenituz gero —edota bozketan parte ez hartuz gero— Urralburu izango bait da lehendakari eta PSOE-EAren egitasmoa datozen lau urteotan garatuko dena.

Aladino Colin eta Iñaki Cabaseek azaldu zuten akordioa. JOXE

«Aurrerabiderako programak» PSOEren hauteskunde egitasmoa du oinarritzat eta erraz ikus daiteke non sartu duen eskua EAk. Onarturiko egitasmoan isladatu denez, euskarari lotutako gaiak eta EAErekin harremanak izan dira Garaikoetxearen alderdiaren eskaera nagusiak.

Aurrikusi den Euskararen Legearen aldaketa EAk nahi zuena baina apalagoa da, ez bait dira hiru hizkuntz eremuak desagertuko. EAko bozeramale den Iñaki Cabasesek jakin erazi zuenez, «Gobernuak Foru Komunitatearen izaera elebiduna onartu beharko du eta, halaber, Nafarroa osora hedatuko da euskarazko irakaskuntza jasotzeko eskubidea, eremuen gainetik irizpide pertsonala egongo delarik».

Atzo iragarritakoaren arabera, Eusko Jaurlaritzak eta Nafar Gobernuak batzorde amankomuna izango dute, izaera iraunkorrekoa, «bi elkarteetako politika sektorialak koordinatzeko».

HB-REKIN HITZARMENIK EZ

Aipatu da HBren laguntza nahitaezkoa dela PSOE eta EArentzat. Alderdi abertzaleak, ordea, etengabe errepikatu du Urralburuk aurkako 26 boto izango dituela, aurretik negoziaketarik ez badago behintzat.

Gauzak horrela, sozialistak sareetan atzemanda daude, PSOErentzat «ezinezkoa» delako HBrekin negoziatzea, Colinek atzo adierazi zuenez. Honen hitzetan, «PSOEk HBrekin hitegin deazake, baina HBkoek aurretik jakin behar dute hitzarmen politikoa ezinezkoa dela, ETArekiko lotura hausten ez duten bitartean».

> ✓ Sozialistak sareetan atzemanda daude, HBren laguntza behar duten arren, «horiekin paktatzea ezinezkoa dela» diote eta.

Sozialistak hitzegiteko prest azaldu diren arren, HBkoek argi utzi dute «ez dugula elkar ezagutzeko hitzegiterik nahi, baizik eta akordio batzuetara iristeko».

Iñaki Cabasesen iritziz, «HBkoak gustora egon daitezke, beraiek proposatutako hogei ardatzak osotasunean jasota bait daude gure egitasmoan». EAkoak aipaturiko hogei ardatzak, HBk iragan asteazkenean negoziaketa hipotetiko baterako aurkeztu zituenak dira.

Cabasesek HBri leporatu zion azken erabakiaren erantzukizuna, «bi egitasmoak [UPNrena eta PSOE-EArena] errefusatuz gero, badakielako bietako batek aurrera irtengo duela, eskuindarrena hain zuzen ere».

Egitasmoaren edukiak

A.U. / **IRUÑEA**

Gabriel Urralburuk irakurriko duen gobernu egitasmoak ehun orrialde ditu eta bost ataletan dago zatituta. Aukeratu ditugun honako hauek intereseko zenbait puntu besterik ez dira.

■ EUSKARA

Euskararen Legearen aldaketa: Nafar Gobernuak onartu beharko du Foru Komunitatearen izaera elebiduna, bai gizartean, baita Administrazioan ere. Euskarazko hezkuntza izateko eskubidea Nafarroa osora hedatuko da, eta irizpide pertsonala hizkuntz eremuen gainetik egongo da.

Kontseilu Aholkulariaren sorrera: hizkuntz politikako irizpideak bateratzeko.

Komunikabideak: euskarazko irratien legeztapena eta Euskal Telebistaren emanaldiak jasotze normalizatua.

Ikastolak eta euskaltegiak: arautegi berezia ikastolentzat eta egungo euskaltegi guztiak sustatzeko neurriak.

■ HARREMAN INSTITUZIONALAK

EAErekin: Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Gobernuko kideek osaturiko batzorde iraunkorraren sorrera, bi autonomi elkarteen politikak arlo guztietan koordinatu ahal izateko.

Nafarroa Beherea: Nafarroa Beherea eta Nafarroa Garaiaren arteko elkarlana eta harreman estuagoak bultzatzeko konpromezua.

■ TRANSFERENTZIAK

Transferentzi prozesua ez da amaitutzat jotzen. Foruzaingoak bere gain hartu behar ditu trafikoa eta garraioari lotutako eskumenak. Justizia, enplegua eta gartzeletako kompetentziak ere eskatuko dira.

■ INGURUGIROA

Ingurugiro Agentziaren sorrera: organismo autonomoa izango da, Ingurugiro Departamentuaren baitan, baina gainerako departamentuen jarraipena egiteko ahalmenarekin. Nafarroako Gobernuak «ingurugiroaren defentsa radikala egingo du eta interes ekonomikoak eta ekologikoak bat ez etorriz gero, ekologikoek izango dute lehentasuna kasu guztietan».

Espainiako Erregearen etorrera

Ataungo Udalak atzera bota ditu Erregearen bisitaren kontrako mozioak

I. ARANBURU / **ATAUN**

Atauneko Udalak ezetz esan zion HB eta KEMek Erregearen bisitaren inguruan aurkeztutako mozioei. EAren hiru botoak eta EAJren bakarra nahikoak izan ziren Erregearen bisita «ez gogozkoa» zela zioen mozioa atzera botatzeko. Bozketan, EE abstenitu egin zen eta HBk aldeko 4 boto eman arren alkatearen kalitatezko botoak erabaki zuen. «Bisita ez da ofiziala, Joxemiel Barandiarani egindako bisita partikularra da» izan zen ezezkoaren arrazoi nagusia, Lander Imaz Ataungo alkateak EGUNKARIAri adierazitakoaren arabera.

EAkoa den Lander Imazek esan zuenez, Udalak ez du konbiterik jaso Erregearen harrerara joateko eta hortaz «ez da udaleko inor joango, nahiz Joxemielek Udaleko norbait joatea nahi izatea, kasu honetan, alkatea». Gobernu Komisioak hala erabaki zuelako, HB eta KEMen mozioak osoki eztabaidatu ziren, «nahiz eta KEMekoarekin puntu batzuetan ados egon» Imazek azaldu zuenez. Hala ere ez zuen komentatu nahi izan zergatik ez ziren puntuz puntuz aztertu, osoki egin beharrean.

HB eta KEMek aurkeztutako mozioak antzekoak ziren. Bietan Erregearen bisita «non grata» deklaratzen zen eta Ataungo Udaleko inork Erregeak parte hartuko zukeen inolako ekitaldian ez agertzeko eskatzen zen. Antimilitaristek Udalaren erabakia prentsaurreko baten bidez azaltzea planteiatu zuen ere lehen puntuaren barnean. Hirugarren eta azken puntuan zegoen desberdintasunik handiena. HBk aurkeztutakoan, bisitaldi osoan herriko etxeetako balkoietan eta Udaletxean ikurrina jartzea proposatzen zen eta kontzientzi objektoreenean, «bakearen sinboloa den» bandera txuria izatea.

EEk objetoreen puntu bat edo besterekin ados egon arren abstenitzea erabaki zuen. EAJren zinegotzi bakarrak alderdiaren txosten bat irakurri zuen.

Euskaria: «Euskal Herriaren hondamena nahi du Espainiak»

I.A. / **DONOSTIA**

«Espainiako estatuak nahi duena ez da Euskal Herriaren ona, baizik eta bere boterearen hedapena eta inperialismoa», horrela dio Euskaria taldeak Espainiako Juan Carlos erregearen bisitaren aurrean zabaldutako prentsa agirian.

Euskariaren ustetan, Espainiak «bere burujabetza kendu eta bidezkoa ez den mendekeria ezartzen dio» Euskal Herriari, autodeterminazio eskubidea errekonozitzen ez dion neurrian.

Autodeterminazioaren alde egiten duen talde honen arabera, Espainiak egin duen gobernua guztiz kaltegarria izan da Euskal Herriarentzat, «gure herrian etnozidioa eta zapalkuntza eraginez».

«Espainiako Estatua ez da bermatzen ari ez Euskal Herriaren garapena (NBEko Giza Eskubideen Hitzarmenak agintzen duen bezala), ez bakea, ez askatasuna ezta justizia» dio Euskariak agiriaren beste puntu batean.

Aurreko egoeraren ondorioz, espainiar legediak ez du lejitimitaterik Euskariaren ustetan. Demokraziaren oinarritzat jotzen duen askatasunik gabe bakerik ez dagoela ere aipatzen da. «Etikoki eta politikoki, horrela egonik, Euskal Herriak ez dio obedientziarik zor Espainiako Estatuari» dio komunikatuak.

Bukatzeko, «euskaldunentzako desobedientzi zibilerako atea zabalik dagoela» esaten du Euskariak eta dei egiten die espainiarrei «indarrean dagoen Estatu eredu honekin ez identifikatzera».

Euskal Herria bi estatuk menperatzen dituztela dio EAk

GASTEIZ

Eusko Alkartasuna agiri bat banatzen ari da Gasteizen Europa Cantat-eko partaideen artean eta turisten artean. Agiri horretan esaten denez, «Euskadiren askatasun historikoa mugatuta dago, zatiturik duten bi Estaturen menpe bait dago. Egoera hau onartezina da eta euskalduna bere nortasuna kulturala, bizikera eta hizkuntza bera ere galtzeko zorian dago». Foiletoan EAk «euskaldunok euskal Estatu berbatu eta independiente bat eratzeko dugun eskubidea» aldarrikatzen du.

Maiatzeko udal hauteskundeen ostean, Eusko Alkartasuna, Herri Batasuna eta PSOEk bat egin zuten Baztango Udalean Patxi Oiarzabal (EA) alkate izendatzeko. Zenbait lekutan elkar ikusterik ez duten alderdiek funtsezko arrazoi bat zuten Baztanen ados jartzeko: «bertze horiek». Union Baztanesakoek, «bertze horiek», azken zortzi urteotan eduki duten gehiengo absolutua galdu dute eta Baztan larru berri eta abertzaleekin esnatu da.

Baztan larru berriekin

ANA UNANUE / **ELIZONDO**

«Jendea ohartu da behar dela bertze modura egin gauzak». Hitz hauekin argitu nahi digu Mariano Izeta Elizondoko semeak, Baztanen gertatutakoa maiatzeko udal hauteskundeetan.

Azken zortzi urteotan alkatetza bere esku eduki izan duen Union Baztanesak zazpiehun boto eta bi zinegotzi galdu zituen orduan. Eusko Alkartasunak gora egin zuen eta lau zinegotzi lortu zituen; Herri Batasunakoek beren biak mantendu zituzten eta PSOE, zinegotzi batekin, aurrenekoz sartu zen bailarako Udalean.

Emaitzok itxaropentsu ikusi zituzten baztandar askok, beste hiru alderdiek bat eginez gero, UBk alkatetza gal zezakeelako. Eta horrelaxe gertatu zen, HBk eta PSOEk EAko Patxi Oiarzabalen alde emandako botoei esker. Maiz erabakiak zerbaiten alde baino, norbaiten kontra hartu ohi dira eta antzeko zerbait gertatu zen Baztanen. Ideologien gainetik, argi zuten nork ez zuen agindu behar hamabost herrik osaturiko Udalean.

«LAU LAGUNENTZAKO AGINTEA»

UBren bi legegintzaldiak zer izan diren laburbilduz azaltzeko, «lau lagunentzako agindu dute», dio Amaiurko Paskualek.

UB, independientea izenez eta UPN-PP izatez, haraneko jaun eta jabe izan da urteotan. Iturralde eta Elizalderen garaietan, botere guztia Udalak bereganatu omen du, herrietako alkate-juradoak eta haraneko Batzar Nagusia ahalmena galduz joan diren heinean. Izan ere, «alkate-juradoak betidanik abertzaleagoak izan dira», Amaiurkoaren iritziz.

UBren «lorpenen» artean, herritarren mesfidantza aipatu behar da. Baztandarrak, Paskualek dioenez, «pagatzera joaten dira Udalera», ez zerbitzu edota laguntza bila. Agintariei aurre eginez gero, gauza bitxiak gertatzen omen ziren: «esate baterako, bide bat konpontzen ari baziren, zure etxe parera iristerako, aurrekontua agortu egiten zen eta hor konpon».

Herritarrekin ezezik, herriekin ere jokabide desberdina zutela dio Paskualek, beti ere han lortutako botoen arabera. Amaiurrek, kasu, «gorritxoa» zela eta, bertakoen diruarekin eta auzolanarekin atera zuen aurrera frontoia. Iruritakoa eraikitzeko berriz 86 milioi pezeta (4,3 milioi libera) jarri zituen Udalak. Kasu larriagoak ere izan dira, urik gabe egon diren Zozaiako auzokideena bezala.

Hala ere, ezin da ahaztu UB oraindik bailarako lehen indar politikoa dela. Horren zioa, Amaiurkoaren ustez, nekazarien izaera kontserbatzailea izan daiteke.



Patxi Oiarzabal Baztango alkatea. M.E.

ATEAK GUZTIEI ZABALDU

Udal berriak ekar dezakeena epaitzeko goizegi den arren, joan zen igandeko Baztandarren Biltzarrean izan zirenek giro aldaketa igarri ahal izan zuten. Udalak dirulaguntza agindu die antolatzeileei eta ofizialki hartu zuen parte eguneko ekitaldietan. Udalak lau bandera zituen balkoian —Baztangoa, Nafarroakoa, ikurrina eta espainola— eta, zortzi urteko etenaren ostean, ateak zabaldu zituen jende guztiarentzat.

Hori da, hain zuzen ere, Baztango Udalaren erronka datozen urteotako: ateak zabaltzea, baztandarren perestroika egitea.

Festak termometro ezin hobea izaten dira agintariak neurtzeko eta Pedro Mari Esartek, Elizondoko alkateak, ez du erreparorik izan Santioko jaiei hasiera emateko orduan. Nafarroako bandera eta ikurrina besterik ez zituen jarri Foruen plazako kioskoan eta «Gora Elizondo askatuta» oihuaz bota zuen txupinazoa.

Esartek argitu zigunez, «Estatu espainoleko udal antolakuntzan ez gaudenez, nahi dugun bandera jartzeko luxua daukagu». Loles Iturzaeta kargodunaren hitzak ere nahiko esanguratsuak dira: «ez zenuke sinistuko nola aldatu den hau».

Aldatu beharrekoen artean, bailarako Batzar Nagusia azaltzen zaigu. Oiarzabal alkateak adierazi du dagoeneko alkate-juradoen lana indarbetritzeko asmoa, baina, Esarteren ustez, oso zaila izango da hori. Bere hitzetan, «baikorra naiz Udal berriaren borondateari dagokionez, baina ez legeari begira. Eguneroko borroka izango da, legediak Udaletatik kanpo ez duelako konpetentziarik uzten».

ELKARBIZITZA BAZTANGO UDALEAN

Aurrerantzean, oso sentsibilidade desberdinetako alderdiak arituko dira Baztango Udalean. UBk alkatetza galdu arren, gobernu batzordean dago eta izango du zer esana.

J.M. Pedrosa, UBko zinegotziak, ez dio autokritikari betarik ematen. Bere ustez, galdutako botoek ez dute zerikusirik UBren gestioarekin, baizik eta «kandidatura gehiago aurkeztu zirelako galdu genituen».

Bestetako ekitaldi ofizialetan parte ez hartzeaz, «ez gaituzte gonbidatu eta ez gara joan», dio Pedrosak.

Bere hitzetan, «ulertezina» da HB, EA eta PSOEren arteko akordioa. Hala ere, «uzten badigute, laguntzeko prest gaude», ziurtatu du.

Bestelako iritzia azaldu digu Martin Garde-k, HBko zinegotziak. Haren esanetan, UBkoek «ez dute deustarako kolaboraziorik eman eta ez dirudi gure dinamikan sartzeko prest daudenik. Ez dute ikusi beraiek direla huts egin dutenak herriarekin eta jakin behar lukete badutela erantzukizunik Baztan aurrera ateratzeko».

Beste doinua hasi da entzuten Baztanen. MONIKA ETXEBARRIA

Baztango agintariak eta Nafar Legebiltzarreko presidentea Elizondon. M.E.

Patxi Oiarzabal (EA): «Jendea nekatu egin da prepotentziaz»

A.U. / **ELIZONDO**

Hamahiru zinegotzitik lau besterik ez eduki arren, Eusko Alkartasunak bere zerrendaburua Baztango Udaleko alkatetzan jartzea lortu du. Patxi Oiarzabalek, «gizon xaloa eta baliotsua» Mariano Izetaren hitzetan, bere esku izango du agintea datozen lau urteotan.

EGUNKARIA.— Zortzi urtez Union Baztanesaren esku egon den alkatetza, abertzalea da orain. Zerbait aldatzen ari da Baztanen?

PATXI OIARZABAL.— Udala behintzat aldatu da eta beste zenbait gauza ere alda daitezen ahaleginduko gara. Lehenik, Baztango euskal nortasuna berreskuratu behar dugu, galtzen ari bait zen. Aldi berean, premiazkoa da daukagun industria urria bultzatzea, eta, horri lotuta, komunikabideak hobetzea, Iparraldearekin bereziki. Hori dena etxebizitza sozialen sustapena ahazteke.

EGUNKARIA.— Zazpiehun boto galdu dituen arren, UB bailarako lehen alderdia da. Errazak izango al dira harremanak?

OIARZABAL.— Boto galera garrantzitsua izan da UBrena. Guk aldiz boto ugari irabazi ditugu eta alderdi berria sartu da Udalean, PSOE alegia. Zergatik? Azken urteotan jendea nekatu egin delako UBren prepotentziaz eta nahiago izan duelako beste alderdi batzuei indarra ematea. Horregatik galdu dute besteek gehiengo absolutua. Elkarbizitzari dagokionez, printzipioz ez dugu arazorik izan beharrik UBrekin. Batzordeak talde guztien artean banatu ditugu eta Gobernu batzordean ere denek dute ordezkaria.

EGUNKARIA.— Baztandarrek mesfidantza erakutsi ohi dute euren agintariengan. Hori aldatzerik lortuko al duzue?

OIARZABAL.— Zinegotzi guztiak eta neu ezagunak gara bailaran eta jendeak badaki noiznahi etor daitekeela arazoak planteatzera. Gure ateak zabalik daude denentzat. Dena dela, herritarrengan hurbiltzeko bide egokiena alkate-juradoena izan daiteke eta horien lana nahi dugu bultzatu. Orain arte herriko bestez bakarrik arduratzen ziren, baina aurrerantzean bailarako agintean dagokien zatia utziko dugu haien eskuetan. Ildo horretatik, Batzar Nagusia indartzea premiazkoa da. Batzarrak hamabost herrietako alkateak biltzen ditu eta bere konpetentziako gauzetan —ondare komunalak, adibidez— Udalaren gainetik egon beharko luke. Herrietako kontuak alkateen bitartez bideratuko ditugu, horiek bait dira demokratikoenak —esan nahi dut zu zenkien aukeratzen dituztenak, jendearentzat ezagunagoak direlako—.

EGUNKARIA.— Zuen hizkuntz politikak eta ikurriñaren erabilpenak arazoak ekar ditzake?

OIARZABAL.— Badakigu Udalean sentsibilitade arras desberdinak daudela eta denak errespetatuko ditugu. Baztandarren Biltzarraren egunean legezko bandera guztiak jarri genituen. Guretzat ikurriña garrantzitsuago da, baina jende askok ez du berdin sentitzen eta nik bailarako herritar guztien alkatea izan nahi dut. Hizkuntz politikari dagokionez, funtzionariak pixkanaka euskaldundu nahi ditugu eta seinaleak, eta abar elebidunak izango dira.

Hamabost herri, Udal bakarra

ELIZONDO

Elizondoko alkatea Oiarzabal ala Esarte den argi ez dutenentzat, ez da txantxetako guza Baztango antolamendua ulertzea.

Elbete, Berroeta, Arizkun, Erratzu, Aniz, Elizondo, Amaiur, Irurita, Gartzain, Almandoz, Azpilkueta, Arraioz, Ziga, Oronoz eta Lekarozek osatzen dute Baztan eta Udal bakarra dute, egun Oiarzabal alkate duena, alegia.

Bailarako alkatea eta hamahiru zinegotziak udal hauteskundeetan aukeratzen dituzte, beste leku guztietan bezala. Baina, Baztango alkateaz gain, bailarako herri bakoitzak bere alkate edo juradoa du.

Oliveri: «EHUren erreforman Unibertsitateak eta gizarte osoak hartu behar dute parte»

Irakasle kontratudunek erabilitako «koakzioa» gaitzetsi du Hezkuntza sailburuak

Euskal Herriko Unibertsitatearen erreforma aurrera eramateko, akordio unibertsitarioa ezinbestekoa dela adierazi du Inazio Oliveri Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburua eta EAko idazkari orokorrak. Bere ustez, Eusko Jaurlaritzak izan beharko luke akordioaren bultzatzailea.

DONOSTIA

Akordioa egiterakoan Unibertsitateko sektore guztiak eta gizarte osoak hartu behar dutela parte esan dio Oliverik Vasco Pressi elkarrizketa batean. Bigarren unibertsitate publikoa edo Goi Mailako Zentru Teknologikoa sortu aurretik, etorkizunean gizarteak beharko dituen profesionalen eskaintza zenbaterainokoa den jakin baharra dago Oliveriren ustez.

Ikasturte honetan Unibertsitateak jasandako arazoekiko Hezkuntza Sailak mantendu duen aldentasunari erantzunez zera dio Oliverik, «Jaurlaritzak argi dauka zer den autonomia unibertsitarioa. Hezkuntzaren arlo guztiak gure menpe dauden arren, Unibertsitatearengan ez daukagu ardurarik. Unibertsitatea autonomoa da legeak hala nahi duelako, eta Unibertsitateko arloetan azken hitza dutenak Unibertsitateko Gobernu organuak dira. Kontseilu Sozialak, klaustroak, Gobernu Juntak eta errektoreak berak konpetentzia zabalak dituzte eta Jaurlaritzak errespetatu egiten ditu konpetentzia horiek. Beraz, Unibertsitateak berak konpondu behar ditu arazoak».

Inazio Oliveri Hezkuntza sailburua. OLALDE

IRAKASLEEN JARRERAREN AURKA

Irakasle kontratudunek beren «eskubideen defentsan» erabilitako metodo batzuen aurka agertu zen Oliveri. Ezin da «koakzioa» erabili ikasturte honetako une batzuetan irakasleek egin duten bezala, eta gizarte eta Unibertsitatetik babesteko irakasleek ikasleak «erabili izana» gaitzetsi du. «Erabilitako metodoek min egin digute guztioi, baina batez ere kaltetuei» gaineratu du elkarrizketan.

«Arazoak izaera juridikoa du. Juridikoki arazoa konpondua legoke lasterrera kaleratuko diren epaiek, Auzitegi Gorenak kaleratu berri duen epaian erabilitako eskubidearen ezaugarri berak kontutan izaten badituzte, logikoena hauxe da gainera. Beren egoera legeak ezarritako bideari jarraituz soilik konpon daitekeela onartu behar dute irakasleek» esan du Oliverik.

Irakasle kontratudunen arabera, arazoa konpondua legoke Unibertsitatearen autonomiaz baliatuz lan kontratua ezarriz gero. Gobernu hirukoitzaren jarrera nazionalismoarekiko intsentsiblea ote den galdetzean, Oliverik horrelakorik ezin dela esan erantzun du: «Etxenike kontseilari zen garaietan Jaurlaritzak bakarrik errekurritu zuelako LRU legea Auzitegi Konstituzionalaren aurrean», eta inolako konpetentziei ez dietela uko egiten gaineratu du.

Ikasleen jarrera azpimarratu dute EHUko irakasle kontratudunek

I.E. /**BILBO**

Ikasle gehienen jarrera duina azpimarratu dute ekainean azterketarik egin ez zuten irakasle kontratudunek atzo igorritako oharrean, «uko egin bait zioten behartu nahi zituen autoritarismo polizialaren aurrean, burua makurtzeari». Honez gain, Ertzaintzaren eta Seguritateko Goardien kopuru itzela zela eta, Unibertsitatean bizi zen bortxakeria giroa salatu dute, CCOOeko irakasleek jokatutako paperarekin batera. Epaimahaietako kide zenbait Fakultate honetakoa ez zela ere azpimarratzen da oharrean.

Dekanotzatik behin eta berriro errepikatu da, deialdiak egiteko eskuduntza ez dela Departamentuena baizik eta Dekanotzaren eskubidea dela, aktak sinatzekoa bezala. Lopez Basoaran Dekanotzako idazkariak, berriz, hainbeste seguritateko goardia egoteko arrazoia badaezpadako neurriak hartzea zela adierazi zuen, «inoiz ezin bait duzu jakin kontratudunek zer egingo duten». Bihar berriro ekingo zaie azterketa hauei.

Loteria Nazionalaren 474 milioi pezeta jaso ziren Zentronikon

IRUÑEA

Atzo Madrilen izan zen Loteria Nazionalaren lehendabiziko saria eta dezimoarentzako sari berezia jaso ziren Zentronikon eta 474 milioi pezeta banatu zituzten bat zenbakidun loteria administrazioak eta bertako 'Avenida' tabernan saldu ziren dezimoek. Lehendabiziko saria 99.734 zenbakiak jaso zuen eta sei serie aipatu bi tokietan saldu ziren.

Juana Fernandez eta bere bi ilobak dira saria saldu zuen Loteria Administrazioaren jabeak, Ligues kalean dagoena, eta jendearen artean 'La Pava' izenekoa. Zenbakiaren dezimoak taberna eta administrazioaren artean saldu zituztela kausa, saria eta dirua oso banatuta zegoen bi lokalen bezeroen artean. Dezimoarentzako Sari berezia, bestalde, zenbaki beraren zortzigarren seriearen hirugarren frakzioarentzako izan zen, Zintronikon bertan saldu zena. Horrela, 250 milioi pezeta banatu zituen sari honek, berri hau osatzerakoan jaso zutenak oraindik ezagutzen ez baziren ere. Hala ere, azpimarratzekoa da oso banatuta dagoela dirua. Hau ez da herri honek jasotzen duen Loteria Nazionalaren lehendabiziko saria, irailean ospatzen diren bertako festetan hurbilketa bat ere lortu bait zuen herriko administrazio batek 1989. urtean. Berria jaso bezain laster, kalera atera ziren lau mila eta bostehun biztanle inguruko herri honen biztanle franko, hain banatuta egoteak itxaropen handiak sortu bait zituen jende askorengan.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

Fisioterapeutak eta hezkuntza bereziko laguntzaileak

ORDEZKAPENAK

Hezkuntza berezian ordezkapenak egiteko onartuak izan diren izangaien behin-betiko zerrenda Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzetan jarrita egongo da datorren ostegunetik, abuztuak 1, aurrera.

Gasteiz, 1991ko uztailaren 24ean
PERTSONAL GESTIORAKO ZUZENDARIA
Pablo Larrauri Altonaga

Hirugarren Adinekoentzako subentzionatutako termalismo egonaldiak. 1991ko udazkena

ESKAERAK ABUZTUAREN 1etik AURRERA.

BALDINTZAK

- 65 urte baino zaharrago edo 60 urtetik gorako pentsioduna izatea eta hauen ezkonkideak.
- Gipuzkoako Herrialde Historikoan bizitzea.

TXANDAK

- **Zestoako Balnearioa**
  Urriaren 1etik Abenduaren 15era (hamabost egunero).
- **Errioxako Arnedilloko Balnearioa**
  Irailaren 15etik 29ra.
  Azaroaren 15etik 29ra.
  Azaroaren 29tik Abenduaren 13ra.
- **Nafarroako Fiteroko Balnearioa**
  Urriaren 31tik Azaroaren 14ra.
  Azaroaren 14etik 28ra.

Egonlekuak mugatuak dira.
Pentsio osoko ostatua. Tratamendu hidrotermalak. Mediku espezialistak.

Informazio gehiago nahi izanez gero eta eskaerak aurkezteko Foru Aldundiaren ondoko zentruetara zuzendu behar da:

- Ondoko pentsionista egoitzetan:
  - Luis Mariano kalea, z/g. IRUN. Tel. 62 64 66
  - Olibet Auzoa. RENTERIA. Tel. 52 28 50
  - Alkabita kalea, z/g. BERGARA. Tel. 76 21 40
  - Luis Aldasoro kalea. LEGAZPIA. Tel. 73 12 76
  - Pza. Eusebio Gurrutxaga. ZUMAIA. Tel. 86 17 00
- Ondoko zaharren etxeetan:
  - Arrate Errep. z/g. EIBAR. Tel. 70 24 50
  - Euskalerria Pza., 1. TOLOSA. Tel. 65 06 25
- Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzu Departamentuko Informazio Bulegoan:
  - Santa Catalina kalea, 3. DONOSTIA. Tel. 42 96 19

Gipuzkoako Foru Aldundia — Gizarte Zerbitzu Departamentua

Garraioen euskal kontseilua sortzeko eskatu du UGT sindikatuak

DONOSTIA

Garraioen Euskal Kontseilua sortzeko eskatu die Euskadiko UGT sindikatuko Garraio Federazioak Instituzio eta alderdi politikoei. Euskal Autonomi Elkarteko (EAE) sindikaturik garrantzitsuenek parte hartuko lukete Garraioen Euskal Kontseiluan, Katalunia eta Galizian gertatzen den antzera.

UGTren ustez, garraio arloan burutzen diren ekintza guztiek erabiltzearen beharrak betetzen dituztela bermatuko luke garraioen euskal kontseiluak. Errepideetan eta trenez egiten den garraio publikoan sindikatu sozialistak egindako azterketaren arabera, zerbitzu honek ez ditu EAEko erabiltzaileen beharrak betetzen. 'UGT informa' aldizkarian plazaratu ditu UGTk datuok. Garraio Publikoaren Plan Orokorra eztabaidatu beharra dagoela dio, era berean, sindikatuak.

Garraioen arloko konpetentziak Eusko Jaurlaritzak bere gain hartu zituenetik hamaika urte pasa direla eta oraindik ez duela arlo honetako politikarik martxan jarri gogorarazten du UGTk. Bestalde, garraio arloan orain arte burututako guztia koordinaziorik gabe egin dela dio eta adibide gisa Bilboko metroko lanak jartzen ditu: Bizkaiko Kontsorzioa, Imebisa elkartea eta Eusko Trenbideak/FVen Administrazio Kontseilua erabiliz Bilboko metroaren gestioko elkartea sortu dela aipatuz.

'PORTEEN KARTAREN' APLIKAZIOA

Josu Bergara Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Herrilan Kontseilariak, bestalde, Madrilen egiten ari den Garraioaren VI. Konferentzia Nazionalean parte hartu zuen joan zen asteazkenean. Elkarte autonomiko zein Madrileko Gobernuko arduradunek hartu zuten parte bertan.

'Porteen deklarazioa' dela eta, Euskal Autonomi Elkarteak konpetentziei dagokienez dituen berezitasunak aipatu zituen Bergarak. Berezitasun horiei esker, hiru lurralde historikoetako Diputazioei dagokiei 'porteen karten' kontrola, inspekzioa eta banaketa. EAEko lurraldean 'porteen deklarazioa' martxan Gasteizko Administrazioak jarri behar duela argitu zuen Bergarak. Errepideen bidez egiten den garraioaren datu zehatzak jakitea ahalbidetuko dio Administrazioari 'porteen kartak', eta legez kanpoko garraiolariak desagertaraziko ditu.

HILDAKOAK

BIZKAIA

BILBO
Jesus Villalonga Txarramendieta, 35 urte.
Pedro Moreno Arnaiz, 86 urte.
Gonzalo Villanueva Ceballos, 53 urte.
Elena Mayordomo Lopez, 86 urte.
Concha De Llona y Mendieta, 86 urte.

BASAURI
Jose Lekue Ibarretxe, 72 urte.

ERANDIO
Manuel Marquinez Vallejo, 74 urte.

KORTEZUBI
Vicente Odriozola Jaio, 67 urte.

SOPUERTA
Seberiano Landaburu Velez, 71 urte.

URDULIZ
Maria Elisa Amondarain Amondarain, 45 urte.

GIPUZKOA

DONOSTIA
Josefina Martinez de Retuerto, 86 urte.

ALTZO
Martin Aierbe Mendizabal, 82 urte.

ERRENTERIA
Tomasa Alonso Gonzalez, 86 urte.
Maria Jesus Galarraga Zapirain, 48 urte.

IRUN
Jose Rezola Jauregi, 65 urte.

OÑATI
Ambrosio Madina Ugarte, 85 urte.

ORDIZIA
Aquilino Rastrilla Frias, 64 urte.

SEGURA
Pedro Ugalde Tolosa, 84 urte.
Ildefonso Telleria Ugartemendia, 85 urte.

URNIETA
Manuel Arruti Ulanga, 32 urte.
Andoni Ganboa Goikoetxea, 18 urte.

ARABA

GASTEIZ
Luisa Celaa La Fuente, 81 urte.
Maria Ruiz de Arizabaleta Arrondo, 79 urte.

NAFARROA

IRUÑEA
Jesus Martinez Vinuesa, 63 urte.
Felisa Tolosana Ezker, 75 urte.

AGOITZ
Felipa Adot Adot, 57 urte.

ARRUAZU
Aitor Obejero Ganboa, 18 urte.

AZKOIEN
Pilar Perez Cid, 73 urte.

EIAURRIETA
Rafael Krutxaga Esarte, 89 urte.

ETSAIN
Catalina Idareta Barberia, 67 urte.

ITZALTZU
Juan Bezunartea Siron, 87 urte.

LIZARRA
Manuel Gomez Soto, 78 urte.

MELIDA
Luisa Jaso Murugarren.

NABATZ
Maria Iragi Redin, 82 urte.

NOAIN
Amparo Santos Alventosa, 51 urte.

SAN MARTIN UNX
Josefina Aldunate Valencia, 66 urte.

ZARRAKAZTELU
Aurelio Irigoien Remon, 69 urte.

LAPURDI

BAIONA
Asuncion Lafitte, 87 urte.

ANGELU
Gabrielle Cassoulet, 83 urte.

DONIBANE LOHIZUNE
Renee Ilundain, 82 urte.

HENDAIA
Jacques Cohy, 79 urte.

ZUBEROA

IDAUZE
Felix Garcia, 88 urte.

ESKELAK HARTZEN DIRA: ARRATSALDEKO 4ak ARTE: (943) 45 59 57 4etatik 7etara: (943) 37 15 45

XIX. Euskal Unibertsitatea

Aurtengo edizioaren balantzea ona izan da sailburuentzat

Defizita milioi bat eta berrehun mila pezetakoa izan da

Atzo amaitu zen UEUko hemeretzigarren edizioa, amaiera-hitzaldia eta sailburuek egin zuten balantzearekin. Iñaki Irazabalbeitia zuzendaria pozik azaldu zen lau urteotan egin lanarekin, eta bere ordezkoa izango den Kepa Altonaga aurkeztu zuen Larraonako areto nagusian egin zen ekitaldian.

ALBERTO BARANDIARAN / **IRUÑEA**



Aurtengo edizioaren balantze positiboa egin du UEUk.

Bertan edizio honen datuak eman zituzten aditzera arduradunek, eta hasieran iragarri zen bezala, azken urteotan jende gehien bildu duena izan da aurtengoa, 643 lagunek hartu bait dute parte. Bi astetan mintegi, hitzaldi eta mahainguru franko egin dira bertan, eta sailburuek egin balantzea positiboa izan zen oro har, aldatzeko zenbait neurri proposatu baziren ere.

Neurri hauen artean, horrela, sailen arteko trukatzearen beharra azpimarratu zuen Artea eta Komunikazio sailburuak, «praktikak eta partaidetza bultzatzeko». Musika arloan, kontserbatokietan ikastaroek zuten eragina eskasa azaldu zuen, eta informazioa hobeto bideratzearen alde agertu zen. Iñaki Marko Giza eta Gizarte-Zientziak sailburuak ere oso balantze positiboa egin zuen, eta Zuzenbidean, kasu, urte osoan aritzeko lan talde bat osatuko dela azaldu zuen. Soziologian, berriz, EHUtik kanpoko beste irakasleak ekarri beharra azaldu zuten ikasleek.

Hizkuntzalaritza sailean, partaideen arteko desorekak nabarmendu zituen Erramun Osa sailburuak, eta aurrerantzean bi mail ezberdinak paratu beharra azaldu zuen. Natur Zientziak sailean, bestalde, informazio handiagoa zabaldu behar dela aipatu zen. Halaber, datu ekonomikoak aurkeztu ziren atzoko biltzarrean. Aurten aurrekontua ia hemeretzi milioi pezetakoa izan da, eta defizita 1.200.000 pezetakoa izan da azkenean.

Udako Ikastaroak

Gerra osteko ordenu berria aztertuko dute biharko ihardunaldian

DONOSTIA

Ingurugiroaren zainketaren eskubideari buruzko ikastaroa amaitu zen atzo Arrasate kaleko Kultur Aretoan. Jean du Bois de Gaudusson Bordeleko Unibertsitateko irakasleak lehen hitzaldia eman zuen goizean. Bihar Golkoko gerraren ondoan sortu den 'nazioarteko ordenu berriari' buruzko ikastaroa hasiko da Udako Ikastaroetan.

Serge Soumastre lehenaren erkideak, aldiz, lege atalari ekin zion. Europako Komunitatearen Zuzenbidea eta ingurugiroa erlazionatu zituen unibertsitate bereko irakasleak. Bi adituon hitzaldiek amaiera eman zioten hilaren 24ean hasitako eskola sorta honi.

Loiolako Inaziori dedikatutako kurtsoaren bigarren ihardunaldia sainduaren euskaldun garaikideei buruzkoa izan zen. Jose Luis Orellak, ikastaro honen zuzendariak Loiolako Inazio eta Nafarroako Xabier gonbaratu zituen «Gipuzkoa versus Nafarroa» izeneko hitzaldiaz, sasoi hartan herrialde bien artean izaniko lehia gogoraraziz.

Bihar astelehena beste ikastaro bat hasiko da Donostian, «Berlin eta Bagdad—ekoaren ondoren: Hirugarren Mundua nazioarteko ekonomia berrian» deritzana. Ekonomia eta soziologia adituek gai hau jorratuko dute Golkoko gerra eta ekialdeko sistemen erorketaren ondoan aldarrikatu den 'ordenu berria' aztertzeko.

Robert Sutcliffe 'Hirugarren Munduko krisiaren areagotzea 90etan' hitzaldian mintzatuko da lehendabiziko eskolan. Koldobika Unzetak segitu egingo dio gai berari garatu gabeko herrietako egoerari helduz.

Ondoko eskola ere bitan banatuko da eta honetan Fred Halliday eta Maxine Molineaux adituek ihardungo dute. Hitzaldi bikoitzak '90 urteetako nazioarteko ordenua' izena edukiko du eta aurrekoan bezala Printzea Pabilioian gertatuko da.

Bestalde, Loiolako Inaziori buruzko ikastaroak jarraipena izango du bihar. Herenegun hasitako ikastaro honetan Iñaki Beti, Jose Luis Orella zuzendaria eta Jose Iturmendi arituko dira. Hitzaldiok Inazioren garaia aztertuko dute baina era paralelo baten, Jesus Lagundiaren sortzailearen garaikideen bizitzez, alegia. Francisco de Vitoria, Johanes de Antxieta izango dira, besteak beste, analisi historiko honen ardatzak.

Nazioarteko turismoa egiten duten enpresak salatu dituzte

L.K.G. / **GASTEIZ**

Nazioarteko turismoaren elkartrukea diharduten Time Leader eta Mareverde enpresak salatu ditu Euskal Herriko Kontsumitzaileen Batasunak (EHKB), «kontratua ez betetzeagatik». Iazko urrian Time Leader enpresak turismo eskaintza egin zuen «mundu osoan, erretserbak bermatuta, oporretaz nonnahi gozatzeko malgutasun osoz».

EHKB-k dioenez, «Angelino Alejandro eta Rosa María Pérez bezeroek urriaren 13an aipatu entitateekin kontratua sinatu zuten eta prezio osoa zen 967.500 pezetatik 100.000 eman zituzten orduan». Elkarteak esan duenez, lehen zatia ordaindu ondoren, oporretako data eta tokiak berronetsi nahi izan zituzten, «baina enpresaren afiliazio baldintzen arabera, erabateko diskrezionalitatea dutela eskaerak onarpenari zein elkartrukeen programa eta baiztapenei buruz, hartutakoaren izaera desnaturalizatzen duena».

EUSKALDUNON EGUNKARIA nahastea helburu zuten berriak eta paperak

Zenbait komunikabidek erabilitako «dokumentuak» eskuratu ditugu

J.D. Aizpurua Aizpururi eta Karmen Gisasolari poliziak harrapatutako KASen paper batzutatik egindako informe batean oinarritu dira zenbait komunikabide EGUNKARIA erakunde horrekin nahasteko. Dokumentuak lortu ditugu. Hona hemen gertaerak eta paper horiek diotena.

DONOSTIA

«EUSKALDUNON EGUNKARIAren zuzendariaren izendapena ETAko buruzagien oneritziz egin omen zela ulertu daiteke Frantzian atxilotutako etakideei harrapatutako dokumentazioan». ETB-1eko albistegiak egun horietan KASen paperen inguruko berriekin nahastu zuen esaldia. Handik ordu erdira gauza bera esan zuen ETB-2k espainieraz.

«Ez da posible-ka» hasi ginen erredazioan horren berri izaterakoan. Nola liteke hain arinki eta hain profesionaltasun eskasa erakutsiz medio batek bestea zikindu nahi izatea? Euskal Telebista publikoak euskarazko egunkari bakarra hain merke zikindu nahi izatea? Gure artean gogoan genituen EGUNKARIAk oso gutxi saltzen duela esaten aritu direnak. CIESek eta Administrazio Kontseiluak eskainitako datuen ondoren EGUNKARIAk berrogei mila inguru irakurle dituela frogatu ondoren, zerbaiti heldu beharra zeukan EGUNKARIAri kalte egin nahi zionak.

Programaren bideoa eta «dokumentu» ditxosozko horiek eskatu genizkion albistegien arduradunari. Bideoa baietz baina dokumentuak ezetz. Administrazio Kontseiluaren esku utzi genuen afera. Berari zegokion erantzutea.

IURRETA BARTZELONA IRUNEA

Bi aste pasa eta Bartzelonako 'El Periódico-n' gauza bera. Baina luzeago eta gaiztoago oraingoan. «ETA controló la salida de un diario» izenburu, nahiz eta barruan «ETA estaba al tanto de como nacía la nueva publicación» esan.



DOCUMENTO INCAUTADO A AIZPURUA AIZPURU "PITXAS". (TRADUCCION)

DOCUMENTO INCAUTADO A CARMEN GISASOLA "MARITXU"

DOCUMENTO INCAUTADO A CARMEN GISASOLA "MARITXU"

Poliziak Aizpuru eta Gisasolari hartutako paperetatik egindako dokumentuak.

Berriz ere KASek eta Herri Batasunak komunikabideei buruz idatzitakoekin nahasten zuten. 'Egin-eko' tailerretan editatzen zela zioen, jakina denean prozesu osoa Lasarten burutzen dela eta inpresioa baino ez dela han egiten. KASen abagadune analisi bat aipatzen dute han EGUNKARIA ageri dela eta.

Aizpurua Aizpuru errefuxiatuari harrapatutako paperak aipatzen ditu kazetariak. EGUNKARIAren zuzendaria zela eta ez zela ETAri informazioa eskaintzen omen zitzaion paper horietan. «Es un tío jatorra y bien visto», «Hay muchas dudas y se presentan argumentos a favor y en contra»... Ez du kazetariak izenik aipatzen.

Hurrengo egunean 'Navarra Hoy-k' jaso zuen 'El Periódico-tik' hartuta OTR-Press ajentziak banatutako berria.

Iturri beretik jasotako «informazioak» ziren guztiak.

INFORMAZIOA EZ DA KONTROLA

Baina frogatu beharra zegoen. Une honetan EGUNKARIAren erredazioan daude poliziaren informeetatik osatutako «dokumentuak» eta aipatu komunikabide guztiek erabili dutena. «Datos que constatan el control ejercido por E.T.A. y el M.L.N.V sobre 'Egunkaria', en base a documentos incautados a varios de sus dirigentes en Iparralde, de los que se extrae lo referente a 'Euskaldunen Egunkaria'». Ezin argigarriago izan dokumentuaren helburua, nahiz eta barruko paperak irakurrita eta EUSKALDUNON EGUNKARIAren bilakaera ezagututa, halako ondoriorik ateratzerik ez egon.

Urriak 26ko data darama Aizpurua Aizpururi hartutako berrietatik osatutako paperak. EGUNKARIAren zuzendaritzarako, jakina den bezala, Torrealdaik, Iñaki Zabaletak eta Zalakainek ezin zutela esaten da. «De no ser uno de Argia (cosa que se ve como necesaria) la única opción que queda es Joserra Gartziarena» dio paperak. Honen aldeko eta kontrako iritziak agertu ondoren, hasiera batean P. Zubiria baino egokiago litzatekeela aipatu eta beste paper batean N.G. sigladun bat aipatzen da, oraingoan «P.Z. edo Jox...» komenigarriago agertuz.

Ekonomiaz ere bada zerbait paper horietan. 40 akzio salduta eta 44 hitzemanda zeudela aipatzen du eta hasierarako 150 milioiko kapitala izango zela. Hasieran diru aldetik gaizki ibiliko dela dio eta, inpresio lanak direla eta, EGUNKARIAren porrotak 'Egin-i' 10 milioiren galera ekarriko liokeela. EGUNKARIA abenduaren 4ean aterako zela esaten da, nahiz eta 6an atera zen.

Karmen Gisasolari harrapatutako paperetatik, KASen informazioa dela aipatuz, EA barruan EGUNKARIAri buruz sortutako kontraesanak agertzen dira. «Parece que la situación es bastante complicada y la última aparición de Garaiko (acerca del tema del periódico) puede ser una consecuencia de ello». Abuztuko data darama paper honek, hala nola, EGUNKARIAk berak bere errotatibarik ezin duela izan dioen beste papera.

ARINKERIAK ERAGINDAKO KALTEAK

Hauxe da «dokumentu» horietan aipatzen dena. KASek, indar politiko guztiek bezalaxe, EGUNKARIAren sorrera gertutik jarraitu zuela ondoriztatu daiteke. Baina hortik ezin dira argitaratu diren titularrak atera. Alde handiegia dago batetik bestera eta ez ditu toki onean uzten lardaskeria horretan aritu diren kazetari eta komunikabideak. Norbaitek «dokumentuak» pasata ere kazetari eta komunikabide profesional baten lana da, lehendabizi horiek benetazkoak diren ikustea; ondoren, kontrastatzea eta azkenik ondorio faltsurik ez ateratzea.

Kazetari, enpresari, elkarte eta herritar asko bait gara horrelako «berri» batek sortutako kaltea sufritu behar izan dugunak.

Política

ETA controló la salida de un diario

Ardanza califica la visita del Rey como un reto para los vascos

Bartzelonako 'El Periodico'.

Egunez egun

UZTAILAK 10. Eguerdia. Joserramon Belokik gobernuaren egunkari proiektua uzten zuela eta Joseba Arregirekin eskainitako prentsaurrekoa. Beloki: «tentazio baten berri emango dizuet, ez dakit zer egingo dudan, baina igual, batzuei bidaliko diet dokumentu fotokopiatu bat...».

Uztailak 10. Ilunabarra. ETB-1eko Gaur Egun eta ETB-2ko Teleberri: «EUSKALDUNON EGUNKARIAren zuzendariaren izendapena ETAko buruzagien oneritziz egin omen zela ulertu daiteke Frantzian atxilotutako etakideei harrapatutako dokumentazioan». Albistegiok egun horietan zerabiltzaten KASen paperen inguruko berriekin nahastu zuten esaldia.

UZTAILAK 24. Bartzelonan argitaratzen den 'El Periódico-n': «ETA controló la salida de un diario» agertu zen tipografia handiz eta sei kolumnetara. Barruan ez dator izenburu justifika dezakeen ezer. Asko jota KASek eta ETAk egunkari berriaren sorreraz informazioa bazutela atera zitekeen.

UZTAILAK 25. Iruñeko 'Navarra Hoy-k' Bartzelonako 'El Periódico-tik' jaso eta OTR-Press ajentziak eskainitako berria argitaratu zuen: «ETA controló la salida del periódico Egunkaria».

UZTAILAK 27. Egunkaria S.A.ko Administrazio Kontseiluak orri honetan bertan agertzen den oharra idatzi eta bidali die aipatu komunikabideei zuzendariaren gutun banarekin batera.

Egunkaria S.A.ko Administrazio Kontseiluaren oharra

Egunkaria S.A.ko Administrazio Kontseiluak ohar hau ezagutaraztea erabaki du, ustezko ETAkideen esku omen zeuden dokumentu batzuk oinarri, Prentsan agertu diren berriak direla eta. Berri horietan, KASeko barne txostenak aipatuz, indar politiko horrekin nahasi nahi bait da EGUNKARIAren sorrera.

■ EUSKALDUNON EGUNKARIA eta honen argitaratzaile den enpresa, Egunkaria S.A., euskal kultur munduko 70 lagunen iniziatibari jarraiki osatu ziren. 'Egunkaria Sortzen' izeneko talde eragilea osatzeko deialdi zabal eta irekia egin zen, eta EGUNKARIA argitaratzeko asmo baterakoiarekin bildutako 70 lagun horiek, euskaltzaleen artean euskara hutsezko egunkaria argitaratzeko dagoen adostasuna isladatzen dute.

■ Enpresa argitaratzailearen osaketa eta kapital bilketaren prozesua garden gardenak izan dira hasiera hasieratik. Horren ondorio dugu partikular asko, euskal kultur munduan ari diren enpresa gehienak, ikastola andana, Udaletxe eta euskal elkarte franko ere enpresako akziodun direla egun, 'Egunkaria Sortzen' hasiera hartako taldeaz gain. Hasiera hartan, gainera, artean ez zuen Jaurlaritzak oraindik ere aztertzen ari den egunkari publikoaren proiektua egiteko asmorik agertu.

■ Ez hasierako Administrazio Kontseiluak, ez eta ere Akziodunen Batzarraren ondoren osatutakoak, ez du inoiz ezein indar politikoren eraginik jasan, ez zuzendariaren hautaketan, ez kapital bilketa prozesuan, ez eta ere bere gestioarekin zerikusirik izan dezakeen inolako alorrean.

■ Apirilaren 20ko Akziodunen Batzarraren erabakiz Eusko Jaurlaritzak ere postu bat duen Egunkaria S.A.ko Administrazio Kontseiluak, argitalpen honen euskarri diren independentzia eta euskaltzaleen adostasunari eutsi egingo die orain artean bezala.

■ Zortzi hilabeteren buruan EUSKALDUNON EGUNKARIAk 200 zenbaki plazaratu ondoren, Herri honetako sektore ezberdinekiko zabaltasuna eta aniztasuna erakutsi ondoren, euskarazko egunkariaren ametsa egunero berrogei mila irakurle inguruko errealitate eder bihurtu ondoren, jatorri iluneko dokumentu batzutan oinarrituz EGUNKARIAren sorreran eragin politikoren bat bilatu nahiak, lortutako arrakasta lohitzeko itxuragabeko saioa erakusten du.

■ EUSKALDUNON EGUNKARIA errealitate garden eta garbiari buruz nahasketa sortu nahi izan da. Jarrera ezin arinagoa erakutsiz eta profesionaltasunak eskatzen duen etika ahaztuta helburu ilun horien esku jarri diren komunikabideak salatzeko, Egunkaria S.A.ko Administrazio Kontseiluak bere eskura dituen eta egokien derizkion legezko bideak erabiliko ditu.

HBk 'Abril txostena' kritikatu du

DONOSTIA

HBk kritikatu egin du Abril txostena izenaz ezaguna den Gizarte Segurantzaren balizko erreforma. Koalizio politiko honen iritziz, Abril Martorellen prposamena «osasun munduaren pribatizazioranzko pausua da, sektorerik pobreenen kalterako».

Diputatu Kongresuak agindutako azterketa honek, PSOEren irizpideak utzi ditu agirian, HBren esanetan, «Gizarte Segurantza suntsitzeko aurrerapausua bait da». HBk azaldu duenez, «oraingo osasun sistema agortuta dago, bai, baina hau ez da erretiratu eta langileen abusuagatik, Administrazioak burutu izan duen gestio eskasagatik baizik». HBren ustez, gobernu espainiarrak ez ditu okerrak zuzendu, «osasungintza publikoa erabili izan dute beraien adiskideentzako enplegu bulego gisa». Ospitaleek hobeto funtzionatu dezaten apostu egiteko eskatu du HBk, «osasun sistema publikoaren benetako berregituraketaren bidez».

Okupatzaileek Gasteiz eta Otazuko etxeen desalojoa salatu zuten

Arabako herriko okupatzaileak irailean izango dira epailearen aurrean

Gasteizen, Adurtza auzoan eta Otazu herri arabarrean izan diren okupazioen desalojoak salatu zituen atzo prentsaurrekoan gazte talde batek. Haien esanetan, bizi nahiz iharduera kulturalak egiteko gazteok dauzkaten beharrak «ikaragarriak» dira.

LUIS KARLOS GARCIA / **GASTEIZ**

Iragan asteazkenean Gasteizko Cercas Bajas kalean dauden KAS enpresaren bulego zaharrak okupatu zituzten, «gazte gasteiztar batzuen beharrizan itzelak aintzat harturik». Aldez aurretik, okupazioa iragarri zioten jabea zen Knörr familiari, «etxerako inolako planik» ez zegoela jakin eta gero. Hala ere, ostegunean jabeak azaldu eta «guk hitzegiteko izan genuen jarreraz baliatu ziren etxetik atera erazteko», esan zuten gazteek.

Jabeen asmoa «espekulazioa» da okupatzaileen ustez. Jabeek hau «aitortu» behar izan zutela komentatu zuen gazte talde honek. «Zein da, bada, lehentasuna duen eskubidea, ondasun pribatuarena ala etxebizitza izatearena», galdetu zuten gazteek. Horrelako kasuetan lehendabizikoa nagusi dela «agerian» gelditu da haien ustez.

Bestalde, 'Adurtzako Gazteak' elkarteak okupatuta zituen bi etxe «hustu» zituzten uztailaren 8an izen bereko auzoan. «CAMPSArenak ziren baina Polizia etorri zen Polizia Nazionalaren Zuzendaritza Nagusiarenak zirela esatera», aipatu zuten gazteek. Azkenik, Otazuko etxe bat duela urtebete okupatu zuten gazteak irailean epaituko dituztela salatu zuten.

Gazteek «etxebizitza izateko eskubidea» aldarrikatu egin nahi dute. OLALDE

Txanpon makinek jokatutako % 70 banatu beharko dute

DONOSTIA

Txanpon makinek apostu guztien % 70 eman beharko dute gutxienez saritan, Eusko Jaurlaritzaren Barne sailak erabaki duenez. Arau hau 'B' mailako makinei dagokie.

Manatu honek mota honetako makinen ekoizpena arautzeko balioko du, harik eta Legebiltzarrak euskal gobernuak zehaztuko duen jokoaren legea onetsi arte. Aginduaren arabera, partida bakoitzeko gehienezko prezioa 25 pezetakoa izango da, eta saririk oparoena 12.500 pezetakoa. Saritan banatuko den portzentaia % 70ra iritsiko da gutxinez. 'C' saileko makinetan 600 pezetakoa izango da partidaren gehienezko ordaina. Saririk oparoenaren muga apostuaren balioa bider 5.000 pezeta izango da gehien jota. Banatuko den dirutzaren portzentaiak apostuen balioaren % 80tik gorakoa izan beharko du derrigor.

ESPAINIAKO LOTERIA NAZIONALA

1991KO UZTAILAREN 27EKO ZOZKETA

Hamabi serie 100.00 txartelekoa bakoitza

ZOZKETA 34/91

Zenbaki sarituei dagozkien irabazien zerrenda,azken zifraren arabera sailkatuak

Sari hauek, kobratu ahal izango dira 1991ko urriaren 28a barne. ORDURA ARTE.

0	1	2	3	4	5	6	7	8	9
Zenbakiak Pezetak	Zenbakiak Pezetak	Zenbakiak Pezetak	Zenbakiak Pezetak	Zenbakiak Pezetak	Zenbakiak Pezetak	Zenbakiak Pezetak	Zenbakiak Pezetak	Zenbakiak Pezetak	Zenbakiak Pezetak
48700.....50.000	48701.....60.000	48702.....50.000	48703.....50.000	48704.....55.000	48705.....50.000	48706.....55.000	48707.....50.000	48708.....55.000	48709.....50.000
48710.....50.000	48711.....50.000	48712.....50.000	48713.....50.000	48714.....55.000	48715.....50.000	48716.....770.000	**48717..20.000.000**	48718.....770.000	48719.....60.000
48720.....50.000	48721.....60.000	48722.....50.000	48723.....50.000	48724.....55.000	48725.....50.000	48726.....55.000	48727.....50.000	48728.....55.000	48729.....50.000
48730.....50.000	48731.....50.000	48732.....50.000	48733.....50.000	48734.....130.000	48735.....50.000	48736.....55.000	48737.....50.000	48738.....55.000	48739.....50.000
48740.....50.000	48741.....50.000	48742.....50.000	48743.....50.000	48744.....55.000	48745.....50.000	48746.....55.000	48747.....50.000	48748.....55.000	48749.....50.000
48750.....50.000	48751.....50.000	48752.....50.000	48753.....50.000	48754.....55.000	48755.....50.000	48756.....55.000	48757.....50.000	48758.....55.000	48759.....50.000
48760.....50.000	48761.....50.000	48762.....50.000	48763.....50.000	48764.....55.000	48765.....50.000	48766.....55.000	48767.....50.000	48768.....55.000	48769.....50.000
48770.....50.000	48771.....50.000	48772.....50.000	48773.....50.000	48774.....55.000	48775.....60.000	48776.....55.000	48777.....50.000	48778.....55.000	48779.....50.000
48780.....50.000	48781.....50.000	48782.....50.000	48783.....50.000	48784.....55.000	48785.....50.000	48786.....55.000	48787.....50.000	48788.....55.000	48789.....50.000
48790.....50.000	48791.....50.000	48792.....50.000	48793.....50.000	48794.....80.000	48795.....50.000	48796.....55.000	48797.....50.000	48798.....55.000	48799.....50.000
99700.....50.000	99701.....60.000	99702.....50.000	99703.....50.000	99704.....55.000	99705.....50.000	99706.....55.000	99707.....50.000	99708.....55.000	99709.....50.000
99710.....50.000	99711.....50.000	99712.....50.000	99713.....50.000	99714.....55.000	99715.....50.000	99716.....55.000	99717.....50.000	99718.....55.000	99719.....60.000
99720.....50.000	99721.....60.000	99722.....50.000	99723.....50.000	99724.....55.000	99725.....50.000	99726.....55.000	99727.....50.000	99728.....55.000	99729.....50.000
99730.....50.000	99731.....50.000	99732.....50.000	99733...1.050.000	**99734..40.000.000**	99735...1.050.000	99736.....55.000	99737.....50.000	99738.....55.000	99739.....50.000
99740.....50.000	99741.....50.000	99742.....50.000	99743.....50.000	99744.....55.000	99745.....50.000	99746.....55.000	99747.....50.000	99748.....55.000	99749.....50.000
99750.....50.000	99751.....50.000	99752.....50.000	99753.....50.000	99754.....55.000	99755.....50.000	99756.....55.000	99757.....50.000	99758.....55.000	99759.....50.000
99760.....50.000	99761.....50.000	99762.....50.000	99763.....50.000	99764.....55.000	99765.....50.000	99766.....55.000	99767.....50.000	99768.....55.000	99769.....50.000
99770.....50.000	99771.....50.000	99772.....50.000	99773.....50.000	99774.....55.000	99775.....60.000	99776.....55.000	99777.....50.000	99778.....55.000	99779.....50.000
99780.....50.000	99781.....50.000	99782.....50.000	99783.....50.000	99784.....55.000	99785.....50.000	99786.....55.000	99787.....50.000	99788.....55.000	99789.....50.000
99790.....50.000	99791.....50.000	99792.....50.000	99793.....50.000	99794.....80.000	99795.....50.000	99796.....55.000	99797.....50.000	99798.....55.000	99799.....50.000
	Amaierak	**Amaierak**	**Amaierak**	**Amaierak**	**Amaierak**	**Amaierak**		**Amaierak**	**Amaierak**
	6561.....125.000	6132.....125.000	433.....25.000	734.....80.000	415.....25.000	486.....30.000		0988.....130.000	249.....25.000
	851.....25.000	9652.....125.000	863.....25.000	794.....30.000	565.....25.000	6..... 5.000		3928.....130.000	19.....10.000
	01.....10.000	342.....25.000	913.....25.000	844.....30.000	75.....10.000			8..... 5.000	
	21.....10.000			854.....30.000					
				34.....30.000					
				4..... 5.000					

ZOZKETA HONEK 4.386.120 DEZIMO SARITU ADJUDIKATZEN DITU, GUZTIRA 4.200.000.000 PEZETA

SARI BEREZIA	FRAKZIOA	SERIE	PILATUTAKO SARIA	HERRIA
246.000.000 pta. 99734 zk. LEHEN SARIA	3.	8.	250.000.000	ZENTRONIKO

Manuel Garate Urbistondo, apaiz baten semeak kontatutakoak

Askotan bezala, kamioz kamio paseoan noala,hor egiten dut topo udazken arratsalde batez Manuel Garate jaunarekin. Geren diosalak egin; eguraldiarekiko legeak konplitu; eta izpidetu garenean, ditxosozko lanaren kontua iritxi da, eta:

— Ik ez al dek periodikuan ere zeozertan jarduten?

— Baaa... noizbeinka bialtzen dut uxkerin bat, biño deus gutxi.

— Nik eukitzeyat ba, kasu latz askua kontatzeko. Ni apaiz baten semia nauk, eta ama oraindik soltera zala Santa Agedan illa, ogeita zazpi urte besterik etzuala gaxua! Pozik jarriko nixkikek periodikuan nik pasatakuak eta nik ikusitakuak, jendiak jakin dezan...

Amaren eta aitaren kontu hura, sarrerako laburpena baizik etzen izandu. Ondoren bere bizitza guztia kontatu zidan, eta egia esan, harritu eta zuriturik utzi ninduen. Baina nik orduan kasetik ez izaki eskura, eta beste egun batean egoteko gelditu nintzen, esanez beste eragozpenik izaten ez bazen behintzat, aterako niola kontu hura periodikoan.

Ez nahi bezain agudo, baina halako batean joan natzaio kaseta artuta bere etxera, eta baita haren pasadizo izugarri guztiak jaso ere. Nabari zuen gizonak, barrenak ustutzeko gogoak amorratzen zegoela; eta etzuela gainera inongo lotsik, hala ziren gauzak esateko; aldrebes, kontzientziaren karga lasaitzea beretzako ondra zela etsita zegoen; eta horretan ez zuen arrazoi faltarik. Honatx ba, luzamendutan ibili gabe, berak esandakoak:



Bere etxera joan ginenean, bere ama zenari jarritako bertsoak kantatzen hasi zitzaigun Manuel Garate. Antxoa pote gaineko kartoietan zituen boligrafoz idatziak banan bana, eta denak txukun-txukun bilduak goma batekin.

CARLOS VILLAGRAN

Bere ama zenari hamasei bertso jarri zizkion Manuel Garatek. Horietatik hamabi aukeratu ditugu:

Bertso lanari ekin nai diot
Barrenak ustuxe arte.
Gordian neuzkan gauz illun abek
Miñ ematen baitiate.
Batere biyotzik dezutenak
Kupituko al zerate.
Ta entzun nai ez dutenak berriz
Belarrik itxi bitzate!

Ama maitea zu sortu ziñan
sufritutzeko mundura.
Errurik gabe pagatu zendun
Kondenatuen modura.
Nunbait etsayak utzi zintuan
Otso gaixtuen eskura:
Azkenerako or zenituan
Zoramen danak burura.

Gure aitona diru aldetik
Gaizki zebillen orduan.
Apaiz gazteak osatu zuan
Elizaren anparuan.
Orregatikan kutsutu ziran
Aragizko pekatuan:
Apezak berak tranpa eginda
Utzi zuan estaduan.

Etxeratzian aitak makilka
Biali zuan aurrian,
Gero artatik burua galdu
Bere estutasunian.
Azkenerako bodegan sartu
Arrapatu zutenian.
Gordeta antxe euki zuten
Lurpian urte betian.

PATZIKU PERURENA

«Nere aittonai, Zumaiko Sagarbide basarrin nagusi zeguan anaya ill zitzakon, brigadan lanian ai zala, harrobiko tirua saltauta. Orduan kanpuan morroi izate zan nere aittona, eta deittu eiñ zioten, anaya il tzala, ta anayan lekura etortzeko Sagarbidera.

»Etorri zanian, ze in tzuan? Etxian alargun geratu zan koiñata bere iru seme alabakin etxetik kanpora bialdu, ta bera jarri jaun da jabe! Etxia etzitzakon koñatai tokatzen, baña, semeai bai. Semiak baitzian Sagarbidekuak. Gure aittona ere angua zan, baña, anai zana zegon etxeko nagusi, eta anai zanan kargua illoban esku geratze zan.

»Gero, aren osabak auzitara jo, eta Itziarko Sagarbide basarria eskutik kendu ziguen guri dana. Nere amona zana berriz, Juana Urbistondo, ordurako Zumayan zeguan iñure, Estanislao Etxaberen semiari, Joxeri, petxua ematen. Bai, Joxe Etxabe, umia zala, gure amonan bularretik azittakua da.

«ETORRI ZANIAN, ze in tzuan? Etxian alargun geratu zan koiñata bere iru seme alabakin etxetik kanpora bialdu, ta bera jarri jaun da jabe!»

»An zegoala, nere amon orrek esplikau zuan ze kasu zaukan, ta Zumayako Otalora basarria eiteko mendi troxo bat erosi zuen sei milla errialetan. Eta sei milla errial oyek oso osoikan Estanislao Etxabe orrek eman zixkoen. Baiña, diru arek ordaindu eiñ biar zuan, eta eziñ ordaindu. Familiyare aundiya, eta dirurik eziñ aurreatu iñola.

Handikan bost sei urtea, Don Tomas Arteaga, orduan Donostiko Antiguo Eleizan parrokua zanak emanda pagatu zitzaizkon sei milla errial oyek Estanislao Etxaberi. Parroko aren etxian bait zeguan orduan gue izeba Iñaxi, ta aren bitartez eskuratu zian diru oyek.

»Gero, izeba Iñaxin bidez, Donostiko ultramarino batea jun zan neskame nere ama zana Joxepa, aizpa gazteagua. Ortako, apaiz ori zebillan tartian gidari. Zeatik? Ba, arke, beste danena: bere sei milla errialak kobratu nai zittualako. Nola ordia? Nere ama zana gaxua lazuan arrapatuz!

»— Etxe orretan diru askokuak dia, ta mutill orrekin ezkondu zaitte. Ta ezezka asten bazaizu probokatu zazu —esaten omen zion apaizak.

»Nere ama zana neskame zeguan Ultramarinoko nagusi ori, Manuel Maria Munarriz, naparra zan berez, Artajonakua; kerida zar batekin bizi zana; ta dendare arena omen zan; ta apaizak mutillana zala uste. Ala, neskamia, nere ama zana Joxepa, apaizak agindu bezala probokatzen asi zitzakonian nausi orri, ze in dia? aixkiretu, ta alkarrekin tratuan asi. Baña, nausiak, garai artako, pentsa zazu, aurdun ez geatzeko emakumin pastillak ematen omen zizkan.

»Nere ama beartua zegon; Don Tomas apaiz orrekin konfesatzen zan, ta dana esate zion, nagusiak nola pastillak ematen zizkan, ta dana... Jakiña, apaizak dana kontrolatu biarra baitzakan.

»— Baña, zurekin ibilli da? Pastillak eman bai, baña zurekin ibilli da?

»— Bai jauna, ibilli da bai!

»— a, pastillik etzaiozula geyo artu. Neuk jarriko zaittut aurdun. Ta geo bere aitzaki eingo deu. Ez lezake ukatu. Ukatzen asten bada, derrior beak deklarau biarra dauka pastillan kontuba; ta ori oso azio grabia da; kartzela sartze espauere, gaizki ibilliko da mutilla.

»Ala, apaizak pentsatu bezala, nere ama gaxua aurdun utzi zuanian, deitu zion ultramarinoko nagusi orri, ta dana esan omen zion berak planeatua zakan bezala:

«NERE AMA BEARTUA zegon; Don Tomas apaiz orrekin konfesatzen zan, ta dana esate zion, nagusiak nola pastillak ematen zizkan, ta dana...»

»— Zure neskamia, nerekin konfesatzen da, ta dana aitortu dit. Aurdun dago gaixua. Ta lenbailen ezkontzia dezu onena. Nik ez diot iñori ezer esango.

»Mutillak ez omen zion ukatu eindakorik ezerre. Apaiza ustez listua! Baiña bestiare ez izaki tontua! Ultramarinoa traspasuan eman; diruak eta kerida artu; eta ospa egin omen zuan Argentinara! Santas paskuas! Antxe geatu omen zan nere ama gaxua, zerua goyan eta lurra beran, iñoako etzala.

»Orduan, apaizak aindu zion nere ama zanai etxera biltzeko. Bildu zan etxera gaxua, ta egun berian amai esan zionian nola aurdun zeguan, aittak egurrakin artu aurrian da, etxetik kanpora atea omen zuan. Gaixuak, etxian aldamenian, meta baten onduan, nola ala bota omen zuan gaua.

Manuel Garate Urbistondo, ume txikia zela, bere ama Josefa Garate Urbistondoren besoetan.

»Biamun goizian, lenbiziko trenian Donostia jo omen zuan berriz, apaiz orregana. Ta Don Tomas orren bidez sartu omen zan Billabonako *Fraisoron*, biar zian paperak Diputaziuan einda noski.

»Ni Manuel Garate, or jayua naiz, Fraisoron jayua. Gero, ortik, zortzi euneko aurra, Aretxabaletako Arkarasora eaman niñuen ni. Andik, urrena, umia bere amai entreatzeko ordena eman zitzakonean Arkarasoko Timoteo Izurrategiri, pena galantakin entreatu omen niñun ni Zumaiko Sagarbiden! Onek erakusten du aittonan beste pekatua. Auxen da nik oaindik eiten deten galdea:

»— Bi milla pezeta zeatik eskatu zitzaizkon ni jaso niñun gizon ari? Aiñ gogor gañea! Juzkaduan parte emango zuala amenazua emanda!... Ee, zeatik eskatu zitzaizkon?...

»Esan bezala, bere semetzat ezagutu nayan eaman niñun ni Aretxabaletako Arkarasoko Timoteo Izurrategi orrek, baña, zer pasa zan? Nere ama zana agertu zitzakola aguazillakin, ta nola aguazilla izaten dan testigu doblia, Timoteok egin biar izan niñun entregatu. Baiña, nere ama ez omen zan nere billa bere gogoz jun, aittonak artara beartuta baizik. Ark neri tokatzen zitzatan dirua nai zuan ordune! Ez besterik!

»Aren arrazoyak erakusten du earki. Ni, artian aurra, Timoteok Sagarbiden entregatu niñun eunian, aittona zanak, lenguak lengo, ala esan omen zion gizonai:

»— Umia ola entregatze al da?

»— Ze nai dezu nik eittia! Nik artu nunian txikiaua zan! Pena earra ematen dit, baña, ementxen lagatzeizuet nik; zuena da ta.

»Eta nere aittonan erantzuna au izan zuan gizon arek:

»— Onen bi milla pezetak nun dia?

»Eta Timoteok esan omen zakon:

»— Nik ez dakit. Nik Diputaziotik artu nuan umi au, eta baldin bada ere, Diputaziuan izango da dirua.

»Eta gure aittonak berrize:

»— Joko det nik Diputaziotik, ta an ezpadau dirua, juzkaduan sartuko zattut.

»Eta Timoteok erantzuna:

»— Bai, sartu, nai badezu Zumayan, nai badezu Bergaran, nai badezu Donostiyan... baña len esan dizut, eta berriro esateizut, nik ez det diru orrenik, nik ez det kobratu umi onen izenian, eta nei eztiazu kenduko.

AITONAK ILLOBAN DIRUA JASO

Biamunian jun da Donostiara nere aitton ori, Inazio Garate ori; an ein du nere diru orren galdia; ta baietz, an zeola, baiña inposiblia zala ematia. Alaz ta guzize erregutu ein omen zuan, pobrezan zegola, ta beai emateko diru ura. Azkenian eman ein zitzakon dirua; baiña, nere ama zana Joxepak eta bere seme Manuelek, nik, Sagarbiden babesa izateko kondiziyuan, eta ni ezkontzen banitzan, eskriturak nere eskura jartzeko kondiziyuan.

»Baiña, aittonak nere diruak bereganatu zittuanian, zer ein zuan gero? Bere semiai basarria saldu amar milla durotan, nik ogeitairu urte nittula! Legez kontra, jakina. Ni, artian ezer enekilla, ez diru ta ez etxe geatu nitzan!

»Ogeitamalau urtetan ikasi nuan nik Sagarbiden zer deretxo nauzkan. Ondarrabiyan morroi neguala, Aretxabaletako Arkarasoa bixita eittia pentsatu nuan, neu azitzen euki niñuen gurasoei, ta an esan zian Timoteok:

»— Gauza bat galdetu beiaizut, Manuel. Zure aittona nei kendu naian ibilli zan 2.000 pezeta ayek entreatu al zittuen, eo ze in zuen arekin?

»— Ez, nei ez dit iñok ezer esan izandu!

»— Eske arek nai zittun diru ayek kobratu, baña, zu ezkontzian Diputazioan kobratzeko diruak zian ayek.

»— Baa, ezkondu... Oandikan ez do beintzat presikan da, ikusiko deu, iñoiz ezkontze bagea...

»Ala, ura pasa zan, ta ni ezkondu nitzanian, nola Diputazioko semia nitzan, an ezkontzeko kapretxua nuanez, ango kapilla Arantzazun ezkondu nitzan, ta orduan Madre Superiorrak ala esan zian, erderaz, jakiña:

»— Jolin, Manuel, menuda suerte, ¿no? Se cása y encima cobra 2.000 pesetas.

»— Pero cómo 2.000 pesetas?

»— Sí, sí, le corresponden. Usted va a la Diputación a donde Andres, y allí le darán las 2.000 ptas. que le corresponden.

»Biamonian, Diputaziora jo degu andria ta biyok, eta antxe zegoen papera. Nere jaiotzakoa. Aurrena nere ama zanaren izena jartze zuan: *Josefa Garate Urbistondo*; urrena neria: *Manuel Maria Garate Urbistondo*, eta irugarrena, jakiña, *Don Tomas Arteaga* apaizak nere aitatasuna ukatzian, tutore intzana: *Inazio Garate Lizaso* , nere aittona.

»Nik orduan ikasi nuan nere 2.000 pezetak aspaldi kobratuak zazkala nere aittona zanak, baña kondizio batekin: nik eta nere ama zanak Sagarbiden babesa izateko kondiziyuan, eta ni ezkontzen banintzan, etxiaren jabe ni izateko kondiziyuan. Zeatik, garai artan 2.000 pezeta diru asko baitzan. Ni ordia, ez diru ta ez etxe geatu nitzan,

AMA BURUTIK NAHASI

Jakiña, aittona zanagandik zetozen diru zikiñak ziala merio ikusitakoak ikusita, nere ama zena gaixua burutik endreatzen joan zan pixkana pixkana. Ni izanduta gero, neskame ibilli omen zan urte batzutan, baiña burutik nasten asi zanian, etxera ekarri zuten atzera. Ezta arritzekua eta, egia da ori: burutik endreatua zebillela. Baiña, earki moldatu zuten gaixua, Sagarbideko bodegan euki zutenian!

»Bai, orik egik dia! Urtebete osuan egon zan nere ama zana, bai! Sagarbideko bodegan, lurpian giltzapetua. Gaur ikusiko banu bezala dakat goguan, nola egote zan, alki xar batian, kupel baten ondoan. Andik Aramaioko Santa Agedara eaman eta ogei eunea il tzan. Goguan dakat baita, entiarruko nola jantzi niñuen, jendiaren aurrean itxurak eiteko, elegante demoniyo, blusa gisako jantzi beltx batekin.

»Nik orduan, gutxi gorabera, sei bat urte nazkan, eta goguan dazkaten aren azkenengo itzak abek dira, nere presentzian esan zittunak. Anai Joxe Benturak esan ziyon olaxe, giltzapetua zagon bodegatik ateata, danak sukaldean bazkaltzen ai giñala:

»— Aizan, Joxepa, biyar Donostira jun biarko iñeu.

»— Bai zea!

»— Bai, jun bieñeu bai. Ire nobiyua eo aixkirea or omen da...

»— Jaa ja ja!... Banetxeukan gogua aretxekin itzeiteko! Aittu biar zizkiyak earrak! Jaa Jaa Jaa!...



Inazio Garate Lizaso, Manuelen Garateren aitona zena.

»Olako parre algarada zea bat ein zuan, baña geyo itzik etzun in arek. Ori, jakiña, engañatzeatik esan zion anayak. Santa Agedara eaman biar zuela nola esango ziyon ba, nere bistan gañea! Uraxe izan tzan nik nere ama zana bizik ikusi nuen azkenengo aldia. Andik ogei egunea il tzan gaixua Santa Agedan. Pentsau etxian nola tratatua eongo zan! Pentsau, ogeita zazpi urterako, emakumia ze kasuta allegau zan!

»Naikoa billurra izate zuten etxian, lendik ere, ni gauza geyegi ikusten ai ote nintzana. Pentsa! neuk emandako saarrak, neuk emandako aranak, jaten zituan sarritan eta, leyotik eta ematen nizkanian. Eskatu iten zituan eta, nik eman! Eta deskuiduan amona zana akordatzen bazan, ala esate zian:

»— Aaaarray ia! Kotxiño koño! Uni jaten ematen ayaz, uni jaten ematen!... Jexuxa! Jexuxa! —aizpa gaztenai deika— aur au eaman tzan emendikan, Puntaneota (leku izena) eo noabatt eaman tzan emendikan.

»Ala, aman bistatik fueratu iten niñuen beti, amagandik apartatu beti. Nik ordia, an etxe jiran nenbillela, ikusi iten bai nun noiznai zumiakin nola jotzen zuan! Aittak beak jotze zuan. Garbitasunike etzuan izaten gaxuak! Giltzapeko bere amorrazio artan arropa guzik txikituta eukitze zittun askotan. Ogeita zazpi urteko alaba billotzik eta aita bizkarretik bera joka ikusita nago ni beiñ baño geyagotan. Pentsa zazu zer izango dan ala tratatzen ikusitako emakumia zure ama propiyua dala jakitia! Pentsa zazu!...

»Nik esaten deana au da: nungo tribunalak kastigau zuan ura? Nungo juizioan atea zitzakon kastigu ura? Aittonak beak pentsatu, beak eiñ, beak sortu alaba, beagatik aurdun gerazi, beagatik illazi!... Aittona zanagatik dena! Ura izan zan lapurra eta kriminala, ura! Eta beste amaika senide ari lagundu ziotenak! Ayek danak dia errudunak, ayek danak! Ta ez nere ama zana gaxua! Bakarrik eztet bereixten! Gaztenak, amar urte besterik etzuan, izeba Jexuxak. Baiña andik gorakuak zeuden bestiak danak e! Oain etxian daguan osaba Joxemaik beak ogeitabi urte zazkan orduan! Ez al zan Xaarbidekua orduan!?

«URTEBETE OSUAN egon zan nere ama zana, bai! Sagarbideko bodegan, lurpian giltzapetua. Gaur ikusiko banu bezala dakat goguan».

«OGEITA ZAZPI urteko alaba billotzik eta aita bizkarretik bera joka ikusita nago ni beiñ baño geyagotan».

Sagarbide-Otalora baserria gaur egun. Ezkerreko puskan eduki zuten gitzapetuta Manuelen ama zena. CARLOS VILLAGRAN

Lau bat urte nittula edo, artian lurpeko bodegan sartu baiño leno, akordutatze naiz ama zanak Donostia iesi nola itte zuan. Bi alditan beintzat akordatzen naiz nola ekarri zuben. Batian, izeba Mariak eta izeba Iñaxik ekarri zuten, bien erdian artuta. Bestian berriz, izeba Teresa eta izeba Iñaxik ekarri zuben Donostitikan.

»Donostitikan ekarri zuenian, nik beti amagana jotze nun. Ama oso maittia nuan nik.

»Lau urte nittuaneko kontubak dia abek. Esango du jendiak, umia nitzala ta nola jakin dezazketen kontu abek; ezin leiken gauza dala; baña, gaur bertan pasiak balia bezalaxe dazkat nik goguan kontu abek danak. Gaur oraindik Sagarbiden daguan osaba Joxemaik nearra ingo du kontu abek aitzian, baña, beak badaki ondo asko, egiyak diala! Ta nik ez dakat egiyak esateko lotsik!

»Joxemaik beak, Zerbezeira lanea jun bittartian eiten zizkian azioake ondo goguan dazkat: zerri plantak eiñez nola jartze zan zaku batekin tapauta gau illunian ni ikaazteko. Ortako, apustua eite zian lenbizi. Sagarbidetik Puntanoetako alorra berreun bat metro izango dia, ta an arto berdiak izate zian, ta andik arto orria ekartze banun amar xentimokoa eman biar zian ark niri, ta ekartze ez banuan berriz nik ari.

»Ta, nik ze ite nun: jun ilunpetan, arto orria poltsian sartu, ta poltsian ekartze nuan. Ta Joxemai ta orik bittartian ni ikatzeatik bire ertzea ateatze zian zaku zarrak jantzita zomorro plantak eiñez. Len esan dean bezala, lau bat urte izango nittun nik orduan, ta oik berriz sasoiko mutillak: osaba Joxemai, osaba Luis amabost bat urtekua, osaba Joxe Bentura berriz, orduako ogeita amarretik gora zana...

»Nik oik danak, abemaria bezalaxe dazkat goguan, ta gure etxeko osaba Joxemaik, gauz oiek aitzen baittu, badakit nik near eingo una. Baña, egiak dia, beak ondo dakin bezela, zeatik bea ola ibiltze zaneko kuntuak bait dia. Ari iduittuko zako, orduko kontubak nik ez nezazkela esan, baña nere memoria ez du iñok borratuko, ni bizi naizen artian!

ENDAÑETA BASARRIAN MORROI

Alaxekuak ikusi nituan nere aur denboran. Bi urte t'erdi nittula ekarri niñuen Aretxabaletatik Sagarbidera, ta emeretzi urte arte an bizitu nitzan, Endañeta arrijasotzaillian etxera morroi jun nitzan arte. Bitartian iñok etzian ezer ematen; kalia jundare ez nuan xentimorik izaten; ta orregatik jun nitzan morroi Endañeta: neretzako pezta batzuk ateatzea. An denbora askoan eondu nitzan, iñora atea ta ezer inbe. Ni an nengoala, saldu zuan gure aittona zanak Sagarbide basarria, artian nik etxian naukan deretxoaz ezer ez nekiala. Ezin nere deretxorik eskatu! ez nekian ezer eta, nola eskatuko nuan ba! Ogeita iru urte nittuan nik orduan, aittonak basarria saldu zuanian.

»Ala, denbora jun denbora etorri, ezkontzia pentsatu nuan. Baiña posturaz. Ni orduan, etxeko morrontzari utzi, eta brigadan kaltzadore aitzen nitzan lanian Bilbao-Sansebastianeko ferrokarrillian. Ta an lanian nebillala, oain Sagarbiden daon osaba Joxemai orren semiak, biak asarretu eta borrokan asi zian beiñ etxian. Ta nik apartau nittuan. Batek amasei amazazpi urte eta bestiak ogei bat urte zeuzken oyek, baña nik ordun, ogeitamabi urte nazkan da, ez bat, anai biyake jota puskau eingo nittun batian asi nitzan lanian, ta kalian pisu bat artu nuan errentan. Neuk bakar bakarrik pasa nittun beatzi illabete pisu artan.

»Orduako banakan andregaia, oaingo andria deten Anamari au, eta ezkondu eiñ giñan, ta pisu artan jarri bizitzen. Gero, aurdun jarri zanean, oain dakaten seme zarren au izateko, Naparruako Puente La Reinara jun giñan bizi izatera, andriaren gurasuen anparura, ayen aldameneko pisu batera. An semia izandu, eta *Azurtzi Errotara* etorri giñen Tolosa. Etxia emango zitzakula eo esan zuten radiotikan, da ala etorri giñan, tratua eiñ ondorian. Albizturko Panaderin ogia irabazten nuan nik orduan.

»Tolosan bizi nitzala jaio zitzaten bigarren semia. Ondo etorri balitz utsa: denbora gabia, ta gaiñea suanormala. Inkubadoran sei illabete in zittun. Ta an gendukala etzuan seguruak kubritu nai, ta Madritik etorri zan papera, ta nausiai, Tomas Zubizarretai, papera entregau nion, ta ala esan zian:

»— *Papera nei ekartze iazu!? Paper au nik ez det firmatuko!*

»— *A, zuk atea kontuak. Nik eiña ezta!... Au Madritik datorren papera da, ta kontuz ibilli zaitte e!*

»— *Igoal dio Francok eiña badare. Nik ez det au firmatuko!*

»Ta, nik atzea, Institutora bialdu nuan papera, ta andik bueltan etorri zan ordena: nei ordaintzeko zor zittunak eota bestela atiak itxiko zitzazkola. Ala ordaindu zikian Zubizarretak niri zor zizkianak. Baña, neu bildurtu nitzan. Beiñ okertu ezkeo, ez nuala gauz onik izango, ta aldeiñ eiñ nuan lantokitik.

»Gero, Berrobiko *Alberdin* zerratein sei zazpi illabete eo einda, Sarriora pasau nitzan, Leitzea. Ta, geroztik amen bizi naiz. Emezortzi bat urte eiñ nittun Sarrion lanian, ta oaiñ jubilauta nago. Eskupeko ona ere eman zian Sarriok lana uztearren: bi milloi t'erdi; ta zarpartia ere bai, polikitxo. Ta oraiñ ia, ondo naizela esate moruan naiz, jainkoari eskerrak. Eziñ kejatuko naiz. Ederki kostata, baiña, ondo bizi naiz oaiñ».

▼

«GAUR ORAINDIK Sagarbiden daguan osaba Joxemaik nearra ingo du kontu abek aitzian, baña, beak badaki ondo asko, egiyak diala!»

▼

«LAU URTE NITTUANEKO kontubak dia abek. baña, gaur bertan pasiak balia bezalaxe dazkat nik goguan kontu abek danak».

Galderatxo bat egiten zuten
Amatxo il zan tokian:
Santa Agedan ill aurretikan
Non eta nola bizi zan?
Galdera ari ezentzun egin
Ta orrela estali zan.
Begirazazu zer esaten dan
An jaso zan agirian.

Orra amasei bertso eskeñi
Lurretik zeru argira.
Amatxo maite badakit ondo
Zaudela niri begira.
Ainbat zorigaitz eraman zendun
Betiko bizitokira
Baña ordaiñez otso zar abek
Infernun erreko dira.

Zumaia erakusten duen koadro bat du Manuelen Leitzako etxean. C.VILLAGRAN

EGUNKARIAren oharra:

Berak kontatutakoa baieztatzeko, bi tokitara jo daitekeela aipatu zigun Manuel Garate Urbistondok: Gipuzkoako Diputaziora eta Santa Agedara. Diputaziora Manuel berarekin joan, bere jaiotze agiria eskatu eta zera ikusi genuen: paperek ez dutela erakusten bere aitonak 2.000 pezeta jaso zituenik. Izan ere, 2 urte zituela amari entregatu zioten Manuel haurra, eta behin haurra entregatua izanez gero doterako eskubidea galdu egiten zen berehala. Beraz, badirudi Diputazioko Andresek ez ziola egia esan, beharbada on beharrez jokatu bazuen ere. Halaxe aitortzen du orain Manuel Garate berak ere.

Santa Agedan ez gara izan, baina bertara deitu eta Josefa Garate Urbistondo sartu zeneko paperak begiratu ondoren zera esan ziguten: 1933ko martxoaren 1ean sartu eta martxoaren 7an hil zela. Beraz, Manuelek hogei egun aipatzen baditu ere, zazpi besterik ez zituen egin bere ama zenak Santa Agedan.

nai izan ezkeo. Anaia zarrak aintze zion artoa lakaerditzeko, txekorrai emateko, ta bestiak etzuala eingo. Gu ganaduai, batek azpik kendu, bestiak jaten eman, osabak beyak jetxi, ta ola ai giñan,... Ta borrokari ekin ziotenian, riki raka apartatu nittun, eta ala esan nion anai gaztiai:

»— *Motell ola zertan abill, iri oaiñ arte jaten ematen aittu dianak, ez due deretxorik iri lana aintzeko? Durua osatzeko oixe bakarra falta uan!.*

»Ta beste anaiak, Joxemaik erantzun zian:

»— *I zeiñ aizela uste ek Xaarbiden? I ez aiz geo iñorre emen e! I ez aiz gaiñea emengua e!...*

»*Azkenian, paketu giñanian, nola osabak eta izebak ezer argitu etzuen, nola nere alde itzik atera etzuen, etxetik aldeittia pentsatu nuen nik. Zerbatt eskatu nai izandare, enekin ezerre, enekin ezer tokatzen bazitzatane, ta etsian aldeittia pentsatu nuan.*

»*Biamonian lanea jun nitzan; kontua eskatu; eta Zumayako Andika Zar* baserrira aldein nuan. An urtebete ein morroi, ta andikan Ondarrabiko *Zigarroa* basarrira jun nitzan. An sei illabete ein morroi, ta berriz, Mutrikuko *Laranga Txikira* jo nuan. An iru urte inda, berriro etxera bildu nitzan, baiña oso denbora gutxiko! Eztakit... bost sei illabete eingo nitun geyenez. Laxter, Zumaiko astilleri

ALGORTAN

Gaurko egitaraua

- **08.45etan** diana.
- **09.00etan** entzierroa.
- **12.30etan** erraldoi eta buruhandiak.
- **13.00etan** kontzertua Teilagorrin.
- **17.30etan** estropada.
- **17.30etan** danborrada txikia.
- **18.30etan** Azkona taldearen emanaldia.
- **23.00etan** berbena Haizea taldearekin.
- **23.00etan** zine emanaldia Zabalan.
- **24.00etan** zezensuzkoa.

Koadrilen egun berezia bihar

Azken egun hauek mugituak izan dira Algortako jendearentzat, Saninazio festak direla eta. Hala ere, biharko eguna izango da dudarik gabe jaietako onenetarikoa, batez ere koadrilentzako.

Lehen ekintza koadrila guztiak elkarrekin egingo duten bazkaria izango da. Hemen, denek izango dute aspaldian ikusi gabeko lagunekin hitzegiteko edo lagun berriak egiteko aukera. Zu gaztea bazara eta lagunak ikusteko gogoa baduzu, badakizu: zoaz koadrilen bazkarira. Baina beste ekintzarik ere izango dute herriko gazteek. Bazkariak on egiteko, jolasak izango dira Zabalan.

Eguna ondo amaitzeko, koadrilek hainbat ekintza izango dute aukeran. Oraindik indarrean daudenentzat berbena egongo da San Nicolasen, Akelarre taldearekin. Azken ordua lasai pasa nahi duenentzat aldiz, zine emanaldia izango da Zabalan.

Ez da giro Algortako Saninazio jaietan. Urtean zehar lanerako bidean erremediorik gabe ikusi beharreko kale lehorrak atsegin bihurtu dira orain bapatean. Jaietako metaformosiak dira. Algortan zein Kamerounen.

Parranda egin ondoren lasaialditxoa

KOLDO GOITIA / **ALGORTA**

Bart ez zara oso fin ibili herriko kaleetan. Tabernak dagoeneko ondo ezagutzen dituzu eta gaueko lauretan irudiak bikoiztuta ikusi arren, etxeko atarian sartzea lortu duzu eta bertan esnatu zara gaur goizean. Esnezaleak badu lana esnea banatzen eta zu bezalako gautxoriak esnatzen. Noizbait zuzenduko duzu zure bizitza, itxaropena behintzat ez galdu.

Entzuten ari zaren soinu arraro hori udal eskolako gaiteroen diana da. Birika latzak behar dira gaita puzteko. Zu berriz Montecristok erretzen pasatu duzu gau osoa eta oraindik ahotsean seinale duzu. Frankenstein berak ere ahots lirainagoa zuen.

Eskua patrikan sartu eta giltzak aurkitu dituzu: garajekoa, seiszientosena, txirrinduarren kandaduarena... eta etxekoa. Atea ireki nahian zazpi aldiz giltza sartu eta atera ondoren goiko bizilagunen atean tontoarena egiten ari zarela konturatzen zara. Zure etxean sartu, aurpegia garbitu eta txukundu zara; kalera jaisteko moduan zaude.

Ez zara erabat esnatu eta oholez egindako hesi hori gainditu nahian zabiltza. Barrikada dela pentsatzen duzu, baino bapatean bigantxak ziztu batean pasatzen dira. Goizeko partez entzierroa egiten dela ahaztu duzu. A ze flaxa! Ezusteko gehiago ez izateko, hobe izango dugu, badaezpada, egunez egingo diren ekitaldien berri ematea.

Badakigu hamabiak aldera pintxoak eta ardo goxoa hartzea zuretzat sakratua dela. Gaur salbuespena egitea ez zaizu gaizki etorriko. Ama bazkari ederra prestatzen ari denez eutsi goseari eta Teilagorrin musika bandak emango duen konzertua entzun ezazu. Igandeko bazkaria uste zenuen baino onagoa zegoen eta ama harrituta utzi duzu zure apetituarekin. Pintxoak ez daude gaizki, baino betiko gauzak jateaz noizbait aspertuko zara. Siesta bake santuan egiteko onena haurrak etxetik ateratzea izango duzu.

Haurrentzat bostetan umeen danborrada egingo da. 'Biznietos de Celedon' deitzen zaio danborrada honi. Dibertitzeko batzuetan komenigarria izaten da haurrei telebista itzaltzea, 'ninja dortokak' ikusten arratsalde osoa pasatuz gero etxeko altzairuek eraso martziano bat jasan bait dezakete. Danborradarekin nahikoa ez badute, Azkona taldeak berbena oso berezia prestatu du herriko haurrentzat Salistegi plazan.

Siesta lasai egin ondoren gaztetu eta guzti egin zara. Berbenan dantzatzeko edo zezensuzkoaren aurrean korrika egiteko moduan zaude. Salistegi plazan Jator taldea egongo da eta Haizea San Nikolasen. Mugi zaitez behingoz ●

HASTEKO

Danborrada txikia

17:30

GOSEA EGITEKO

Estropadak

17:30

GAINERAKO

Salistegi plazan

Umeentzako berbena

18:30

POSTRERAKO

Suzko zezena

24:00

ARRIGUNAGA TXOKOAK
ALGORTAKO HERRIARI
JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIO

SERVITEC
LAGUNTZA TEKNIKOA
ELEKTRATRESNAK
KASUNE, 18 Tfnoak.: 469 52 12-469 15 95 ALGORTA

KEA TABAKODENDA
SU ETA KE EGUNKARIAREN ALDE
TELLETXE, 7 ALGORTA

GAVRKO
Tfnoa.: 496 29 74
ALGORTA

ZABALA, 12-1. - ALGORTA
Tfnoa.: (94) 460 09 62
PISU, LONJA ETA LURREN
ALOKAIRU TA SALMENTA
EGINKOR
ONDO PASA
FESTETAN

HK
HIREA
KIROLAK
Hoberena
kirolean
ALGORTA

EGUNKARIAK
Eguneroko prentsa
Algortako etorbidea, 74 ALGORTA

CAFE TANGORA
TANGORA KAFEA
Algortako kafea
Jaiaren Biotzean

Asier Zumeta gimnasia txapelduna da aurtengo 'Guaitoa' Algortan

KOLDO GOITIA / **ALGORTA**

Asier Zumeta herenegun 'Guaito', urteko algortarra izendatu zuten. Hamahiru urteko mutil honek Alemanian egin zen munduko alebin gimnasia txapelketan hirugarren postua lortu zuen. Orain Algortako herriak omenalditxo bat eskaini nahi izan dio bere trebetasuna dela eta. Zumeta pozik dago herriak eman dion ongietorriarekin, komunikabideekin pixkat nekatuta bukatu duela aitortu duen arren.

EGUNKARIA.— Azal iezaiguzu nolakoa izan zen Alemanian egin zen gimnasia txapelketa?

ASIER ZUMETA.— Nik aparatuekin eta elastikarekin ihardun nuen eta azkenean hirugarren postua eskuratzea lortu nuen. Asko borrokatu beharra izan nuen baino azkenean pena merezi izan du.

EGUNKARIA.— Nolakoa izan da Algortako herritarrak eskaini dizuten harrera?

ZUMETA.— Oso pozik nago jendeak eskaini didan ongietorriarekin. Gimnasia ez da oso kirol ezaguna baina hala ere jendeak kalean ikusterakoan agurtzen nau. Oso pozik nago.

EGUNKARIA.— Komunikabideekin nekatuta bukatu duzu?

ZUMETA.— Hasieran egunkari batzuek elkarrizketak egin zizkidaten eta gustora nengoen. Baina denbora pasa ahala eta batez ere telefonotik hasi zirenean entrebistak egiten ba... zuk zer uste duzu, azkenerako...



Asier Zumeta Andra Mari kiroldegian. JOSE SIMAL

> Zumeta pozik dago herriak eman dion ongi-etorriarekin, komunikabideekin pixkat nekatuta egon arren ●

EGUNKARIA.— Nola ikusten duzu zure etorkizuna gimnasiaren munduan?

ZUMETA.— Arazorik garrantzitsuena ikasketak dira. Oraingoz OHOko seigarren kurtsoan nago eta ia gai guztiak gainditu ditut. Irailean natur zientzietako azterketa egin beharko dut, baino lasai nago. Etorkizunean ikasketak aurrera eramatea lortzen badut ez dut gimnasia utziko, behintzat erabat ez.

EGUNKARIA.— Zenbat ordu ematen dituzu entrenatzen?

ZUMETA.— Egunean bi edo hiru ordu ematen ditut Andra Mari kiroldegian entrenatzen. Denbora antolatuz gero ez da oztopo beste hainbat gauza egiteko eta alde horretik ez dut gim- nasia pisu bat bezala hartzen baizik eta gustokoa dudan kirola bezala.

EGUNKARIA.— Noiz jakin zenuen 'Guaito' izendatua izan zinela?

ZUMETA.— Herenegun izendatu ninduten 1991. urteko 'Guaitoa'. Urtean zerbait egiteagatik herritarren bat nabarmendu bada izendapen hau egiten da, eta aurten ni izendatzea erabaki dute.

EGUNKARIA.— Ekitaldiren batean parte hartzen duzu?

ZUMETA.— Bai, Udalak gonbitea egin zidan atzo txupinazoa egiteko.

EGUNKARIA.— Nola ari zara festak pasatzen?

ZUMETA.— Oso ondo, giroa ezin hobea da eta parranda pixkat ere egin dut. Jai hauetan uda osoan bezala oso ondo pasatuko dut.

RALLYE HUMORISTIKOAn istilu ugari izan ziren atzo, JOSE SIMALen argazkiak erakusten duen bezala. Dirudienez, Algortan egindako Rallyeko partehartzaileek desadostasunen bat izan zuten beren artean eta berehala hasi ziren borrokan. Aurkakoari eraso egiteko armaren bat aurkitu nahian ibili ziren denak, baina azkenean globoak besterik ez zituzten aurkitu. Udaltzaingoak azaldu zuenez, borrokan ez zen zauriturik izan.

BARBIRULAU - BOST
CHARLOT
TRAGUA EDAN ETA...
...KORROK
Amesti z/g
ALGORTA

LAINOA
Urgul Zeharkalea Tfnoa.: 469 25 78 ALGORTA

María Jesús
ILEAPAINDEGIA
Alangobarri, 8 Tfnoa.: 469 51 32 48990 ALGORTA

MORRONGO KAFETEGIA
Espezialitatea pintxoetan, patata tortila eta sandwichak
Torrene, (Postetxe aurrean) Tfnoa.: 4605042 ALGORTA

basurto algorta S.L.
altzarigintza
Telletxe, 15
Tfnoak.: 496 38 43 - 460 42 44 48990 ALGORTA

MANHATTAM KAFETEGIA
Ondo pasa ezazue jaietan
Amesti, 8 ALGORTA

GORRONDATXE
Elkarte kulturala

FOTO RICARDO
PHOTO CENTER
• Algorta Ibil., 110 (Algorta)- 4693258
• K. Nagusia, 20 (Areeta)- 4634813
• Areatxa k., 1 (Plentzia)- 6772372
• Obieta k., 29 (Erandio)- 4676966
• Euskalherria, 2 (Algorta)- 4608004
EKARRI ZURE ROILOA REBELATZERA ETA ZURETZAT DOHAINIK
dohainik
Argazki roilo bat
Argazki albuma
Argazkirik gustokoena handiagotzea
%10eko deskontua argazki baleetan
ETA GAINERA HILABETERO IRABAZ DITZAKEZU
—Surf taula ezin hobeak
—Bidaiak Mallorcara bi pertsonentzat

Jaiak oso ezberdinak izango dira aurten Azpeitian

JOXANJEL ALDAI / **AZPEITIA**

Nahitaez, halaxe pentsatuta, edo gertakizunen indarraren ondorioz, beste urteetatik ezberdin datoz aurten Azpeitiko Saninazio jaiak. Udalak eta San Inazioren jaiotzaren V mendeurreneko ekitaldiak antolatzen ari den batzordeak bat egin dute herriko jaiak eta V mendeurrenari dagozkionak batera prestatzeko. Alderdi horretatik askoz jai osatuagoak izango dira Azpeitia eta Loiolan. Espainiako Erregeak San Inazio eguneko meza nagusira etortzekoak dira eta horrek ere nahastu egingo du jai giroa.

Loiola 91 batzordeak urtebete luzez antolatu duen ekitaldi andanak uztail honen bukaeran izango ditu une garrantzitsuenak. Hilabetea hasi zenetik Loiolako basilikan izan diren musika emanaldiek izan dute protagonismoa. Bukaerarako, San Inazio jaio zela 500 urte beteko direna gogoratu eta ospatzeko ekitaldi erlijioso ugari antolatu dute Azpeitiko jaiekin batera. Azpeitian beste urteetan San Inazio egunez egiten zen meza nagusia Loiolan emango du aurten Aita Santuaren izenean etortzekoa den Angel Sukia montsiñoreak. Aurretik —10.15etan— kanpotik datozen agintariei harrera egingo diete Azpeitian. 10.40etan Loiolarako prozesioa irtengo da, eta Donostiako Orfeoiak abestuko duen meza hamaiketan hasiko da. 12.30etan Azpeitia eta Azkoitiko musika bandek eskainitako kontzertuarekin bukatuko dira eguerdi parteko ekitaldiak. Gauean musika eta sufesta emanaldia egingo da Loiolan, V mendeurreneko ekitaldiei bukaera emateko.



Arratsaldez iritsi nintzen Azpeitira,
Izarraizpeko maçal çozo eztira.
Zuzenean jo nuen Ospital handira
(herriko behartsuak hantxe bizi dira).
Hura zen pilpira leihotik begira
Urola çarbira, inguru arçira!
Ai umetako çauzek duten distira!

Aurreko urteetan hilaren 1ean Loiolan egiten ziren ekitaldiak berriz, Azpeitian izango dira aurten.

Aurten beraz, lehendik zuten baino kutsu erlijioso are handiagoa izango dute Saninazioek. Horrez gainera, Alkateak berak jaiei egiten dien agurrean dioenez, alderdi erlijiosoarekin batera, aipagarria da zezen festak Azpeitian duen indarra.

Loiola 91 batzordeak eta Udalak antolatzen dituzten ekitaldiak bat egin eta nahastuta datozkigu jai egitarauan, baina bakoitzak bere aurrekontu apartekoaz baliatuz antolatu ditu. Udalak 10.000.000 pezetako (500.000 libera) aurrekontua du aurten jaiak antolatzeko.

Espainiako Erregeak datozela eta, San Inazio bezperan tabernak ordubietarako itxi beharko zirela zioten zurrumurruak zabaldu ziren, baina Udalak zein tabernariek gezurtatu egin dituzte. Jaietan tabernak goizeko bostak inguruan ixteko erabakia hartu dute Azpeitiko tabernariek, hilaren 2tik 3rako gaupasa egunean salbu.

Saninazioek galdu egingo dute hilaren batetik aurrera, lehenengo egunetako kutsu solemne hori. Hilaren 2an txerri harrapatzeak izango dira goizeko seietan, gazteen afaria 21.30etan, Lola Herreraren antzerki taldearen saioa 23.30etan, eta ondoren gaupasa ●



Hiru sufesta emanaldi izango dira Saninazioetan. Musikaz lagundutako berezia hilaren 31n eta beste bana abuztuaren 1ean eta 2an.

KRONIKA FRESKOA

✓MUSIKA NAHI ADINA. Era bateko zein besteko musika maite duenak zer entzun ugari izan du eta du aurtengo Saninazioetan. Uztailean, musika klasikoa nahi adina izan da; hilaren 25ean salsa musika jo zuen Cubana Tropical taldeak; eta atzo rockak izan zuen bere txanda Tijuana in Blue eta Su Ta Gar taldeen kontzertuarekin. Hilaren 30ean Aragoiko jotak kantatuko ditu Aires de Aragon taldeak eta gainontzeko guztia berbenak izango dira: Arkaitz —gaur— Nueva Etapa eta Iruña Band —30ean—, Alcatraz —31n—, Egan eta Los Pasai —1ean—, eta Brindots eta Gelatxo —2an—.

✓TXUPINAZOAREN ZAIN. Honez gero txupinazoaren zain daude azpeitiarrak eta hemengo Saninazioetan parte hartzeko gogoa duten guztiak. Izanez ere, jai ekitaldi ugari ari da ospatzen aspalditxotik Azpeitian, baina jaiak hasitzat jotzeko behar da beste zeozer. Hasi direna esateko aitzaki ederrena txupinazoa entzutea da, baina hori gertatzeko astearte eguerdia arte egon beharko da zain.

✓KORRIDA BIKAINAK AURTEN. Azpeitiko Saninazioetako korriden antolatzaileek oso gora igo dute maila aurreko urteetan, baina aurten ere eutsi diote maila horri. Hiru korridetan Fermin Bohorquez, Andres Ramos eta Pablo Romero ganaduzaleen zezenak izango dira. Aurrean, punta puntako toreatzaileak jarriko zaizkie: Juan Antonio Ruiz 'Espartaco' eta Victor Mendes; eta Cesar Rincon, Espartaco Chico, Jose Miguel Arroyo 'Joselito', Manuel Ruiz 'Manili' eta Juan Cuellar.

✓GAUPASA HILAREN 2tik 3ra. Hara, egia esan, gaupasa ia egunero egiten da herriko jaietan. 'Gaupasa' egun jakin batean ezartzea txorakeria dela ere esan ohi du batek baino gehiagok. Baina jai guztietan izaten da bat, eta Azpeitiako Saninazioetan ostiraletik larunbaterakoa izango da.

Kadeteen txirrindulari proba

J.A. / **AZPEITIA**

Bigarren urteko txirrindulari kadeteen proba interesgarria jokatuko da gaur Azpeitian. Hamabost urteko txirrindulari gazte hauentzat nahiko proba gogorra prestatu dute antolatzaileek. Azpeititik irten ondoren Matxinbentara joan beharko dute, handik Salbatorera hartu eta ondoren Zumarragaraino joan, gero berriro Azpeitiko kaleetara itzultzeko.

Guztira berrogeitamalau kilometro pasa beharko dituzte, gorabehera asko samar izango dituen ibilbide hau amaitu aurretik.

Irteera goizeko bederatzi t'erdietan izango da Azpeitiko Plaza Nagusian eta hamaikak eta laurden ingururako iritsiko diren kontuak atera dituzte antolatzaileek.

Gipuzkoa osoko txirrindulariak dira gaur Azpeitira etortzekoak. Probintzian maila honetako 180 txirrindulari inguru daude federatuak, eta horietatik, hamabost taldetako 110 batek hartuko dute parte proba honetan. Tartean Aluminios Azpeitia taldekoek ere ihardungo dute.

Jaietako karrera hau antolatzen orain dela hamaika urte hasi zen Azpeitiko txirrindulari elkartea. Aurreko urteetan Azpeititik Zarautzera joan-etorria izan dute ibilbidea, baina horrelako probak antolatzeko trafiko arazoak gero eta handiagoak direla eta, aurten aldatu egin dute ibilbidea ●

Dantzari txiki eguna da gaur.

Dantzari txiki eguna gaur da

J.A. / **AZPEITIA**

Dantzari txikien egun handia izango da gaur Azpeitian. Bertako Itsasi dantza taldeak antolatu eta Udalaren dirulaguntzaz aurrera aterako den egun honetan 300 dantzari inguru bilduko dira. Zumaia, Zarautz, Getaria, Mutriku eta Amurriotik hogeitamabina laguneko dantza taldeak etorriko dira, eta haiekin batera Itsasi taldeko beste 150 batek ihardungo dute.

10.00etan plazan bilduko dira gosari pasara egiteko. Gero 11.00etako meza entzungo dute eta ondoren kaleetara sakabanatuko dira kalejiran ibili eta kalez kale dantza egiteko. 13.00etan plazan bilduko dira. Lehendabizi Agurra egingo dute denek batera. Neska guztiek batera Arku Dantza dute egitekoa eta mutil guztiek, Ikurriñ Dantza eta Banakoa.

Azpeitiko dantzarien gurasoek emango diete bazkaria beren etxeetan. Talde bakoitzarekin etortzekoak diren arduradunek eta antolatzaileek berriz Gure Ametsa elkartean jango dute —marmitakoa eta oilaskoa—.

18.00etan beste kalejira egingo dute eta 18.30etan hasita azkenengo dantza saioa plazan. Han talde bakoitzak bere saioa egingo du —bat neskek eta bestea mutilek—, eta horrekin bukatuko dira eguneko ekitaldiak. Antolatzaileen izenean Mikel Larrañagak adierazi digunez «egun ederra izan daiteke, baina horretan zer esan handia du eguraldiak ●

Gaurko jai egitaraua

- ☞**09.00etan** Izarraitz txistulari taldeen kalejira.
- ☞**09.30etan** txirrindulari proba bigarren urteko kadeentzat.
- ☞**11.00etan** meza nagusia Sebastian Donearen Elizan.
- ☞**11.00etan** Euskadiko lur gaineko sokatira txapelketa.
- ☞**12.00etan** dantzari txikien kalejira.
- ☞**15.00etan** erraldoi eta burhandi kalejira.
- ☞**18.30etan** dantzarien saioa enparantza nagusian.
- ☞**23.00etan** berbena Arkaitz taldearekin plazan.

Fundición de Boluetako langileek bihar eta etzi greba egingo dute

Hitzarmena negoziatu nahi dute, baina enpresak Plana aurkeztu du

Boluetako burniolako langileek 1991ko hitzarmena negoziatzearen alde greba egingo dute bihar eta etzi. Bitartean, enpresak Plan Estrategikoa aurkeztu du. Bertan sistema produktiboak ajustatzeko beharra jasotzen da.

BILBO

Fundición de Boluetako langileen enpresa batzordeko iturriek adierazi zutenez, lehenik eta behin aurtengo negoziazio kolektiboa sinatzea eskatzen dute, gero enpresak aurkeztu duen Plangintza estrategikoa aztertzeari ekiteko.

Enpresako zuzendaritzak hitzarmenaren negoziazioak bertan behera utzi zituen, langileek «plangintzan adostasunik lortzen ez diren puntuetan arbitraia onartu arte», enpresa batzordeko iturrien arabera.

ENPRESAREN PLAN ESTRATEGIKOA

Langileek salatu dutenez, «enpresaren arazo tekniko eta antolaketa arlokoak ezagutzen ez dituztenek» burutu dute plangintza eta arazoa «deshumanizatu» dute, irtenbide «gogorrak» proposatuz. S.A. Fundición Bolueta enpresako iturriek aditzera eman dutenez, plangintza estrategikoak «produkzio sistemen erabateko ajustearen beharra» jasotzen du, «konpetitibitate maila egokia lortu eta burniolaren etorkizuna bermatu ahal izateko». Plangintzak 26 lanpostu gutxitzea proposatzen du.

Deygesa sozietateak egin duen plangintzak «ezinbestekotzat» jotzen du konpetitibitate maila egokia izatera heltzea, «Estatu espainiarreko merkatu kuotak mantendu eta nazioarteko presentzia areagotzeko».

Bilboko Funduciones Bolueta lantegia. J. SIMAL

Plangintzaren helburua, 1990ean saldu ziren 5.734 tonatik 1994ean 6.200 tona saltzera pasatzea litzateke. Era berean iaz fakturatu ziren 1.639 milioi pezetatik (91,05 milioi libera) 1.913 milioi pezeta (106,27 milioi libera) fakturatzera iritsi nahi da hiru urteren buruan.

Produkzio sistemen berrikuntzan 360 milioi pezeta inbertituko dira hiru urtetan eta 26 enplegu kenduko dira. Zentzu honetan, «lanpostu murrizketa jubilazio aurreratuen eta antzerako neurrien bitartez» egingo dela ziurtatu dute enpresako iturriek.

Ekologistek «ez nahikoa» deritzote 2000 arteko luzapen nuklearrari

DONOSTIA

Zenbait elkarte ekologistek Espainiako Gobernuak onartutako Energi Plangintza (PEN-91) kritikatu dute eta bertan aurrikusitako 2000. urtea arteko luzapen nuklearra eta energi iturri berrerabilgarrien bultzada «ez nahikotzat» jo dituzte.

Greenpeace taldearen iritziz, PENek energi berrerabilgarriak (haize, eguzki energia, kogenerazioa eta abar) bultzatu beharko litzuzke gaur egungo iturrien aurrean, «energi hornidura nahikoa bermatzeko modu bakarra delako, etorkizuna mehatxatu nahi ez badugu».

Ildo beretik agertu dira Naturaren Defentsarako Ekologo Elkertea (ADENAT). Elkarte honentzat, Energi Plangintzak ez dakar inolako berrikuntzarik eta, gainera «berriro ere saiatu dira energi eskaintza eskariari egokitzen, azken hau gutxitu beharrean». Halere, ekologistek aitortu diote zenbait puntu positibo planintzari, hala nola, gas naturalaren erabilpenari eman nahi zaion bultzada.

BEDERATZI ZENTRAL NUKLEAR

Energia nuklearraren luzapena kritikatzen dute batez ere ekologi taldeek, berau aski anbiguoa eta nahikoa ez dela argudiatuz. «Ez da nahikoa, ez duelako energia nuklearra bertan behera uzten eta martxan diren bederatzi zentralak funtzionatzen segituko dutelako, honek dakartzan segurtasun eta hondakin arazoekin».

Haize energiarako helizea.

Ekologisten ustez, jarraitu beharreko energi politikak elektrizitatearen kontsumoaren gutxitzea ekarri beharko luke, energiaren aprobetxamendua eta iturri berrerabilgarriak butzatzeaz gainera.

«Gure ustez, —gehitu dute— energia beharrezkoa den momentu eta lekuan erabili behar da eta gaur egun ia aprobetxatzen ez diren energietan inbertitu beharra dago».

BILBOKO BURTSA



Inbertsoreen ezkortasuna handituz

BILBO / **IBON ALONSO**

Aste honetan eta ostegunean izandako jaieguna zela eta lau ekitaldi izan dira Bilboko Burtsan. Astelehneko ekitaldian aurreko astean izandako galerak berreskuratu egin dira, indize orokorra 368,54 mailan finkatu da eta 3,73 puntuko irabazia gauzatu. Bankuen alorrak izan zuen gehikuntzarik nabariena, hain zuzen, 5,91 puntukoa. Beste alor guztiek emaitza positiboak izan zituzten, eraikuntzak ezik.

Kontratazio bolumenari dagokionez, maila baxuetan ezarri zen, hots, 700 milioitik behera. Merkatu jarraia, bere aldetik, irregulartasunean murgildu zen, eskari hautakor batek bultzatua. Lehen aipatutako irregulartasun horrek industria balioetan izan zuen indarra, eta alor berdineko enpresetan era ezberdinetakoa izan zen. Besteak beste, aipatu beharra dago Faes eskubideek 40 pezetako galera izan zutela.

Asteartean ere bezperako emaitza positibo bera izan zen Bilboko merkatuan, indize orokorra 371,18an kokatu zen eta 2,64 puntu irabazi zituen. Bigarren egun honetan Burtsak berreskurapen ildotik jarraitu bazuen ere, Londreseko Burtsaren maximo historikoa hemen somatu zen. Beste zioen artean, Banco de Españak Altxor letren enkantean izandako interes tasa aurki dezakegu. Portaera onenak bankoak eta elektriken alorrek izan zituzten, eta hurrenez hurren, 3,25 eta 3,82 puntuko irabaziak lortu zituzten. Oraingoan Faes eskubideek 20 puntu gora egin zuten eta BNP balioek beste 10. Industria arloko balioek portaera gorakorra izan zuten.

SOLTXAGAREN IRAGARPENEN ERAGINA

Asteazkenean aurreko joera erabat puskatu zen Bilboko parketean: indize orokorrak 2,62 puntu galdu eta 368,56 mailan finkatu zen. Soltxaga ministroak egindako iragarpenen ondorioz, aurreko egunetan bizi izandako baikortasunak lurra jo zuen. Horrela, lehen lortutako mozkinak errealizatu ziren asteazkenekoan. Galeren artean aipatu BNP (-10), Cartinbao (-8), Intra (-5) eta Cartera Montañesa (-5) balioek pairatutakoak. Ordenadore bidezko kontratazioak ere joera beherakorra izan zuen, eta bankuen alorretako ia balio guztiek atzerapenak somatu zituzten.

Ostegunean jai izanda, ostiralean egin zen asteko laugarren ekitaldia Bilboko Burtsan. Nahiz eta nazioarteko burtsek (batez ere New York eta Tokyon) berreskurapenak izan, hemengo burtsaren indize orokorra 368,02 mailan ezarri zen, 0,54 puntu galduz. Altxor letren errentagarritasunaren gehikuntzak errenta aldakorraren merkatua kolpatu zuen. Negoziaketa ahalmen txikia eta ganbioen irregulartasuna izan ziren ezaugarri nagusiak. Aseguruak, elikadura eta zerbitzu alorrak ezik, beste guztiek galerak izan zituzten. Faesek 10 puntu galdu zituen, Intrak 5 eta Cartera Mon- tañesak 3. Aipatu beharra dago Bodegas Bilbainasek izandako aldaketa: CVNEk egindako akzioak erosteko eskaintza publikoan (OPA) eskainitakoa baino 200 pezeta gehiagoan ezarri zen.

Caja Vital Kutxaren TeleCaja plus Txartel berria.

Dena dauka.
Ba al duzu zuk?

Caja Vital Vital Kutxa
Araba eta Gasteizko Kutxa

Madrileko Senatuko lehendakaria bertan euskara hitzegitearen aurka

«Pribilegioa izan liteke» Elkarte Autonomoetako hizkuntzak erabiltzea

Madrileko Senatuko lehendakariak, Juan Jose Labordak, ez du gaztelania besterik entzun nahi Madrileko Parlamentuko ganbara garaian. Senatuaren erreforma ondoren, Elkarte Autonomoetako senatoreek galegoz, katalanez edo euskaraz hitzegin ahal izateko aukeraren kontra mintzatu da Laborda PSOEkoa.



Juan Jose Laborda sozialista da Madrileko Senatuko lehendakaria.

DONOSTIA

PSOEkoa den senatuburuak adierazi duenez, Senatuaren erreforma legerako eztabaidak nahiko aurreratuta daude, baina desadostasunak badaude oraindik. Eta desadostasun nagusia Elkarte Autonomoetako hizkuntzak erabiltzeko aukeran dago. «Hori da Senatuaren araudiko erreforma pozgarri bat lortzeko daukagun oztopo nagusia», azaldu du Labordak.

Hizkuntzaren inguruko desadostasunek ez dituzte arazo tekniko edo ekonomikoak sortu. PSOEko Senatuko lehendakariak esan duenez, hizkuntza horiek ez erabiltzeko aurkitzen duen aitzakia nagusia zera da: «Iritzi publikoko sektoreren batzuek Elkarte Autonomoetako hizkuntzak erabiltzea pribilegioa dela uler dezakete».

Senatua, teorian, lurraldetasunaren arabera aukeratutako ganbara da Legebiltzarrean. Bere eginkizun eskasa askotan kritikatu izan da, eta orain erreforma baten bitartez bere garrantzia indartu nahi dute. Asmoa, estatuko Elkarte Autonomoen ordezkaritza Senatua bihurtzea litzateke. Erreforma hori egitea proposatu zenean, Euskal Autonomi Elkarteko (EAE) eta Kataluniako inguru nazionalistek gaztelaniaz gain beren hizkuntza propio eta ofizialak erabiltzeko aukera proposatu zuten.

Senatuko araudiaren erreformarako oztopo nagusia Elkarte Autonomoetako hizkuntza erabiltzeko eztabaidan dago, Labordak esan duenez.

Ideiari egotzi zitzaizkion lehen trabak ekonomikoak izan ziren. Hizkuntza anitz erabiltzekotan, itzultzaile sistema konplexu oso bat jarri beharko litzateke Senatuan. Baina dirua ez da kontua, zehaztu du orain Labordak, euskaraz edo katalanez aritzea «pribilegioa dela uler dezaketela batzuek» baizik.

Araudia bozkatzeko orduan PSOE alderdiak Laborda bere alderdikidearen jarrera babestuko balu, hautatu euskaldunek ez lukete Madrilen Senatuan euskaraz egiteko eskubiderik, sozialistek gehiengo absolutua bait daukate ganbara honetan.

SENATOREEN IGERILEKU PRIBATUA

Senatuan arazo ekonomikoak ez daudeneko seinale ireki berri duten igerilekua da. Labordaren soldata urteko 12 milioikoa da, Felipe Gonzalez gobernuburuarena baino handiagoa. Goi ganbararen egoitzaren erreforma plana egin zenean, Senatu barrenean senatoreentzat igerileku bat egiteko asmoak polemika bizia sortu zuen. Azkenean egin zuten, eta gimnasioa ere ireki behar dute haren ondoan. Igerilekuaren polemika honetaz gain, eskandalu handia piztu zuen jakiteak nola senatoreek bozketa askotan beren ondoko jarleku hutsen izenean ere botoa ematen duten.

Ofizialtasuna

Gaztelaniaz gain, bigarren hizkuntza ofiziala daukate ondoko Elkarte Autonomoek: Euskal Autonomi Elkartea (euskara), Nafarroa (euskara, lurraldeka da ofiziala soilik), Galizia (galegoa), Katalunia (katalana), Baleareak (katalana) eta Valencia (katalana, ofizialki *valenciano* esaten dioten arren).

Asturias-en bable edo *asturianu* mintzairak neurri batean ofizialtasuna ere badu. Kataluniako Aran haranean okzitaniera (*aranes* esaten diote han) ofiziala da. Ceuta eta Melillako jatorrizko biztanle musulmanen hizkuntzek, arabierak eta *cherja-k* (hizkuntza berberiarra) ez dute ofizialtasunik.

Frantziako langabezia tasak marka berria hautsi du: 2,7 milioi langabe

JAKI LAUTRE / **BAIONA**

Frantzian langabeziak azken hilabete hauetan gaitzeko igoera egin du 2,7 milioi langabetuen marka hautsiz. Duela bi egun Lan Ministeritzak 2.720.600 langabetuen zenbaki lazgarria eman zuen jakitera.

Azken hilabete hauek ikaragarriak izan dira langabeziaren gorakadan Estatu osoan; martxorako baziren 2.603.100 langabetu; apirilean 2.688.900, maiatzean 2.720.600 eta ekainean beti jarraitzen zuen goraka.

ANPE edo bulego agentzian daudenen langabetuen kopuruak % 1,2 egin du gora 31.700 lagun gehiago etorri direlarik beren izenen ematera. Langabeziari buruzko estatistika hauetan, gobernuak lehen aldiz erabaki du bi iturri desberdinen zenbakien agertzea. Lehenik ANPEk emandakoen arabera, 2,7 milioi langabeturen kopurua gainditu egin da; BIT edo Lanaren Nazioarteko Bulegoak ateratzen dituen zenbakien arabera, 2,3 milioi langabetu baino ez ziren, joan zen ekainean Frantzian. BIT bulegoak egin ohi dituen bere estatistiketan ez ditu kontutan hartu epe laburreko —ordubete baizik ez bada egiten ere— lana egiten duten langabetuek.

Bigarren emaitza lehena baino pixka bat baikorragoa izanik ere, biek erakusten dute langabeziaren egoera larria. Urte hasieratik Estatu osoan 141.000 langabetu gehiago badira. Eta langabezia kopuruak jendetza aktiboaren % 9,4 gainditzen du.

Adituek iragartzen dutenez, ekonomiaren garapena urte osorako gehienez % 1,5era helduko da. Horrek zuzenki dakarren ondorioa zera da, lanpostuak oraindik gehiago murriztuko direla.

ANPEren estatistikek lanpostu murrizte hori egiaztatzen dute, iazko ekainarekin konparatuz aurtengo ekainean kanporatze ekonomikoak % 14,5 handitu dira. Gainera bulego agentzian agertzen diren enplegu eskaintzak asko jaitsi dira, duela urtebete 105.000 lan eskaintza zirelarik, aurtengo ekainean 88.000 baizik ez ziren.

Bahitu guztiak askatu zituzten Tenerife-2an matxinatutakoek

TENERIFE

(Canarias) gartzelan matxinatutako bi presoek atzo askatu zituzten bahituta zeuzkaten hamaika lagunak, hemeretzi ordu iraun zuen matxinada amaitzean. Gartzelako egoera miserableagatik protestan altxatu ziren presoak, «tortura psikiko eta fisikoak» salatuz. Azken hiru asteetan bost matxinada egon dira gartzela espainoletan, presoen egoera penagarriak eragindakoak denak. Hauetariko bat Euskal Herrian izan zen, Langraitzeko espetxean (Araba).

LABURREAN

SUTE larriak Mediterranioko kostaldean

Sute larriak gertatzen ari dira bai estatu frantsesean zein espainolean, Meditarranioaren ibarrean. Katalunian, Ebro ibaiarren ibarrean gertatu den sute izugarria itzaltzen Armadak ere parte hartu behar izan du. Frantzia hegoaldean alarma egoera piztuta dago, eta baso ugari suntsitu dituzte Toulon hiriaren inguruko suteek. Bitartean, Mallorcan gizon bat atxilotu dute nahita 1.500 hektarea erre zituen sutea eragiteagatik ●

UGTko Redondok gogor kritikatu du berriro Gobernua

Nicolas Redondo UGT sindikatuko buruak adierazi duenez, kaltegarriagoak dira Carlos Soltxaga ministroaren adierazpenak Konpetitibitate Paktuko negoziazioak haustea baino. Sindikatu barneko agiri batean, gogor kritikatu du Gobernuaren jarrera Redondok, erru guztia sindikatuei egotzi nahi izanagatik. Gainera, nabarmentzen du, CEOE enpresari erakundearen eta Gobernuaren jarrerak ados egon ziren une orotan negoziazio mahaiean, eta hori berez nahiko adierazgarria da ●

PCE siglak gehixeago ezkutatuko dira IU barruan

Izquierda Unida barnean bere posizioa finkatzea erabaki zuen atzo PCE alderdi komunistaren komite zentralak. Atzoko bileran datorren abenduan burutuko den Kongresu erabakiorra eztabaidatu zen. Analista politikoek nabarmentzen dutenez, Kongresu «bitxia» izango da hori, PCEren izaera indartu eta bultzatu beharrean, IU barnean gehiago errotzeko joera nagusituko bait da seguruenik ●

SEVILLAn narkotrafiko sarea desantolatu dute

Espainiako Poliziak droga trafikatzaileen sare bat desantolatu du Sevillan (Andalucia) eta bost pertsona atxilotu ditu ekintzan, denak familia berekoak. Turkiarekin lotuta zeuden narkotrafikatzaile hauek eta handik heroina eramaten zuten Espainiara, Sevilla hirian banatzeko. Bost atxilotuetako bat aurretik ere atxilotuta egon zen 1988 eta 1989an, baina prozesu judizialek kalean utzi zuten ●

Kroaziak indar armatuak gatazkara ez bidaltzeko agindua jaso du

Borrokek jarraitzen dute eta Banijan hemezortzi lagun hil ziren herenegun

Lehendakaritza Kolegiatuak, Kroaziako borrokak zirela eta bilduta zegoenak, herenegun Kroaziako agintariei gatazka lekuetara indar armaturik ez bidaltzeko agindu zien. Kroaziako borrokak areagotu egin dira aste honetan, Armada Federala gutxiengo serbiarren alde eraso egiten hasi denetik. Erduten hamabost lagun hil baziren, herenegun beste hemezortzik galdu zuten bizia Banijan.

BEOGRAD

Franjo Tudjman-ek, Kroaziako lehendakariak Krajina eta Eslavoniako lurraldeei autonomia emateko eskaintza eta Kroaziako Gobernuan partehartze handiagoa edukitzekoa egin arren, lurralde horietan gehingoa diren serbiarrek ez dute onartu horrelakorik eta borroka egiten jarraitzen dute, beren lurralde kroaziarrak serbiari lotzeko asmoarekin.

«Cetnik-ak» (horrela deitzen diote beren buruari milizia serbiarrek) Armada Federalaren babesa jaso du. Soldadu federalek, bere agintarien aginduei jaramonik egin gabe, herenegun Goardia Nazional kroaziarrari eraso egin zioten, eta elkarren arteko enfrentamenduetan hemezortzi lagun hil ziren Banija herrian, Tanjug prentsa agentzi ofizialak adierazi zuenez. Tanjug agentziaren arabera, gutxienez hamalau goardia nazional eta beste lau miliziano serbiar dira hildakoak.

Goardia nazional kroaziar bat Banijan, borroken ondoren. LASZLO BOLOGH.

LEHENDAKARITZA KOLEGIATUAREN ERABAKIA

Herenegungo Lehendakaritza Kolegiatuaren bileran Kroaziari agindu zitzaion indar armaturik ez bidaltzeko gatazka lekuetara. Stijepan Mesic kroaziarra, Estatu Burutzako buruzagia kontra agertu zen eta Janez Drnovsek esloveniarra abstenitu egin zen.

✓ Egon Scotland kazetari alemaniarra ostiraleko borroken erdian harrapatu zuten, eta milizia serbiarrek tirokatu eta odolustuta hil zen herenegun

Goardia Nazional kroaziarra desegiteko agindua ere eman zitzaion Kroaziari, baina hori egiteko ez du inolako asmorik, alde batetik bere defentsa unitate propioak edukitzeko eskubidea duela uste duelako, eta bestetik, milizia serbiarrak armatuta dauden bitartean ez duelako erretiratzeko asmorik, eta oraindik gutxiago Armada Federala serbiarren alde jarri denetik.

Europako Komunitateko (EK) Legebiltzarrari Lehendakaritza Kolegiatua gonbidatzeko eskatuko die Roland Dumas eta Dietrich Genscher-ek, Frantzia eta Alemaniako Kanpo Arazoetako ministroek. Bi ministro hauen helburua Jugoslaviako krisiko alde guztien jarrera eta iritziak jasotzea da. EK-k ez du oraindik erabaki begiralerik bidaliko dituenik Kroaziara, Esloveniatik Armada Federala erretiratu aurretik.

Eslovenian hildako bi kazetari austriarrei, Banijan hildako kazetari alemaniarra gehitu zitzaien herenegun. Egon Scotland kazetaria ostiraleko borroken erdian harrapatuta gelditu zen bere autoaren barnean. Bertatik irten zenean, milizia serbiarrek tiro egin zioten, eta Goardia Nazional kroaziarrak ospitalera eraman orduko hil zen odolustuta. Scotlanden heriotzaren ondoren, beste lau kazetari atzerritarren egoeraz kezkatzen hasi dira dagoeneko. Banijan, Scotland ez ezik, hiru kazetari austriar eta iparramerikar bat ere zeuden.

Madagaskar: Gobernu paraleloaren burua gendarmeek bahitu

ANTANANARIVO

Albert Zafi Madagaskarreko Gobernu «alternatiboko» lehen ministroa 'bahitu' zuen atzo gendarmez osatutako komando batek, oposizioko iturriek salatu zutenez. Zafiren atxiloketarekin sei dira legezko Gobernuak exekutibo paraleloko arduradun bahituak azken lau egunotan, hauen artean oposizioak izendatutako hiru ministro.

Ekintza honen berri izatean, Gobernu alternatiboko gainontzeko kideek beren bizilekuetatik ihes egin zuten eta klandestinitatera igaro, oposizioko iturriek azaldu zutenez. Aurkitu eta bertan atxilotzeko agindua dago kide hauen aurka. Atxilotuak non dauden inork ez daki, oposizioaren esanetan Antananaribo, Madagaskarreko hiriburutik 50 kilometrora dagoen koartel batean egon badaitezke ere.

Didier Ratsiraka lehendakariak asteartean ezarritako sitio egoeraren arren, oposizioak ministeritzak hartzen jarraitu zuen.

Etxeratze deiak hautsiz, manifestazioak egiten dira eta prentsako zentsura ez da errespetatzen. Horregatik, Gobernuak oposizioko liderrek bahitzeko erabakia hartu duela dirudi, protesta ekintzak bururik gabe jarrai ez dezaten.

Ekainaren 10tik honako istiluen arrazoia, Ratsirakak Konferentzia Nazionala eratzeko esakera ukatzea izan zen, eta hiru hildako izan ziren ostirala arte protestak baketsuak izan baziren ere. Egoera honek Gobernuaren jarreraren gogortzea suposatzen du oposizioaren ustez, eta hemendik aurrera «denak balio du, baita indarkeriak ere».

Bush-Gorbatxov: Indar berriz dator sovietarra Gailurrera

DONOSTIA

Mikhail Gorbatxovek Soviet Batasuneko (SESB) Lehendakariak indarberrituta egingo dio aurre George Bush kide estatubatuarrarekin egingo duen bilerari, Alderdi Komunistako Komite Zentralaren laguntza eta errepublikekin Batasun Tratatuaren hitzarmena lortu ondoren.

Gorbatxovek bederatzi errepublikek adostasuna bakarrik duen arren, eta Tratatuaren testua bakarrik onartuta, hitzarmen honek SESBko lehendakaria errepublika eta zentruaren ordezkari bakartzat aurkeztu du. Hala ere, Gorbatxovek bere lidergoa sendotzeko nazioarteko laguntza behar du, Bushek eskainiko diona hain zuzen. Nazioarteko oinarria Alderdiko sektore kontserbadore, militar eta baita populazioaren aurrean krisia konpontzeko garantia bezala agertzen da.

G-7 bileran laguntza teknikoa lortu ondoren, Gorbatxoven helburua Bushekiko gailurrean EEBBekin erlazioak sakontzea izango da. EEBBek elkarlanerako aurrez jarri duten baldintza bakarra sistema demokratikoa eta merkatu librerako edozein bide zilegi denekoa da, barne arazoak kontutan hartuz. Azken egunotan izandako Alderdi Komunistaren Kongresuan Gorbatxovek eskuratu duen laguntza baldintzatua eta aurrez aipatutako Batasun Tratatuak bidea zabaldu dute erreforma politiko eta ekonomikoei.

✓ Bush: «Bilera lehendakariarekin bada ere, ez dut Federazioa osatzen duten errepublikekin kontakturik baztertzen».

George Bushek «Pravda» egunkariarai eskainitako elkarrizketan «bilera lehendakariarekin bada ere, ez dut Federazioa osatzen duten errepublikekin kontakturik baztertzen», adierazi zuen. Etxe Zuriko iturriek EEBBk ez direla bide federal edo zentralizatuaren alde irtengo azaldu zuen.

Potentzien arteko erlazioez gain, beste aztergairik ere izango da. Kooperazio ekonomikaren arloan, Bushek G-7 gailurrean eskaini zitzaizkion hitzak baino gehiago eraman nahi du Moskura. EEBBek honetarako SESB ekonomikoki lehentasuna duen nazio bezala izenda dezakete, ekonomia sovietarra aurrera irten dadin. Horrez gain, Bush eta Gorbatxovek arma murrizketa Tratatua itxiko dute.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ZUZENTZA SAILA

1991ko uztailaren 29ko E.H.A.A.aren 152 zenbakian ondoren zehazten den iragarpena agertuko da:

LEHIAKETA PUBLIKOA Euskal Autonomi Elkarteko Zuzentza Administrazioa informatizatzeko Planaren Bigarren Faserako Informatika Tresneria hornitu, ezarri eta mantentzeko dena.

Espedientea: S-008/91-DJ.

Xedea: Iragarpen honen idazpuruan datorrena, honako loteotan banatua:

1. LOTEA: Balmaseda, Durango, Gernika, Getxo, Azpeitia, Bergara, Eibar, Irun, Tolosa eta Amurrioko Epai Barrutiei zuzenduriko informatika tresneriaren osagai fisikoak eta Logical de Base delakoa.

2. LOTEA: ORACLE harreman datu basea.

Lotez lizitatzeko aukera: eskaintzak lote bati edo lote biei buruzkoak izango dira. Administrazioak lizitatzaile baten edo batzuen aldeko esleipena egin ahalko du.

Esleitzen duen Erakundea: Eusko Jaurlaritzako Zuzentza Saila, Wellington Dukea kalea, 2. zenbakia, Gasteiz (Araba). Telefono zenbakiak: 24.60.00, 24.72.00, 24.90.00. Prefijoa: 945; Telefaxa: 22.62.57.

Esleitzeko era: Lehiaketa Publikoa.

Aurrekontua:

1. Lotea: 115.000.000 pta.

2. Lotea: 25.000.000 pta.

Burutzeko epea: 1991ko abenduaren 31ra arte.

Burutzeko tokia: Oinarri Teknikoetan agertzen da.

Bulegoak: Eusko Jaurlaritzako Zuzentza Saileko Kontratazio Mahaiko idazkaritzan, Eusko Jaurlaritzaren egoitzan, Gasteizko Wellington Dukea kalearen 2. zenbakian dago Oinarri Arauen Plegua, interesdunen eskueran.

Fidantzak eta bermeak: Pleguaren karatulan agertzen dira.

Eskaintza eredua: Pleguaren eranskintzat datozenak.

Aurkezteko lekua eta epea: eskaintzak Eusko Jaurlaritzako Zuzentza Saileko Kontratazio Mahaiko Idazkaritzan 1991ko irailaren 12ko goizeko hamarrak baino lehen aurkeztu beharko dira.

Eskaintzen agerteraztea: Kontratazio Arautegi Orokorraren 100. atalean bildutako eran bat ere jasotzen ez bada, 1991ko irailaren 17ko eguerdiko hamabietan egingo da, Eusko Jaurlaritzaren egoitzan, Gasteizko Wellington Dukea kalean, 2. zenbakian.

Aurkeztu beharreko agiriak: Lehiatzaileek, Administrazio Klausula Partikularretan zehazten diren agiriak aurkeztu beharko dituzte.

Informazio gehigarria: Lehiatzaileentzako gainontzeko informazio interesgarria Pleguan dago.

Gasteiz, 1991ko uztailaren 22an. ZERBITZU ZUZENDARIA: Luis Maria Valle Bolinaga

Poloniako Gobernua eta Walesa urrunduz doaz

VARSOVIA

Donald Tusk, Liberal Demokratiko Kongresua (KLD) alderdiko Kontseilu Politikoko lehendakaria kanporatua izan zen Poloniako Nazio Komite Hiritarretik, «Zycie Warszawy» egunkariak adierazi zuenez. Aipatu komitetik Tusk kanporatzearen arrazoia, Lech Walesa estatuburuaren aldeko koalizioan KLDk uko egin izatea da. Komitea Walwsaren aldeko erakunde nagusienetarikoa da.

KLD alderdikoa da Jan Krzysztof Bielecki lehen ministroa, hortaz arazo honekin Poloniako Gobernua eta Lehendakaritzaren aldekoen arteko zatiketa azaldu da. KLDk datorren urriaren 27ko hateskundeetara hautagai eta diputatuen zerrenda librearekin aurkezteko asmoa azaldu du.

Era berean Solidarnosk sindikatutik sortutako indar eta elkarte guztiak Senaturako hautagai berdinak aurkezteko aliantza bat eratzea proposatu zuten. Eskaintza hau Walesaren aldeko taldeek ukatu egin zuten.

Jan Krzysztof Bielecki lehen ministroak, Lech Walesaren aldeko indarretatik aldendu zen lehendakariak izendatu eta laster. Bieleckik, Tadeusz Mazowiecki lehen ministroa izandakoaren Batasun Demokratikoa alderdiarekin hauteskundetarako hitzarmenik lortu dezakeela adierazi zuen. KLDko Andrzej Arendarski kidea ere Hiritar Komitetik kanporatu zuten.

Castroren hiru orduko hitzaldiak kapitalismoaren aurka ihardun zuen

Nelson Mandela izan zen ohorezko gonbidatua Matanzaseko urteurrenean

Cubak sozialismoaren munduko azken gordelekua izaten segiko du» adierazi zuen Fidel Castro Cubako lehendakariak herenegun gauean, uztailaren 26an egin ohi duen hitzaldian. Moncada-ko koartelari egin erasoaren XXXVIII urteurrenean, Nelson Mandela lider hegoafrikarra izan zen gonbidatu nagusia eta bertan onartu egin zuen arma cubarrak izan zituela Ck borroka armatuan zebilenean.

K.ALDABE / **DONOSTIA**

Matanzas hirian bildu ziren hamarmilaka lagunen aurrean, Fidel Castrok bi ordu eta berrogei minutuko hitzaldia eman zuen. Bertan, buruzagi cubarrak kapitalismoaren aurkako betiko jarrera erakutsi zuen, merkatu ekonomiaren eta inperialismoaren aurka.

EEBBak munduko potentzia militarrik handiena bezala deskribatu zituen, baina ekonomikoki beherantz doala eta ez daukala Japonia eta Europako Komunitatearen aurka borroka egiterik. «Kapitalismoa, jabetza pribatua, latifundioak, kolonialismo berria, inperialismoa, zarama guzti hori iragana da. Sozialismoa, berriz, bere bizitza laburra kontutan izanik, jaioberria da, gizartearen etorkizuna» adierazi zuen Castrok.

«Ezin dugu jabetza pribatu txikietara itzuli, ez ditugu estatuko enpresak pribatizatuko, hori munduko erokeriarik handiena litzatekeelako». Lehendakari cubarrak gogor salatu zituen Estatu kapitalistak, SESBri bultzatu nahi diotelako Cuba eta Txinarekin harremanak haustera. Presio horiek «lotsagarritzat» jo zituen Castrok.

Mandela eta Castro Matanzaseko iraultzaren XXXVIII urteurrenean. AMILTON.

> Fidel Castro: «Krisi ekonomikoa handia da. Makinaria erabiltzeko erregairik geratzen ez bazaigu, besterik ez bada azukre kainaberak eskuz moztuko ditugu»

Lehendakari cubarrak ez zuen ukatu bere herriko arazo ekonomikoak gorantz doazenik, baina dena den adierazi zuen, besterik ez bada azukre kainaberak eskuz moztuko dituztela, makinaria erabiltzeko erregairik geratzen ez bazaie.

Matanzako iraultzaren urteurrena ospatzera gonbidatu asko joan ziren, besteak beste, Daniel Ortega Nicaraguako lehendakari ohia, SESBko ordezkari bat eta Brasileko Langile Alderdiko beste bat. Baina gonbidatu berezia, Nelson Mandela, Afrikako Kongresu Nazionaleko (ANC) lehendakaria izan zen. Mandelak Jose Marti domina jaso zuen eta orduerdiko hitzaldi batean Cubari eskerrak eman zizkion Afrikako askapen mugimenduen aldeko erronka egiteagatik.

ANCk borroka armatua egiten zuenean Cubaren laguntza militarra ere jaso zuela onartu zuen Mandelak, eta bera espetxetik irtetzeko Castrok eginiko lana eskertu zion agintari cubarrari. Mandelak Hego Afrikari eginiko bahitura ekonomikoekin segitzeko eskatu zion munduari eta batez ere EEBBei.

LABURREAN

HONDURASen 1.500 pertsona hil daitezke koleraz

Honduraseko Osasun Publikoko Ministeritzak 1.500 hildako eta 100.000 kaltetu eragin ditzakeela kolerak ohartarazi zuen herrialdeko babesak gaindituz barnera sartzen bada. «Kolerak arazo larriak sortuko ditu, ezbeharraren ezaugarri guztiekin», adierazi zuen Alirio Cruz koleraren aurkako Komisio Nazionaleko buruak. Egoera bereziki larria izango da Tegucigalpan, milioi erdi pertsona pilatuta bizi diren tokian ●

TXINA: Brenda tifoiak 15 heriotz eragin ditu

Gutxienez 15 pertsona hilda eta 22 zaurituta izan ziren Guandong, Txina hegoaldeko probintzian Brenda tifoia igarotzean. Tifoiak 340.000 biztanle kaltetu zituen, batez era Zhunai hirian, eta hamar milioi dolarreko galerak eragin. Komunikabideak eta landutako soroak ere kalterik izan zuten, 100 milioi ingurukoak. Agintariek, tifoi gehiago etor daitezkeenez, dei egin dio populazioari neurriak hartu ditzan ●

PANAMAko Parlamentuak Tratatuak betetzea baieztatu du

Olimpo Saez, Kanpo Erlaziotarako Panamako Parlamentuko Komisioko lehendakariak adierazi zuen botere legislatiboa Tratatuen negoziaketa arazoan Guillermo Endararen Gobernuaren alde dagoela. Gobernuak 1977n Estatu Batuekin sinatutako Kanaleko Tratatuak berriro ez negoziatzearen alde dago. EEBBek eta Panamako zenbait sektorek Tratatua 1999n amaitu ondoren ere base militarrak jarraitzeko eritzia dute ●

NICARAGUA: Ofizial erretiratuek lurrak eskatu dituzte

Armada Herrikoi Sandinistako ofizial erretiratuek protesta ekintzak egin zituzten Lehendakaritzaren egoitzaren aurrean, lurren jabego eta zerbitzu sozialen ordaina exigitzeko. Honez gainera, Kuwaitera lanera joandako Armadako kide ohien itzulera bultzatzeko eskatu zuten. Violeta Chamorro lehendakariak Armadaren militar kopurua murriztu zuen lurrak eta ordaina aginduz ●

nazio arazoak / gutxiengoak

Desagertzear dagoen hizkuntza

Yiddish

Aste honetan hil den Isaac Bashevis Singer Nobel saridunaren heriotzak bere literaturarengana erakarri du interesa, eta bere istorioak idazteko erabili zuen hizkuntzarengana, Yiddish-arengana. Askoren iritziz, Yiddisha hil delako seinalea da I.B. Singerren heriotza. Egia, tamalez, ez da urruti izango, oso zaila bait du hizkuntza honek bizitzea gaur egun.

XII mendearen inguruan hasi zen eratzen mintzaira hau, Alemaniako Ashkenazi korronteko juduen artean. Aintzinako aleman garaiaren ondorengo zuzena da Yiddisha, arkaismo ugari gorde dituen hizkuntza germanikoa, baina hebraiera, frantses eta hizkuntza eslaviarren eraginik ere ezagutu du. Alemaniatik, pixkanaka ekialderantz hedatu zen Ashkenazi juduen emigrazio uhinekin. Yiddish izena berria da esateko, XVII mendean sortu bait zen. Ordurarte Loshn Ashkenaz zeritzon mintzairari, 'ashkenazien hizkuntza'. 1850 inguruan literatura sortu zen Yiddishean, Mendele Mokher Sforim-i esker, eta garai aberats bat ezagutu zuen geroztik hizkuntzak, batez ere Eki Europako herrietan, Alemanian juduen artean gero eta prestigio txikiagoa bait zuen Yiddishak. Bitartean, EEBBetara ere hedatu zen hizkuntza emigrazioarekin.

Baina gainbehera definitiboa nazismoarekin etorri zen. II Mundu Gerra aurretik, 12 milioi Yiddish hiztun zeuden. Holokaustoaren ondoren, 5 edo 6 milioi ziren bakarrik. Bizirik geratutakoek ihes egin dute Europa Ekialdetik. Ameriketan, Israelen edo Mendebal Europan kokatu dira. Han oraindik hizkuntza bizi den arren, bigarren belaunaldiek galdu dute, ingeles, hebraiera, aleman edo frantsesaren mesedetan. Gaur, agian lau milioi hiztunek daki oraindik Yiddishez.



Isaac Bashevis Singer.

Hala ere, Yiddish hiztunek badute oraindik esperantzarik. «Urte askotan, mediku asko hurbildu zaizkio Yiddish gaixoari. Gero eta okerrago zegoela zioten, hil zorian. Baina, harrigarria, mediku guztiak hiltzen ari dira hizkuntza bera baino», komentatu du Pariseko Yiddish liburutegiko zuzendariak, Kiva Vaisbrot-ek. Desagertzen bada ere Vaisbrotek badu itxaropena. «Ez dela hizkuntza bizia? Baliteke, baina ikasketa, memoria eta kultur hizkuntza da».

Judutarrak

■ *Ashkenazi* korrontea da judutarren diasporan zatitu zeneko adar nagusia. Europako juduen talde honen hizkuntza berezia izan da mendeetan zehar Yiddish delakoa.

■ *Sefarad* juduak, ordea, ipar Afrika eta Ekialde Erdiko herrialdeetakoak dira. Jatorriz 1492n Espainiatik kanporatutako juduen ondorengoak dira. Hauek ere hil zorian dagoen mintzaira berezia dute, Sefardiera, gaztelaniaren dialektoa. Israelen Sefarad eta Ashkenazi komunitateek agintaritza erlijioso banandua dute.

Tourra 91

Indurain Txapeldun

Indurain jaun eta jabe

Atzoko erlojupekoa irabazi eta gero, gaur Parisen garaile sartuko da Miguel Indurain. Piriniotan mailot horia jantzi zuenetik sendo agertu da eta maila goreneko aurkariak izan arren, hauek indarge azaldu dira Atarrabiako mozkotearen aurrean. Erlojupekoetan etsairik gabe, jaun eta jabe. Pirinio eta Alpeetako mendian nagusi. Ordekan fin. Akats bat bera ere ez du izan Banestoko txirrindulariak Tourrean.

Val Louronetik aurrera karrera kontserbadorea egin du Bugno, Chiappucci eta abarrei eutsiz. Ez zuen eraso egiteko beharrik. Gainerantzekoak ez dira Induraini erasotzeko gai izan. Gaur Euskal Herritik jendetza handia hurbilduko da Parisera, Induraini garaile handiak merezi duen harrera egiteko. Tourreko Jauna bihurtu da nafarra, Eguzki Errege. Aditu guztiek txalotu dituzte Atarrabiakoaren klasea eta indarra. Baita Banestok liderra babesteko egin duen lana ere. Eta Indurainek lasaitasuna mantendu du, oreka inoiz galdu gabe. Bere buruaz ziur, erakutsi duen nagusitasuna erabatekoa izan da. Urte asko eman ditu une honetarako prestatzen, eta aukera ikusi duenean ez du hutsegin. Bete betean asmatu du.

Pariseko eguna heldu da. Azken asteetan hainbeste alditan aipatu duguna errealitate bilakatuko da gaur Miguel Indurainentzat. Nafarrak merezitako garaipena eskuratu du Frantziako errepideetan.

Klasea eta indarra

PONTIANO ARBELAIZ

Urte batzuk badira Indurainek barrenean klase eta indar asko duela erakutsi zuenetik, eta aurten ondo irabazi du Tourra. Kontrario handiak izan ditu, baina igotzen beti aurrekaldean ibili da, hainbeste kilo izan arren. Kontrarrelojetan ere zer esanik ez, etsairik ez du izan. Atzo lasai hasi zen, Bugno kontrolatzen, eta helmugara oso eroso iritsi zen, erraztasun handiz. Martxa horretan beste kilometro mordoska ere egingo zituen.

Pirinioetan mailot horia jantzi arren, ez da inoiz gehiegi fido, eta karrera nahiko kontserbadorea egin du. Alpeei beldurra ere bazien, eta berak gainera ez zuen eraso beharrik. Besteak ziren atakatu behar zutenak, eta Indurainek gurpil onari jarraitzearekin nahikoa zuen. Bugno oso ondo ibili da, Chiappuccik ere Tour bikaina egin du, eta horrela ez da samurra izaten liderra atakatzen hastea. Tourmaletean Lemondekin zer gertatu zen ikusi besterik ez dago. Bere burua indartsu ikusi eta erasoa bota zuen, baina gero etorri ziren kontuak.

Aurreko urteetan ere izan zezakeen Tourra irabazteko aukerarik, baina ez du presarik izan. Indurain mutil itxia da, umila, eta iaz aurten bezain ondo egon arren, orduan Delgadok agintzen zuen. Indurain irabaztera irten balitz, nik uste aukera handiak zituela. Oraindik gaztea da ordea, eta Tourra berriz irabazteko aukera izango du, hori beti zaila bada ere. Beharko dugu, euskal txirrindularitza ahul samar azaldu bait da Indurain alde batera utzita.

Tourra 91

Indurain Txapeldun

Indurainek Tourreko txirrindulari indartsuena dela erakutsi du

Banestoko nafarrak 27 segundu atera zizkion Bugnori atzoko etapan

Miguel Indurainek sekulako lasterketa burutu zuen atzo Lugny eta Maconen artean korritutako 57 kilometroko erlojupeko lasterketan. Atarrabiatarrak 27 segundu atera zizikion bere areriorik handienazen Gatorade taldeko Gianni Bugnori. Indurainek Tour honetako txirrindularirik indartsuena dela frogatu du berriro ere.

MACON

Frantziako Tourraren aurtengo edizioa Morzinen amaitu zen etapan erabakita geratu zen arren, txirrindulari guztiak, atzoko erlojupeko lasterketaren zain zeuden. Lasterketa hasi eta asko eta asko ziren, sailkapen nagusiko lehen postua azkenaurreko etapa honetan erabakiko zela esaten zutenak. Azkenean ez da horrela gertatu, izan ere erlojupeko azken lasterketa honek, Indurainen nagusitasuna argi geratzeko besterik ez bait du balio izan.

Ostiralean Maconen bertan amaitu zen etapan garaipena eskuratu zuen Panasonic taldeko Ekimov sovietarra izan zen atzoko lasterketako denborarik onena lortu zuena, Lemond sartu orduko, 1.13.34 denborarekin. Etapa hau irabazteko faboritoa zen Jean Francoise Bernard frantziarrak ezin izan zuen sovietarraren denbora hobetu eta Ekimovek baino 25 segundu gehiago behar izan zituen 57 kilometroetan.

CHIAPPUCCIK DENBORA ITZELA

Indurain eta Bugnoren arteko aldea handiegia zenez, atzoko etapan jokoan zegoena hirugarren postua zen, izan ere, Chiappucci eta Motteten artean segundu gutxi batzuk besterik ez bait zeuden. Carrera taldeko gizonak bazuen horren berri eta bera izan zen denborarik onena egin zuen gizona, etapako hogeigarren kilometroan. Dena den, Quintanelliren gizona indartsu hasi zen arren ezin izan zituen Indurain, Bugno eta Lemonden markak hobetu. Hala ta guztiz ere, bere helburua bete zuen Chiappuccik, sailkapen nagusiko hirugarren postua ziurtatu du eta.

Chiappuccik ondo hasi eta gaizki amaitu bazuen ere, ez zen gauza bera gertatu Gianni Bugnorekin. Gatorade taldeko gizona ez zen oso fin ibili lehen hogei kilometroetan, baina hortik aurrera Indurainek bakarrik lortu zuen berak baino denbora hobea. Banesto taldeko nafarrak sekulako lasterketa burutu zuen atzo eta irteeran Bugnorekiko zuen aldea 3'09 takoa bazen ere, amaieran 3'36ra arte areagotu zen.



Miguel Indurainek sekulako indarra erakutsi zuen atzoko etapan. EFE



Gianni Bugno.

Chiappuccik ezin izan du Bugno gainditu

MACON

Claudio Chiappucci eta Gianni Bugnoren arteko harremanak txarrak direla ez da gaurko albistea. Bi gizon hauen arteko lehia izugarria da eta askotan sailkapenak alde batera utzi eta nahikoa dute bat bestearen aurretik geratzearekin, Italiako Giroan Bugnok berak aitortu zuenez. Dena den bi gizon hauen ezaugarriak oso desberdinak dira. Carrerako liderra ez da oso regularra izaten baina eztanda egiten duenean kontutan hartzeko gizona da.

Bugno ordea, itzulia handietako sailkapen nagusia eskuratzeko gizon aproposa da. Atzoko lasterketan, Chiappuccik hirugarren postua mantendu beharra zuen eta irteeran abiatu eta gero sekulako erritmoan aritu zen. Horren ondorioz bera izan zen hogeigarren kilometroan denborarik onena burutu zuena, 21 segundu Bugno baino azkarrago. Dena den Carrera taldeko txirrindulariak ezin izan zuen alde hori mantendu helmugan, Gianni Bugnok berak baino denbora hobeagoa lortu zuen eta.

Sailkapenak

Etapako sailkapena

1. M. Indurain (Banesto) .. 1.11.45
2. Gianni Bugno (Gatorade) . 0.27ra
3. Greg Lemond (Z) 0.48ra
4. C. Chaippucci (Carrera) . 1.08ra
5. V. Ekimov (Panasonic) . 1.49ra
6. J. F. Bernard (Banesto) .. 2.14ra
7. Melchor Mauri (ONCE) . 2.14ra
8. V. Poulnikov (Carrera) .. 2.27ra
9. D. Zdanov (Panasonic) . 2.32 ra
10. Charles Mottet (RMO) .. 2.40ra
11. Alvaro Mejia (Ryalcao) . 2.51ra
12. Pedro Delgado (Banesto) . 2.56 ra
13. Luc Leblanc (Castorama) . 3.17ra
14. Frans Maasen (Buckler) . 3.32ra
15. A. Leanizbarrutia (Clas) . 3.51ra
16. A. Hampsten (Motorola) . 3.57ra
17. Stephen Hodge (ONCE) . 4.10era
18. L. Fignon (Castorama) .. 4.12ra
19. Rob Harmeling (TVM) . 4.21era
20. M. Fondriest (Panasonic) . 4.32ra
21. E. Chozas (ONCE) 4.35era
22. P. Lance (Toshiba) ..... 4.37 ra
23. G. Theunisse (TVM) .... 4.39 ra
24. U. Ampler (Histor) ..... 4.40 ra
25. G. Winterberg (Helvetia) . 4.40ra
26. W. Stutz (Weinmann) 4.46ra
27. A. Camargo (Ryalcao) ... 4.51ra
28. G. Rue (Z) ..... 4.53 ra
29. J. Simon (Z) 4.54ra
30. G. Duclos-Lasalle (Z) 4.56ra

Sailkapen orokorra

1. M. Indurain (Banesto) . 96.17.44
2. Gianni Bugno (Gatorade) . 3.36ra
3. C. Chiappucci (Carrera) . 5.56ra
4. Charles Mottet (RMO) .. 7.37ra
5. Leblanc (Castorama) . 10.10era
6. L. Fignon (Castorama) . 11.27ra
7. Greg Lemond (Z) 13.13ra
8. Hampsten (Motorola) .. 13.40ra
9. P. Delgado (Banesto) . 20.10era
10. Gerard Rue (Helvetia) . 20.13ra
11. E. Chozas (Once) 21.00era
12. A. Rondon (Banesto) ... 26.47ra
13. G. Theunisse (TVM) . 27.10era
14. J. F. Bernard (Banesto) . 28.57ra
15. Fondriest (Panasonic) .. 30.09ra
16. Denis Roux (Toshiba) . 30.40ra
17. Eric Caritoux (RMO) .. 32.39ra
18. A. Camargo (Ryalcao) . 32.54ra
19. Alvaro Mejia (Ryalcao) . 33.52ra
20. F. Vichot (Castorama) . 36.43ra
21. Gilles Delion (Helvetia) . 38.43ra
22. Murguialday (Amaya) . 39.11ra
23. J. Simon (Z) 39.14ra
24. F. Philipot (Banesto) ... 41.56ra
25. Bourgignon (Toshiba) . 42.32ra
26. S. Rooks (Buckler) 44.49ra
27. T. Claveyrolat (RMO) . 44.49ra
28. P. Esnault (Amaya) 46.14ra
29. R. Conti (Ariostea) 46.41era
30. Giovanetti (Gatorade) .. 47.06ra



Delgado: «Pozik nago Indurainentzat Tourrean lagungarri izan naizelako»

MACON

Gaur amaituko den Frantziako Tourra hasi baino lehen Banesto taldeko liderra zen Pedro Delgado ondo baino hobeto aritu izan zen atzo jokatutako erlojupeko lasterketan. 1988ko Tourra irabazi zuen gizona, sailkapen nagusiko hamaikagarren tokian zegoen atzoko etapa hasi orduko, baina lasterketa amaitu ondoren bederatzigarren postua eskuratu du, Once taldeko Eduardo Chozas eta Helvetia taldeko Gerard Rue atzean utzi ondoren. «Pozik nago burutu dudan lasterketagatik. Dena den ez nau batere pozten Chozas izan delako atzean utzi dudan gizona. Nahiago izango nuen beste nazio bateko txirrindularia izan bazen. Atzoko erlojupeko lasterketa, Indurain, Bugno eta Lemondentzako egokia zen, izan ere hasierako kilometroak kenduta, beste guztiak oso lauak zirelako. Miguelek sekulako denbora lortu du, alde batetik inor baino indartsuago dagoelako eta bestetik, mailot horia eroateak oraindik indar gehiago ematen duelako. Chiappuccik ere denbora oso ona lortu du eta horrekin batera hirugarren postua ziurtatzea. Mottet, bera baino hobeto ibiltzen da erlojupeko lasterketetan, baina gaur egun Chiappucci frantziarra baino askoz indartsuago dabil» esan zuen atzo Delgadok.

Pedro Delgado ez zen oso fin ibili Val Louronen amaitu zen etapan eta hortik aurrera bere lan guztia Indurainen aldekoa izan da. «Ez nintzen gustora ibili Tourmalet igotzen eta Tourra hasi baino lehen esan nuen bezala, errepideak esango zuen Banestoko liderra nor izango zen. Miguel Indurain ni baino hobeto ibili da eta hortan ez dago ezer esaterik. Dena den oso pozik nago Indurainentzat baliagarri izan naizelako. Txirrindularitzan gizon asko ari gara eta atzetik datozenek ere gogor jotzen dute. Horrek ez du esan nahi noski, nire karrera amaitutzat jotzen dudanik. Oraindik gauza handiak egin ditzaket» esan zuen atzo Delgadok.

MELUN-PARISE 178 kilometroko etapa burutuko du gaur tropelak Miguel Indurain buru duela. Nafarraren ohorezko etapa izango den honek ez du inolako mendaterik izango, eta seguruenik sprintean jokatuko da, baldin eta azken metroetan norbaitek hanka egiten ez baldin badu. Sailkapen orokorrean ez da inolako aldaketarik izango.

Tourra 91

Indurain Txapeldun

Etxabarri: «Indurain indartsuena dela erakusten digu garaipenak»

Banesto taldeko zuzendariak konfidantza handia du Indurainengan

Banesto taldeko zuzendariak 1988ko Tourra gogoratzen du momentu honetan. Garai hartan Delgadorekin lortu zuena Indurainekin errepikatu du orain. Orain arte jaso dituen kritika guztiak ahaztu eta nafarraren garaipena ospatu nahi du.

MACON

Jose Miguel Etxabarri oso pozik agertzen zen atzo Maconeko helmugan. Indurainen garaipena ez zuen Banestoko zuzendaria ezustean harrapatu, «momentu honetan bera da indartsuena». Etapa garaipenak Indurain konfirmatu besterik ez du egiten, «duen indarra eta kategoria konfirmatzen du honek».

Etxabarrik erlojupeko etaparen maila azpimarratzen zuen, «lehen postuetan onenak egon dira, eta horien artean Indurain izan da indartsuena». Aurrerantzean ere maila honetan jarraituko duela espero du Banesto taldeko zuzendariak, «aurrerantzean ere gisa honetako garaipenak emango dizkigula espero dut».

Jose Miguel Etxabarri.

Momentu honetan gauza positiboak besterik ez ditu gogoratzen Etxabarrik. «Egia esan ez ditugu momentu txarrak pasa. Indurainek Tour guztian erakutsi duen indarrak konfidantza handia ematen du». Hala ere lehen etapako ihesaldia ez du ahaztu Etxabarrik, «momentu horretan ezuste handia hartu genuen, baina gero ondo erantzun dugu». Etxabarriren ustez, Indurainez gain, gainontzeko taldekideak oso indartsu ibili dira. Bernard, Delgado eta Rondonek aipamen berezia merezi dute.

✓ Datozen urteetan Miguel Indurainek maila honetan jarraitu behar duela uste du Jose Miguel Etxabarrik.

ERREPIDEAK ERABAKI DU LIDERRA

Tourra hasi aurretik Indurain eta Delgado ziren taldeko liderrak. Horrek eztabaidarako bidea eman zuen. Hala ere Etxabarrik ez du inolako arazorik izan, «errepideak erabaki du liderra. Erlojupeko eta mendiko etapetan Indurain izan da indartsuena». Pariseko helmugan sartzean zirrara berezia somatuko du Etxabarrik. «Momentu hori ez da erraz ahaztutzen. 1988koa oraindik gogoan dut, aurreko sufrimendu guztiak ahaztuarazten bait ditu.



Carreraren garaipenak Claudio Chiappucciren eskutik etorri dira.

Carrera taldeak 400.000 liberatik gora irabazi ditu Tour honetan

MACON

Carrera jeans Italiako taldea izan da, Tour honetan diru gehien eskuratu duena, izan ere 400.000 liberatik gora irabazi bait dute Sandro Quintarelliren mutilek. Claudio Chiappuccik mendiko sailkapeneko lehen postua lortu du eta Abdujaparovek ez du areriorik izan mailot berdea bereganatzerako.

Jose Miguel Etxabarrik zuzentzen duen Banesto taldeak, egundoko Tourra burutu duen arren, ez dira Indurainen kideak diru gehien lortu dutenak. Italiako Carrera taldeko liderra den Claudio Chiappucik, lasterketa ederra burutu du, eta Val Louronen amaitzen zen lasterketako etapa gogorrena irabazteaz gain, bera dugu mendiko sailkapenaren lehen postua eskuratu duena. Euskal Herriko Itzulia irabazi duen gizonak lehia polita izan du R.M.O taldeko Thierry Claveyrolatekin, baina azkenean Chiappucik ez du amore eman eta 35 puntuko aldea atera dio txirrindulari frantziarrari.

R.M.O taldea da bestalde, Carreraren atzetik sailkatu dena, diru irabaziei dagokienean. Charlie Mottetek irabazitako bi etapak eta Claveyrolatek irabazitako beste batek, diru pila emateaz gain, taldearen etorkizuna ziurtatu du. Ariostea dugu hirugarren postuan agertzen dena, Toshiba laugarren, Castorama bostgarren, Lotto seigarren eta PDM zazpigarren. Banesto taldea bederatzigarren postuan agertzen zaigu, Clas hamaseigarrenean, Once hemeretzigarrenean eta Amaya hogeigarrenean.

MEJIAS GAZTERIK ONENA

Jean Paul Van Poppel eta Mario Cipollini izan ziren nagusi Giroan eta Vueltan jokatu ziren sprintetan. Hori dela eta inork ez zuen uste Carrera taldeko Abdujaparov sovietarra nagusi izango zenik Tourreko sprintetan. Orain dela gutxi afizionatu mailan aritu den uzbekiar honek ez du arazorik izan erregulartasuneko sailkapeneko lehen postua eskuratzeko, izan ere, helmugetako sprintez gain, tarteko helmugan guztietan lehen postua lortu asmoz aritu izan bait da Abdujaparov.

Gazteen sailkapenari dagokionez, Postobon taldeako Mejias colombiarra izan da lehen postua lortu duena, Buckler taldeko De Vriesten aurretik. Amaya taldeko Enrike Gerrikagoitia gernikarra zazpigarren postuan sailkatu da sekulako Tourra burutu ondoren. Taldekako sailkapenei dagokienez, Banesto jaun eta jabe izan da Piriniotako etapak pasa ondoren. Indurainek lortutako lehen postuaz gain, ez da ahaztu behar Jean Francoise Bernard, Abelardo Rondon eta Delgado ere, sailkapen nagusiko lehen postuetan sartu direla.



MIGUEL INDURAIN Pariseko podiumaren lehen postura igoko da gaur. Nafarrak uste baino «errazago» irabazi du aurtengo Tourra. Azken erlojupeko etapara hiru minutuko abantailaz iristea luxu handia da. Nafarrak gehiago nahi eta atzoko etapan gehiago aldendu zituen arerioak. Pariseko helmugan, elkar ikusi ezin duten bi italiar izango ditu Indurainek ezker eskuin: Gianni Bugno eta Claudio Chiappucci. Carrera taldeko txirrindulariak erlojupeko lasterketa bikaina egin zuen atzo, arriskuan zuen hirugarren postua defendatzeko. Hala ere Chiappuccik ezin izan du bere ametsa bete.

TEKNIKER

ikerkuntza elkarteak bere MEKANIKA SAILERAKO INDUSTRI INGENIARIAK behar ditu

Saiaketazko ikarakera azterketa, Elementu Finitoen metodoa, C edo bestelako hizkuntz programazio eta hizkuntza arrotzetan aritu izana baloratuko da.

Interesdunek bidal bezate haien curriculum vitae ondoko helbidera:

TEKNIKER, Otaola 20; 20600 EIBAR (GIPUZKOA)
"Industri ingeniaria" aipatu.
Telefonoa: (943) 11.67.44
Telefaxa: (943) 11.27.57

Tourra 91

Indurain Txapeldun

Miguel Indurain Tourra irabazten lehen euskal txirrindularia izango da, gaur Pariseko helmuga iragatean. Atarrabiakoak mimo handiz zaindu du bere karrera, inoiz gorputza gehiegi behartu gabe, une aproposenean mailarik gorenean izateko. Eta Tour'91 Indurainen plaza izan da. Erabateko nagusitasuna erakutsi du, eta garaipena eskuratzeko gakoak zein izan diren azaldu dizkigu Banestoko txirrindulariak. Iraganaz eta etorkizunaz ere mintzo da Atarrabiakoa.



«Tour osoan erakutsi izan dudan lasaitasuna, azalekoa, neure indarretan nuen konfidantzaren erakusgarria baino ez da izan.

«Val Louronen mailot horia jantzi nuenetik, Tourra irabazteko aukera handiak ikusi ditut, Pariserako bidea luzea izan arren.

Indurain: «Kostata heldu naiz honaino»

Erlojupekoetan onena, mendian eta ordekan nagusi, etsairik gabe Tourrean

MACON

Gaur Parisera helduko den etapa baino ez zaio falta Induraini Tourra irabazteko. Tramite hutsa, txirrindularitzan hasi zenetik izan duen ametsik handiena betetzeko. Munduko karrerarik garrantzitsuena irabazia du dagoeneko, baina apaltasuna nabari da nafarraren hitzetan. Ezbairik gabe menderatu ditu etsai guztiak, erabateko nagusitasuna erakutsi eta gero; eta horrexegatik, agian, bere barnerako ez du ezer izugarririk egin. Ondotxo daki, hala ere, Frantziako errepideetan lortu duenaren neurria, eta gaurtik aurrera Tourra irabazteak bere bizitzan izango duen eragina.

Lasaitasuna ageri du bazter guztietatik Indurainek. Txapeldunaren mentalizazio berezia ala gehiegizko hoztasuna, agian Tourra uste baino errazago irabaziko duelako. «Erraza ez da ezer —mintzo da Atarrabiakoa—. Ez dago irabazten erraza den karrerarik, eta are gutxiago Tourra. Aurtengoa aurreko urteetakoa bezain gogorra izan da, mendiko etapa gutxi zituela esan izan den arren. Ez ziren asko, baina bai oso eraginkorrak, argi ikusi denez. Nire azaleko lasaitasuna, neure indarretan nuen erabateko konfidantza besterik ez da izan».

Aurreneko astea kaskar antzerakoa izan zen Banestorentzat; orduan behintzat hala zirudien. Indurainen iritziz, Tourreko garaipena hantxe erabaki zen. «Haste hastetik, Tourra irabazteko faboritoen artean selekzio handia gertatu zen. Aurreneko eguneko ihesaldia eta erlojupekoa erabakiorrak izan ziren, korredore handi batzuk ia aukerarik gabe geratu zirelako. Nahiko esperientzia dut Tourrean, eta banekien aurreneko egunetako ahaleginek gero ordaina ekartzen dutela, indarrak gehien behar direnean. Lyoneko etapan Lemondek gehiegizko aldea atera zigun, baina nire ustez galera amerikarrarentzat izan zen».



Bi erlojupekoak irabazteaz gain akatsik ez du egin Indurainek Tourrean.

Indurainen hitzak ez dira debaldekoak, Lemond agertzen bait zen hasieran faborito argiena; are gehiago aurreneko egunetik bi minutuko aldea lortu ondoren. «Lemondek denbora asko atera zigun, gehiegi. Baina alde hori bere kontra bihurtu zen, eta galera ekarri dio. Eraso guztiak bere kontrakoak izan bait ziren hortik aurrera, eta Z taldean laguntza handirik ez zuen». Aleçoneko erlojupekoa etorri zen gero, eta hortxe eman zuen lehen abisua Indurainek. «Lemond izan ezik, gainerantzekoei alde handixea atera nien. Baina Lemond hiru minutu aurrerago nuen».

Kolpe gogorra eman zuen ordea nafarrak Val Louronen, Piriniotako etapa gogorrenean. «Mailot horia jantzi, eta Tourra irabaz nezakeela pentsatzen hasi nintzen. Hiru minutuko aldea ona da, baina aurretik Lemondek niri ateratzen zidana horixe zen, eta galdu egin zuen. Ezin nezakeen pentsa, beraz, guztia egina zegoenik». Pariserako bidea luzea da, «eta etapa guztiak dira arriskutsuak. Egunak iragan ahala, ordea, gero eta hurbilago ikusten da. Nik profesionaletan hamar urte behar izan ditut, orain nagoen tokiraino iristeko».

Lemond mendian menderatu badu Indurainek, bertan etengabeko erasoak egin ohi dituen Chiappuccik erlojupekoetan beherakada handia jasan du. «Italiarra korredore ausarta da, arriskutsua, baina Tourra irabazteko aukera guztiak galdu ditu erlojupekoetan. Aurreneko astetik hasi zen erasoan, eta Alpeetara leher eginda iritsi da».

«Karrera garrantzitsu asko ditut oraindik irabazteko»

MACON

Miguel Indurainek txirrindulari ororen ametsa bete egingo du gaur: Tourra irabazi. Ez da ordea horrekin aseko, eta etorkizunean maila gorenera igo den korredoreak garaipenen bideari jarraitu nahi dio. «Tourra oso karrera garrantzitsua da, ametsa edonorentzat, baina beste karrera asko dago oso garrantzitsua baita ere. Ez nuke erretiratu nahi, esaterako, Munduko Txapelketa irabazi gabe».

Etenik gabeko garapena izan da Indurainen profesional karrera. Presarik gabe, garaipenaren garaia berez etorri arte ez du bere burua behartu nafarrak. «Gorakada mantendu egin behar da. Hasten zarenetik, Tourra irabaztea izaten da ametsa. Baina ametsak beti errealitatea baino ederragoak dira. Gero, hortxe egon zaitezkeela ikusten duzu, gero eta hurbilago». Oraingoan, hurbildu baino bete betean asmatu du Indurainek.

Iaz Tourrean hamargarren egin zuen Indurain eta gaur Parisen mailot horiarekin sartuko den Indurainen arteko desberdintasunak argi ikusten ditu Atarrabiakoak. «Gakoa progresioa da, eta guztiak eragiten du horretan. Indarra, esperientzia... Aurreko urtean baino Indurain indartsuagoa eta esperientzia handiagokoa naizela esan daiteke, baina karrerako giltzak asko izan dira».

Aurreneko egunetako abiadura bizia, Lemond eta Breukinken ihesaldia, PDMren erretiroa, beroa... Kontu asko aztertu behar dira Indurainen garaipena azaltzeko, baina Alpe d'Huezen eman zuen nafarrak azken kolpea, behin-betikoa.

«Bugnok ez du karrera hausten saiatzeko nahiko indar izan»

MACON

Gianni Bugno izan da Tourrean Indurainen mailaraino hurbildu den bakarra. Atarrabiakoaren etsairik arriskutsuena izan da mailot horia jantzi zuenetik, baina ez du karrera hausteko behar besteko indarrik erakutsi. Etsi egin behar izan du italiarrak. Indurainen iritziz, «Bugnok oso lan ona egin du, baina prestaketa oso luzea egin du, eta horrek kalte egin dio».

Tourra prestatzeko Giroa Vuelta baino hobea dela esan ohi da, baina kasu honetan alderantziz gertatu da. «Bugnok Giroan sasoi puntu gorena lortu zuen, eta Tourra amaitu arte horri eusten oso zaila da; denbora gehiegi. Ez dago beherakadarik izateko aukerarik, gero ezinezkoa bait da berriz ere hain tarte txikian maila gorenera itzultzea».

Vuelta irabaztea zen Indurainen helburua, eta gogor ekin zion, barrenak hustu arte. «Topera korritu nuen Vuelta, baina gero tartea izan nuen beherakada jasan eta berriz sasoi betean izateko, Tourra hasterako».

Indurain Txapeldun

GAKOAK

Erregulartasuna

❒ Indurainek ez du egun bakar batean ere hutsegin. Erlojupekoetan maila gorena erakutsi du, mendian inor ez da nafarra atzera uzteko gai izan, eta ordekan korredore fina dena begibistan utzi du.

Lemonden beherakada

❒ Tourra hasi aurretik Lemond faborito argia iragarri zen. Azken bi urteetako irabazleak aurreneko etapan bi minutu pasako aldea ere atera zion, baina mendian pott egin du. Estatubatuarra sasoi betean egonda, zail izango zukeen garaipena nafarrak.

Ekonomia

❒ Alferrikako ahaleginik ez du egin Indurainek. Val Louronen mailot horia jantzi zuenetik, etsai arriskutsuenei eutsi besterik ez du egin Banestokoak, gorputza gehiegi behartu gabe. Estrategia onena aukeratu du garaipena ziurtatzeko, gehiegikeriak bazterrera utzita. Kritika ugari jaso ditu sarri ezkutuan ibili delako, baina inoiz ez da aztoratu.

Banesto

❒ Lidergoa karreran irabazi behar izan du Indurainek, baina Etxabarrik bere alde apostu egin duenetik Banestok ezin hobe babestu du Atarrabiakoa. Kontrola erabatekoa izan da, gainerantzekoek irabazteko aukerarik ez dutela erakusteraino.

Jean François Bernard

❒ Delgado eta Indurainentzat lan egitera etorri da Bernard frantziarra Tourrera, eta gregario finena azaldu da nafarrarentzat. Alpeetan leher egin arte aritu da haren mesederako, neurrigabeko umiltasuna erakutsiz.

Bugno zaintzea

❒ Karrera aurrera joan ahala argi ikusi du Indurainek Gianni Bugno zela etsai arriskutsuena, eta italiarraren gurpilari jarraitu dio. Alpe d'Huezen ondo eutsi zion, Bernarden laguntzarekin, eta Gatoradekoak etsi egin behar izan du.

Klasea

❒ Txirrindulari bezala klase izugarria erakusteaz gain, ondo ikusia dago Indurain nazioarteko tropelean. Inoiz hitz gogorrik bota gabe, beti umil, behar izan duenean Banestotik kanpo ere laguntza topatu du. Etsaiekin ere jakituria handiz jokatu du, Alpe d'Huezen Bugnori etapa irabazteko eragozpenik jarri gabe, esaterako.

Indurainek zazpigarrenean ondo landutako Tourra irabaziko du

Delgadoren itzalpetik irtetea lortu eta jaun eta jabe agertu da

MACON

Miguel Indurainek gorakada izugarria egin du Frantziako Itzulian, iaz arrasto onetik zihoala erakutsi eta gero. Zazpigarren Tourra da aurtengoa Atarrabiakoarentzat, eta 'La Grande Boucle' irabazteko behar den prestaketa eta heldutasuna apurka jaso baditu ere, aurreneko urteetan ez zirudien hain ondo moldatzeko aukerarik izango zuenik. Estraineko Tourra 1985ean egin zuen Miguel Indurainek, eta aurreneko astean erretiratu egin zen. Debut txarra ez zuen hurrengo urtean zuzendu, berriz ere bertan behera utzi bait zuen karrera, atsekabeturik. 1987an lortu zuen aurrenekoz Frantziako Itzulia amaitzea, baina 97. postuan sailkatu zen, gauza handirik erakutsi gabe. Klasea igartzen zitzaion, baina mendian trakets, ez zirudien Tourra irabazteko moduko korredorea.

Etxabarrik argi ikusi zuen Indurainen balioa, eta Banestoko zuzendariak —orduan oraindik Reynolds zena— mimo handiz landu du txapeldunaren karrera, gehiegi behartu gabe inoiz. 1988an 47. postuan bukatu zuen Tourra Indurainek, orduan ere gehiagi nabarmendu gabe. Delgadori laguntzen zion bitartean —Tourra irabazi zuen—, aurrerago haren lekukoa hartzeko prestatzen ari zen ordea nafarra.

Garapen handia agertu zuen 1989an, eta Pirinioetan etapa garaipena lortzeaz gain hamazazpigarren posturaino igo zen sailkapen orokorrean. Alpeetan izan zituen arazo handienak. Eztanda ordea 1990ean egin zuen. Delgadorentzat lan eskergaitza egin zuen iaz Indurainek —aurten Bernardek nafarrarentzat egin duenaren parekoa—, eta hamargarren postuan amaitu zuen, etapa bat irabazi eta gero.

Gaur Pariseko Perc des Princesen amaituko den Tourra, mailot horia jantzita sartuko den Indurainentzat zazpigarrena izango da. Aurten ere etapa garaipena lortu du, Aleçoneko erlojupeko luzean—, baina aurrekoetan ez bezala Delgadoren itzalpetik kanpo, merezitako garaipena eskuratuko du. Atarrabiakoaren umiltasunak behar baino gehiago atzeratu du agian Tourreko garaipena, baina bide luzea agertzen zaio aurrean 27 urteko mozkoteari. Luzea eta emankorra, ez bait du gehiago gregario lana egin beharko Tourrean.



Indurainek mendian oso atzera utzi du Lemond.

Indurainen Tourrak

1985	Erretiratua
1986	Erretiratua
1987	97. postua
1988	47. postua
1989	17. postua eta etapa
1990	10. postua eta etapa
1991	Irabazlea eta bi etapa

Indurain egunez egun

Etapa

	Postua	Irabazlea	Tartea	Liderra
P.		Marie	0.09	Marie (-0.09)
1.	77	Abdonjaparov	1.44	
		Ariostea	1.05	Sorensen (-2.30)
2.	57	De Wilde	0.00	Sorensen (-2.30)
3.	98	Abdonjaparov	0.00	Sorensen (-2.30)
4.	49	Nijdam	0.13	Sorensen (-2.30)
5.	46	Marie	1.54	Marie (-3.32)
6.	75	Van Poppel	0.00	Marie (-3.32)
7.	1	Indurain	—	Lemond (-2.17)
8.	66	Ribeiro	0.53	Lemond (-2.17)
9.	74	Anderson	0.06	Lemond (-2.17)
10.	52	Mottet	0.00	Lemond (-2.17)
11.	7	Mottet	6.49	Leblanc (-4.44)
12.	2	Chiappucci	0.01	Indurain
13.	31	Cenghialta	1.36	Indurain
14.	42	Argentin	1.53	Indurain
15.	31	Lietti	0.28	Indurain
16.	2	Bugno	0.01	Indurain
17.	11	Claveyrolat	0.30	Indurain
18.	64	Konishev	1.50	Indurain
19.	61	Ekimov	0.07	Indurain
20.	1	Indurain	—	Indurain
21.				

Orokorra

	Indurain	Bugno	Lemond	Chiapp.	Mottet	Fignon	Delgado
P.	7	+0.09	-0.06	+0.06	+0.07	+0.13	+0.08
1.		+0.09	-2.06	+0.06	+0.07	+0.13	+0.08
	51	+0.03	-2.20	+0.10	+0.16	-0.44	+0.08
2.	50	+0.03	-2.20	+0.10	+0.16	-0.44	+0.08
3.	47	+0.03	-2.20	+0.10	+0.16	-0.44	+0.08
4.	49	+0.03	-2.25	+0.01	+0.16	-0.44	+0.08
5.	48	+0.03	-2.25	+0.01	+0.16	-0.44	+0.08
6.	48	+0.03	-2.25	+0.01	+0.16	-0.44	+0.08
7.	4	+1.34	-2.17	+4.01	+6.17	+2.55	+2.13
8.	4	+1.34	-2.17	+4.01	+6.17	+2.55	+2.13
9.	4	+1.34	-2.17	+4.01	+6.17	+2.55	+2.13
10.	3	+1.34	-2.17	+4.01	+5.57	+2.55	+2.13
11.	5	+1.42	-2.09	+4.07	-0.56	+3.07	+2.21
12.	1	+3.10	+5.08	+4.06	+3.00	+5.52	+16.30
13.	1	+3.10	+5.08	+4.06	+3.00	+5.52	+16.30
14.	1	+3.10	+5.08	+4.06	+3.00	+5.52	+16.30
15.	1	+3.10	+4.42	+4.06	+3.00	+5.52	+16.30
16.	1	+3.09	+6.39	+4.48	+4.57	+7.03	+17.14
17.	1	+3.09	+14.01	+4.48	+4.57	+7.15	+17.14
18.	1	+3.09	+12.25	+4.48	+4.57	+7.15	+17.14
19.	1	+3.09	+12.25	+4.48	+4.57	+7.15	+17.14
20.	1	+3.36	+13.13	+5.53	+7.37	+11.27	+20.10
21.							

HITZEZ HITZ

"Lortu dudan aldearekin, nire etsai asko bazterrera geratu dira. Sasoirik onenean nago, eta mendian eskalatzaileek ez didate lau minutu kenduko.

Greg Lemond, Dijon

"Tourra amaitu arte edozer gerta daiteke, baina dagoeneko Lemondek ez du zereginik eta Indurain lider doa indartsuena dela erakutsi duelako. Txapeldunen neurria eta ziurtasuna erakutsi ditu.

Claudio Chiappucci, Val Louron

"Indurainek ez du Tourrean sekula mailot horiaren pisua eraman beharrik izan, eta zail da igartzen nola erantzungo duen. Baina karreran erakutsi duen jarrera txapeldun handiarena izan da.

Bernard Hinault, Val Louron

"Indurainek Tourra ia irabazia du, baina karreran sarri profesionala baino amateurra dirudi, tropelaren atzekaldean; eta hori arriskutsua da.

Cyrille Guimard, Ales

"Indurainek ezin du gehiago ezkutatu. Ez dut uste nafarrak Tourra irabazteko modurik izango duenik, eta orain liderra izan arren, Bugnori aukera handiagoak ematen dizkiot.

Greg Lemond, Ales

"Lemondek Indurainen korritzeko modua kritikatu du, baina berak ez luke ahaztu behar azken bi Tourrak antzerako taktika erabiliz irabazi dituela.

Bernard Hinault, Gap

"Indurainek Alpe d'Huezen egin duena, izugarrizko erakustaldia izan da. Gaur ikusitakoaren ondoren, nor ausartuko da Banestoko korredoreari erasotzen?

Eddy Merckx, Alpe d'Huez

}Indurain sasoi ikaragarrian dago, gainerantzeko korredoreak baino maila goragoan. Ez du Tourra galtzeko inolako arriskurik.

Gianni Bugno, Aix les Bains

}Tourra ahal duenak irabazten du, indartsuena dena erakusten duenak, eta ez gehien prestatu denak.

Miguel Indurain, Aix les Bains

Tourra 91

Indurain

Indurainek lidergoari eutsi eta gainerantzekoek etsi egin dute

MACON

Bakarkako eta taldekako kirolen arteko muga egiten du txirrindularitzak. Gaur amaituko den Tourra ikusi besterik ez dago, horretaz jabetzeko. Indurain izan da indartsuena, Pariseko podiumean maila gorenera igoko den korredorea, baina horretarako erabakiorra izan da Banesto taldearen lana. Agian behar baino beranduago, baina Etxabarriren aginduetara Tourra irabazteko aukera izan du Indurainek. Eta estrainekoa balekoa izan da Atarrabiakoarentzat, klase eta indar erakustaldia eskainiz. Banestoko korredore guztiek leher egin arte babestu dute ordea liderra, eta garaipenerako bidea izugarri erraztu diote.

Tourrean Banestoko liderra berak izan behar zuela frogatu beharra izan du ordea Indurainek, karreran. Azken urteetan Delgadoren itzalpean ibili izan da nafarra Frantziako Itzulian. Eta aurten ere horren arriskua begibistakoa zen, Aleçoneko erlojupeko luzean Indurainek eztanda egin ondoren ere. 73 kilometroko erlojupekoa irabazi eta sailkapen orokorreko laugarren posturaino igo arren, Delgado hamabigarren postuan agertzen zen, eta Pirinioak eta Alpeak oraindik pasatzeke, Indurain-Delgado tandema buruan biraka zebilkion Etxabarriri. Bernard bostgarren postuan izan arren, argi zegoen frantziarrak ez zuela lidergoa eskuratzeko aukerarik, beste biek nabarmen hutsegin ezean.

Piriniotan irauli zuen ordura arteko harremana Indurainek. Eta Delgadoren gregario finena izandakoa segoviarraren lider bihurtu zen Val Louronen. Chiappucci lagun, ihesaldi bikaina egin eta Tourreko mailot horia jantzi zuen Atarrabiakoak, aspaldiko ametsa betez.

Parisera garaile sartzea urrun ikusten zuen oraindik, baina parorama ez zen txarra, Banestoko gizonik indartsuena zena erakutsia bait zuen. Eta argi zegoen Delgadok, Bernardek eta konpainiak bere mesederako lan egin beharko zutela. Bide erdia baino gehiago behintzat egina zuen.

Handik aurrera, eustea tokatu zaio Induraini. Eta Banestori. Alpeetan batez ere. Kontrol izugarria egin dute Etxabarriren korredoreek, erabatekoa, eta Indurain etsairik gabe geratu da. Mailot horia jantzi zuenetik larrialdi gutxi izan ditu liderrak, eta aurreneko saioak ito ondoren, Indurainek aurkariek hura aurreneko postutik botatzeko beste indar ez dutela onartu beharra izan dute. Indurainek eutsi, eta gainerantzekoek etsi egin dute, Tourreko Jaunaren aurrean.

ERRELEBOA hartu dio Indurainek

Tour'89 eta Tour'91ko irabazleari. Aurten ere Greg Lemond faborito nagusia azaltzen zen irteeran, baina estatubatuarrak pott egin du mendian eta oso atzera geratu da sailkapen orokorrean. 64ko belaunaldiak aukera gutxi emango dizkio aurrerantzean Lemond, Delgado, Fignon eta abarrei. Indurain Tourreko Jauna bihurtu da, eta Gianni Bugno izan da nafarrari gehien hurbildu zaiona. Lastima Breukinkek erretiratu beharra izan zuela.

Txapeldun

Ohorezko koadroa

Sailkapen orokorra

1. Indurain (Banesto)
2. Bugno (Gatorade)
3. Chiappucci (Carrera)

Mendiko Saria

1. Chiappucci (Carrera)
2. Claveyrolat (RMO)
3. Luc Leblanc (Castorama)

Erregularitasuna

1. Abdoujaparov (Carrera)
2. Jalabert (Toshiba)
3. Ludwing (Panasonic)

Korrikalari gazteena

1. Mejias (Postobon)
2. De Vriest (Bucklee)
3. Krieger (Helvetia)

Taldekako Sailkapena

1. Banesto
2. Castorade
3. R.M.O.

Dortsalak eta liderrak

Greg Lemond (1), Claudio Chiappucci (11), Eric Breukink (31), Marino Lejarreta (41), Gianni Bugno (51), Laurent Fignon (91), Charly Mottet (131) eta Pedro Delgado (31). Dortsalek argi eta garbi erakusten dute talde indartsuenetako 'liderrak' zein ziren Tourra irten aurretik. Miguel Indurain (35) Frantziako Itzulia irabazteko pronostiko guztietan agertzen zen, aukera gehiago ala gutxiagorekin, baina azken urteetan bezalatsu, Etxabarrik Delgadoren aldeko apostua egin zuen, ordura arte 'Tour-gizon' ona dela erakutsi bait zuen segoviarrak. Urte osoa gainera horretarako prestatzen eman zuen Pericok. Etxabarrik Tourrerako bi lider zituela esana zuen, hala ere.

Karreran 35 dortsala mailot hori bilakatu du Indurainek, apaltasunez baina Tourreko korredore indartsuena dela erakutsiz. Eta Delgadok nafarrarentzat lan egin behar izan duen bitartean —azken urteetan pilatutako 'zorrak' ordaintzeko—, gainerantzekoek etsi egin behar izn dute Indurainen ziurtasunak makurrerazita.





Claudio Chiappucci italiarra izan da Miguel Indurainen «lagun» handiena. Jaca eta Louron arteko etapan bera izan zen Indurainen mesedetan karrera hautsi zuena.

Gianni Bugno izan da azken ordurarte Miguel Indurainen arerio nagusia. Gatoradekoak bakarrik eutsi zion nafarrari Alpe D'Huezeko maldetan.

FUTBOLA

Kevin Richardsonek Aston Vilan jokatuko Atkinsonekin batera

Horrela Luis Garcia mexicarrak Realeko ateak zabalik ditu

Toshackek azkenean lortu du. Kevin Richardsonek ez du datorren urtean Realean jokatuko. Donostiarrek Aston Vilarekin akordioa lortu dute, eta erdilariak Dalian Atkinsonekin jokatuko du datorren urtean. Richardsonen iragarritako salmenta honek, Luis Garciari ateak zabaldu dizkio.

MIKEL ARRIETA / **DONOSTIA**

Richardsonek ez zuen gainontzekoekin entrenatu atzo. Honela mintzatzen zen Toshack entrenamendu ostean, «Richardson ukiturik dago, gainera jadanik Aston Vilarekin akordioa lortu dugu. Kevinek ez du datorren urtean gurekin jokatuko, 75-80 milioiengatik traspasatu dugu». Horrela, azken hilabeteetan zurrumurru izan dena, egi bilakatu da.

Kevin Richardson gaur bertan abiatuko da Britainia Handira, eta bihar goizean azterketa medikua jasan ondoren, bihar arratsaldean edo astearte goizean sinatuko du Ron Atkinsonek zuzentzen duen Aston Vila taldearekin. Aurtengo denboraldian Richardsonek bost egun besterik ez ditu egin Realean.

GARCIAK ATEAK ZABALIK

Kevin Richardsonen albistearen harira, Luis Garciaren fitxaketaren egoera aipatu zuen Toshackek atzoko entrenamenduaren ostean. «Luis Garciaren atzetik gabiltza, eta horrek kale egiten baldin badu ez dugu beste izenik». Toshackek gertutik jarraitu du mexicarra azken hilabetetan. Lehengo urtean Real Madridekin Mexicotik egin zuen itzulian gertutik ikusi ahal izan zuen aurrelaria. «Azken urte honetan «eztanda» egin du, bera izan da goleatzaile nagusia».

Atkinson eta Richardsonek elkarrekin jokatuko dute Aston Vilan.

John Benjamin Toshackek sakonki aztertu zuen momentu honetako egoera. Hasiera batean 33 milioiren truke eskuratzeko moduan egongo zirela uste zuten donostiarrek, «baina badirudi ez dela horrela». Universidad Autonoma taldearen jarrera onartu beharra dagoela esan zuen atzo galesak, «klausula baldin badu, Pumas taldeak bete dadin eskatzeko eskubidea du».

Toshackek ordea ez du etsi nahi. Egoera ondo ezagutzen du, eta oraindik ere Luis Garcia fitxatzeko asmotan dabil. Pumas taldeak 200 milioiko kopurua ezarri du, Realak berriz 35 eskaini zituen hasiera batean. Tosahackek, ordea, gauza interesgarriak esan zituen atzoko prentsaurrekoan, «jokalari honekin arriskatu dezakegula uste dut. Hiru edo lau urtetan diru hori berreskuratzeko aukera izan dezakegu». Hasieran eskaintzen zituen 33 milioiak baino dexente gehiago ordaintzeko prest dago momentu honetan Reala.

Indurainen omenezko ekitaldiek Osasunaren aurkezpena atzeratu dute

A.B. / **IRUÑEA**

Osasunaren aurkezpena atzeratzea erabaki zuten atzo talde gorritxoen mandatariek, eta astelehenean izan beharrean, astearte edo asteazkenean aurkeztuko da taldea zaletuen aurrean. Atzerapenaren zioa, nola ez, Miguel Induraini egingo dizkioten harrera ofizialekin topo ez egitea da. Astelehenean, beraz, gorritik horira igaroko da Iruñea eta Nafarroa osoa.

Villanuako kontzentrazioa utzi eta asteleheneko arratsaldeko zazpietarako deitu zituzten lehendabiziko taldearen partaide guztiak, zaletuen aurrean ohizkoa den aurkezpenerako. Bertan, aurpegi berriak ezagutu eta urteroko helburu eta plangintzak zehazteaz gain, hasiera ematen zaio ofizialki denboraldiari, jokalariek jadanik hogei bat egun saioetan eman badute ere.

Hala ere, Zabaltzak prestatu egitarauan ez omen zegoen aurrikusita Atarrabiakoak Frantzia aldean egin duen lan bikaina, eta bi ekitaldiak elkarrekin egitea baztertu dute azkenean. Izan ere, Atarrabiako Udalak harrera ofiziala egingo dio txirrindulariari astelehenean bertan, eta asteazkenean, Diputazioaren ohoreak jasotzeko aukera izango du. Hau dela kausa, eta kontutan hartuta Iruñean dagoen ikusmin eta giroa Banestoko txirrindulariarekin, astearte edo asteazkenean izango da gorritxoen aurkezpena.

Bestalde, Martin Gonzalezen lesioa hogei egunetakoa baino ez da izango, taldeko sendagileek adierazi zutenez. Hasiera batean hilabetekoa izango zela iragarri bazen ere, hiru aste izango du eskumuturra eskaiolaz babesturik erdilari madrildarrak,



Fermin Ezkurra.

baina heldu den astean entrenamenduetan parte hartu ahal izango du seguruenik. Ez ditu jokatuko, ordea, Osasunak iragarrita dauzkan datozen partiduak.

ARRAUNA

Arraun Lagunakek estropada handia jokatu zuen.

Arraun Lagunak nagusitu zen Getxoko lehen ihardunaldian

RAMON BASALDUA / **GETXO**

Donostiako Arraun Lagunakek lortu zuen atzo denborarik onena Abran jokatutako Getxoko Banderaren lehen ihardunaldian. Segundu bakar bat atera zion Lugañene traineruak Juan Mari Lujanbiok zuzentzen duen Errekari eta bi besterik ez, atzo Claudio Etxebarriak zuzendu zuen Orioko San Nikolas traineruari. Denbora hauek ikusirik, gaur, arratsaldeko seietatik aurrera jokatuko den estropadan erabakiko da Getxoko Banderaren irabazlea.

Lutxanako Ederra traineruak ez zuen inolako zailtasunik izan lehen txandan nagusitzeko, berarekin batera ekin zioten Portugaleteri, Isuntzari, Raspasi eta Deustuko bilbotarra ontziari. Garaipena lortzeaz gain, gaur bigarren txandan aritzeko eskubidea lortu dute Iñaki Aginagak zuzentzen dituen mutilek. Jose Luis Kortak entrenatzen duen Oriok ere ez zuen areriorik izan bigarren txandan eta hasiera hasieratik hartu zion aurrea, Santurtzi, Algorta, Hondarribia eta Arkote-Bermeori. Azpimarratzekoa benetan, Pedro Mari Abandoren mutilek egindako estropada txarra.

Hirugarren txanda izan zen ikusgarriena zalantzarik gabe. Pasai Donibane zen faboritoa baina Donostiako Arraun Lagunakek, edonor menperatzeko gai dela frogatu zuen atzo. Lugañene eta Errekak sekulako lehia izan zuten lehen ziabogatik. Lehen bi ziabogetan donostiarrak nagusitu ziren arren, Errekak aurrea hartu zuen azken luzean.

Dena den Asier Lopezen mutilek ez zuten amore eman eta segundu bateko aldea atera zioten Errekari helmugan.

SASKIBALOIA

Gipuzkoako saskibaloi taldeek bat egin dute Askatuakekin

DONOSTIA

Bigarren mailan diharduten Gipuzkoako saskibaloi taldeek bat egin dute Donostiako Askatuak taldearekin. Arrasate, Goierri, Andraitz, Iraurgi, Irun, Atletico San Sebastian, Ordizia, Juven eta Easo taldeek ezinbestekoa ikusi dute Askatuak taldeak lehen mailari eustea.

Mikel Galdona-k, Askatuakeko gerenteak, babes proposamena egin zion Gipuzkoako Kutxari ostiralean. Donostiako taldea, arazo ekonomikoak medio, kategoria galtzeko zorian dago. Bazkideen proposamenez, gida batzordea azken deia egin dio Gipuzkoako Kutxari.

Iñaki Almandozek zuzentzen duen taldea ez dago bakarrik. Gipuzkoako taldeek ezinbestekoa ikusten dute Askatuak taldea laguntzea, eta horregatik bat egin dute donostiarrek Kutxari eta instituzioei egin dieten eskaerarekin.

EASO TALDEAREN JARRERA

Donostiako Easo Muebles Martin taldearen jarrera elkartasun honen lekuko da. Donostiarrek Askatuakekin batera B mailan jokatzeko aukera zuten lehen, lehengo urtean bigarren mailako txapeldun izan bait ziren. Arazo ekonomikoak medio, aukera horri uko egin zioten. Garai hartan kaleratutako idatzian, zergatiak azaltzeaz gain, Askatuak taldea laguntzea ezinbestekoa zela azaldu zuten Muebles Martin taldeko kideek.

Momentu honetan, ordea, gauzak guztiz okertu dira. Muebles Martin taldeak jadanik uko egin zion mailari, eta orain Askatuak egoera berean dago. Gakoa Gipuzkoako Kutxak du orain. Donostiako taldeak konfidantza handia du Kutxarengan, eta abuztuaren 5a baino lehen, Askatuakek mailari eusteko duen azken aukera, baiezko erantzuna emango dutelako esperantza dute.

ZALDI LASTERKETAK

Klasikorik onenak lehian ikusteko aukera izango dugu

PELLO LORAN / **DONOSTIA**

Denboraldiko bostgarren ihardunaldiak, Gipuzkoako Foru Diputazio saria izango du erakargarririk nagusiena. Bertan, udaberri osoan klasikorik onenak bezala azaldu zaizkigunak izango ditugu, ostegunean lesionatu zen «Monet» ezik.

Azken urteotan, ezusteko irabazlerik ere izan dugu, Urrezko Kopa prestatzea bait zen punta puntakoen helburu nagusia. Gaurkoan berriz, nahiz udarako sari nagusira sasoi betean ailegatzeko asmoak izan, irabazlearentzat prestatuta dauden bost milioiak eskuratzea izango dute lehenengo betebeharra.

Hamahiru zaldi eta behor bakarra izango ditugu irteeran egoteko asmoz, baina pronostikoetan hiru dira txapeldun izateko aukera dutenak.

«Servando» da gehien gustatzen zaiguna. Bere arduradunek patxada haundiz programatu dute eta horrela lau lasterketa besterik ez ditu egin. Denboraldia aurrera joan ahala, bere arrendimenduak goruntz egin du eta Donostia fresko iristeak bere alde jokatuko du. Hipodromoa ez ezagutzea izango da gakoa baina bere kalitatea ikusita, beregan konfidantza osoa dugu.

FON RULER GARAIPENA ERREPIKATZERA

«Sur-ek» berriz denboraldi gogorra izan du Madrilen, bere lasterketa planteiatzeko erak, desgaste haundia suposatzen bait du. Hori dela eta, hilabeteko atsedena eman nahi izan diote eta horrek behar bada sasoi bete betean ez egotea suposa dezake. Donostian behin aritu da bakarrik eta ez zuen emaitza onik lortu. Entrenamenduetan ondo moldatu dela dirudi eta beste aukera bat eman beharko.

«Fon Ruler» jaun eta jabe izan zen iaz hemen korritutako saririk nagusienetan eta aurten errepikatzeko prest etorri zaigu. Lesio batek lehiaketatik kanpo utzi zuen zortzi hilabetez eta ederki errekuperatu dela erakutsi digu azken lasterketetan. Distantzia ez du ondo mederatzen baina hipodromoa arrakastaz bete dezake.

Gure pronostikoak

1. Pal Pueblo (1) Alianza (4)
2. Belen (3) Galerna (5)
3. La Pelisier (8) Stavisky (2)
4. New Jersey (6) Drundy (2)
5. Servando (9) Sur (12)
6. Hamlet (3) Traderhorn (8)

RALLYA

Retegik ez du Galarzaren aurka jokatuko «Virgen Blanca» ferian

Psikologikoki ez dago txapeldunaren aurka jokatzeko moduan

Azkenean ezin izan dute. Enpresariek behin eta berriz proposatu diote Julian Retegiri Gasteizko ferian Galarzaren aurka jokatzea, baina atzera egin du. Hala ere, goi mailako lau bikoteen arteko txapelketa ikusi ahal izango dugu. Faboritoak, Eugi eta Errandonea.

GASTEIZ

Sanferminetako Galarza eta Arretxeren arteko eskuz banakako partiduaren ostean, Retegi eta Galarzaren arteko partiduarekin amesten zuten gasteiztarrek. Enpresariak ere horretan ibili dira azken egunetan, baina Erasungoa ez dago txapeldunaren aurka jokatzeko moduan. Psikologikoki ez omen dago behar bezala prestatuta.

«Virgen Blanca Txapelketa» ez da hankamotz geratu. Antolatzaileek goi mailako lau bikote elkartu dituzte. Pilotari gazteak nagusitzen dira batez ere: Vergara-Tolosa, Eugi-Errandonea, Etxaniz-Zezeaga eta Salaberria-Arretxe. Orain arte ikusitakoaren arabera, San Fermin Txapelketan irabazle gertatu ziren Patxi Eugi eta Inaxio Errandonea dira faboritoak.

SALABERRIA ETA ARRETXE

Fernando Arretxek ez du txapelketa honetan eskuz banakako partidurik jokatuko. Luzaideko pilotariak Galarza txapelduna gainditzeko bi saio egin ditu, baina ezin izan du. Gasteizen Binakako Txapelketan jokatuko du. Aurrelari gisa, lehengo urteko Eskuz Binakako Txapelketan Ladis Galarzaren kide izan zen Jose Julian Salaberria jarri diote Luzaidekoari.



Salaberria eta Arretxek bikotea osatuko dute Gasteizen. CARLOS VILLAGRAN

Txapelketatik kanpo beste hainbat partidu izango dira. Guztira zortzi jaialdi programatu dituzte enpresariek. Txapelketako koadrorik kanpo, Retegi II, Unanue, Ladutxe, Maiz II, Errasti, Muntion, Santi... jokatuko dute. Añorgako pilotariari dagokionez, oraindik ez dago guztiz osatuta

Maurice Abeberri zenaren omenez eskulturak Larrunen

I.E. / **BAIONA**

Larrun mendian eskultura multzo bat, Pantxoa Saint Estebenek zizelkatuak, estreinatuko da datorren azaroaren 3an. Bertan 'Maurice Abeberri omendua' elkarteak gogorarazi nahi du 1988ko otsailaren 21ean hil zen Frantziako Pilota Federakundearen lehendakaria.

Xedea aurkezteko, Baionan, Pilotako Federakundearen egoitzan bilduak ziren Dominique Boutineau lehendakaria, Pantxoa Saint Esteben Azkaineko eskultorea eta Txomin Hegi, Euskal Kultur Erakundeko zuzendaria.

Saint Estebenek bere proiektua «Larrun mendiari kalkatzen» saiatzen dela erran zuen, bere sendikortasun handiarekin. Heriotzaren tragediaren atzekaldean «min batetarik gozotasunera» joan nahi dela bere lana agertu zuen.

Hegik azaldu zuen EKEk karia horretara liburuxka bat plazaratuko duela «xinplea baina kalitatezkoa». Boutineauk pilotarien esker ona agertu nahi zutela argitu zuen. Era berean, Baionan 40 urtez abokatu

Pantxoa Saint Esteben.

egon bait zen Abeberri, Etxegarai abokatuak bere lankideek parte hartuko zutela harpidetzan ziurtatu zuen. Daniel Poulou Urruñako auzapezak herriak Larrun mendiaren txoko horren erabilpena finkatuko zuela erran zuen.

Dirulaguntzak hona bidali behar dira: 'M.Abeberri omendua' elkartea - Trinkete Modernoa - BP 816 - 64108 BAIONA Cedex.

Karteldegia

Gaurko partiduak

LUZAIDE. 18.00. Iribarren - Mendia / Telletxea - Urra. Salaberria - Galarza III / Retegi II - Arretxe.

ARITZBATALDE. 16.30. Etxaniz - Maiz II / Ariznabarreta - Aldazabal II. Bergara II - Zezeaga / Alustiza - Errandonea. Murga - Astarloa / Gabilondo - Andueza VI.

MARKINA. 17.00. Mayo - Loide II / Aperribay - Iturralde. Arrasate II - Kareaga / Kastaños - Retolaza. Urizar II - Enrike / Areitio - Goya II.

URDULIZ. 11.30. Bizkaia Kopa: Garma - Otxandiano / Landea - Maruri. Alustiza - Goldarazena / Sanjurjo - Torre.

Astearteko partiduak

ANOETA. 22.45. Tolosa III - Retegi IV / Etxaniz - Iturza. Eugi - Galarza III / Bergara II - Arretxe.

Asteazkeneko partiduak

AZPEITIA. 23.00. Urkia - Auzmendi / Ezkurra - Ulzurrun. Matxin - Mujika II / Elizalde - Zubeldia. Arregi - Saldias / Altuna - Eizagirre.

LABURREAN

ARRATEK bihar hasiko ditu entrenamenduak

Xerox Arrate eskubaloi taldeak bihar hasiko ditu 1991-92 denboraldirako entrenamenduak. Eibarko taldeak Ipurua kiroldegian egingo ditu lehen saioak, eta gero, abuztuaren 2tik 10era arte, Araneko bailaran egingo du konzentrazioa. Jordi Riverak zuzentzen duen taldeak berrikuntza ugari egin ditu. Denboraldi honetarako helburuak ordea lehengo urtekoak izango dira, lehen fasea goiko taldean amaitu alegia ●

ARGENTINArrek Europarako bidea aurkitu dute

Amerika Kopak eragin handia izan du Argentinako futbolean. Chilen garaipena eskuratu zuen taldetik lau jokalarik Europako taldeekin fitxatu dute azken hamar egunetan. Fitxaketarik sonatuena Leonardo Rodriguezena izan da ezbairik gabe. Argentinako taldeko erdilariak Marseilleko Olympique taldearekin fitxatu du. Dario Franco (Zaragoza), Goycoechea (Brest) eta Batistuta (Fiorentina) ere Europan jokatuko dute datorren urtean ●

REKARTE pozik dago Deportivoko fitxaketarekin

Lopez Rekarte arrasatearra pozik dago Deportivo de Coruña taldearekin egin duen fitxaketarekin. Reala eta Barcelonako jokalari ohiari, berriz ere Mujika, Uralde eta Boronaten aldamenean egoteak erakartzen dio batez ere. Bere ustez Barcelonan ez du aukerarik eduki duen guztia emateko, baina Deportivon emango duela espero du. Barcelonan egin dituen urteez ez du hitzegin nahi Rekartek ●

SERGI BRUGUERAk Donostian jokatuko du

Sergi Bruguera jokalari kataluniarra izango da Donostiako Tenis Txapelketako jokalari nagusia. Bruguerarekin batera, Perez Roldan izango da faborito nagusia. Azken fasea hamasei jokalarik jokatuko dute abuztuaren 12, 13 eta 14ean. Hauetarik hamar lehen mailakoak izango dira, lau aurrefasetik pasako dira eta azken biak gonbite bereziz hartuko dute parte. Antolatzaileek atzo azaldu zutenez, sariak bikoiztu dira ●

Europa Cantat Gasteizen

Gaur izango da Europa Cantaten azken eguna Gasteizen. JOSE SIMAL

Gasteizek Danimarkako Herning hiriari utziko dio gaur lekukoa

L.K.G. / **GASTEIZ**

Gaur bukatuko da Gasteizko XI Europa Cantat eta gaur izendatuko dute Herning (Danimarka) hurrengo Europa Cantateko egoitza. Hamar egunez, munduan diren puntako abesbatzak Gasteiza ekarri dituen festibalak azkeneko ekitaldiei ekingo die gaur goizeko 10etatik aurrera programatu diren zenbait ikuskarirekin.

Jesus Obrero eta San Miguel elizak eta Gasteizko Apeztegia izango dira goizeko 10etako kontzertuen eszenatoki. Araba Pabilioira abiatuko da interesgunea eguerdian, hamabost minutuko kantu bateratu batez. Amaiera ekitaldia Verdi konposagilearen 'Te Deum' obrari ekingo dion Espainiako Gazte Orkestra Nazionalari (JONDE) esker gauzatuko dute. Halffterren 'Dona Nobis Pacem', edo Marcel Corneloupek esan bezala, «bakerako kantu» batekin amaituko da XI Europa Cantat.

Azken kantu honen aurretik, Jose Angel Cuerda alkateak eta Marcel Corneloup Europa Cantateko lehendakariak mintzaldi bana egingo dute, eta Herning izendatuko dute 1994eko Europa Cantateko sede. Corneloupek atzo esan zuenez, «antolakuntza eta azpiegituren aldetik behar bezalako baldintzak betetzen dituen hiria» da Herning. Dirulaguntzak aurkitzen egon liteke arazo bakarra Corneloupen ustez, baina lortuko dituztelakoan dago.

Gasteizko festibalaren aurrekontuari dagokionez, «lanean ibili den kudeaketa taldea» azpimarratu zuen, arazorik ez dela egongo esplikatzerakoan.

Gasteizko Lehen Disko Azoka gaur izango da hotel batean

L.K.G. / **GASTEIZ**

Gasteiz Hotelean, goizeko 11etatik gaueko 9etara, Gasteizko I Diska Azoka egingo dute gaur, 'Happening Promocionesek' antolatuta. Azoka honetan, Espainia osoko dendetako mahaiak jarriko dituzte. Antolatzaileek diotenez, «ohizko dendetan eskuratzerik ez duten diskoak salgai egongo dira, hots, katalogotik kanpo dauden diskoak, aurreneko edizioak edo zuzenean grabaturikoak.

«Bereziki disko-biltzaileari zuzenduriko piezak» batetik, eta noiz behinkako erosleari begira bestetik, «eskaintza garrantzitsu batzuk» erakutsiko dituzte gaur Gasteizen, Donostian oraintsu Disko eta Compact Disc Azoka egin duten hauek.

Honez gainera, «dagoeneko entzuten ez dituzun diskoak saltzeko edo elkartrukatzeko aukera» izango da. Antolatzaileen ustetan, azpimarragarria da compact discen arloan geroz ta gehiago garatzen ari den «biltzailearentzako merkatua, eta honek azoka honetan aniztasun handia zein salneurri txikiak izango ditu».

Erakusketa arkeologiko ikusgarria paratu dute Orbaiztako arma olan

IRUÑEA

Orbaiztako arma olako tresnak eta Zacarias Pellicerren zurezko lanak egonen dira gaur ikusgai Orbaiztan bertako Udalak eta Nafarroako Gobernuak antolatu duten 'Campo Pirineo' programa kulturalaren barne. Antolatzaileek adierazi dutenez, ezpela zuraren balioak gora egin du eta Pirinioetako bailaratara turismo kulturala erakarri da helburua. Atzo zabaldu zen erakusketa arkeologikoan lan kanpamenduetan dabiltzan irakasleek arma olan aurkitu dituzten objetuak biltzen dira. Bereziki armak egiteko tresnak egonen dira ikusgai.

Horretaz gain, Zacarias Pellicerren 'Bizirik irauteko tresnak' bilduma egun osoan ikusteko aukera izanen dute haraino hurbiltzen direnek.

Gaur gauean hasiko da Gasteizko Nazioarteko Folklore Jaialdia

Mundu osoko zazpi taldek dantza eta musika hurbilduko dituzte

Kultur eskaintza gehien eman duen hilabeteari amaiera emango dio gaur gauean Gasteizen hasiko den Nazioarteko Folklore Jaialdiak. Tibet, Brasil, Ukrainia, Chile, Grecia, Jugoslavia eta Arabako ohiturazko dantza eta musikak azalduko dira asteazkenera arte.

LUIS KARLOS GARCIA / **GASTEIZ**

Herri askotako taldeak etorriko dira festibalera egunotan.

Euskal Herriko zenbait herritan azken egunotan ospatuz joan diren folklore jaialdien lekukoa hartuko du gaur Gasteizek. Gaur hasita eta uztailaren 31ra arte, gauero 10etatik aurrera, bost kontinenteetako aintzinako ohituraren erakustaldiak ikusi ahal izango dira. Beste urteetan bezala, urrutiko ekitaldiek Araba ordezkatzen duten ikuskariekin bat egingo dute. Aurten, Indarra Dantza Taldeari dagokio eta jaialdiaren azken egunean 'Aintzinatik Gaur Egunera' obra taularatuko du.

Hala ere, ikusgarritasun osoz hasiko da gaur gauean festibala, Tibeteko Opera taldearen eskutik. Txinako errepresentazio artistikoen adibide da obra hamahiru zatitan banatzen duen talde hau. Duela hogeitamar urte pasatxo lanean hasi zen Tibeteko Opera eta Gasteizera etorriko dira 130 artistarekin. Ikuskariaren estiloa musika eta dantzan oinarritzen da, eta zenbait kasutan istorioan gertatzen dena kontalari batek agertzen du.

Gaurko egitarauaren bigarren osagarria Brasiletik dator, 'Acaua da Serra' taldearen bitartez. 1986ko maiatzean sortu zen talde hau Brasileko ipar-mendebaldekoa da eta hogeitamalau dantzari eta musikarik osatzen dute. Poesia, musika, antzerki eta dantza herrikoiaren arteko arlo artistikoaren islada eskaintzen dute, ikuskaria zortzi zatitan banatuta.

UKRANIA, CHILE, GREZIA...

Bihar eta etzi Ukrania, Chile, Grezia eta Jugoslaviako taldeak arituko dira Foru Plazan. Azken egunerako, ia hogei urte dituen Indarra Dantza Taldearen ikuskaria programatuko dute antolatzaileek, taldeak estreineko aldiz eskainiko duena. «Deboraren poderioz belaunaldiz belaunaldi igorriz joan diren Euskal Herriko dantzak» agertuko dituen obra da. Indarra Euskal Arte Herrikoiaren Elkarteko sail guztiek hartuko dute parte asteazkeneko obran eta Dantza Taldeak 45 dantzariren lana hurbilduko digu.

Txillidari buruzko liburu bat auzitan

BILBO

Berak 600.000 pezeta (30.000 libera inguru) eskatzen bazituen ere, Bizkaiko Aurrezki Kutxak 140.000 besterik ez dizkio eman beharko Kosme Barañano idazleari 'La obra artistica de Eduardo Chillida' liburuaren egile eskubideen ordain moduan; horretaz gain, hala ere, beste 200.000 pezeta eman beharko dizkio, ordezkaritza eta ikerketa gastuak ordaintzeko. Jose Manuel Susperregi argazkilariari, berriz, 556.640 pezeta ordaindu beharko dizkio Bizkaiko Aurrezki Kutxak, liburuan agertzen diren argazkiengatik. Hala erabaki du Bilboko Auztegiko bostgarren sailak.

Liburuaren zuri-beltzeko edizioaren banaketa debekatu egin du Auzitegiak. Liburua 1988ko urtarrilaren 27an argitaratu zen, eta bertan Susperregik jatorriz koloretan eginiko 71 argazki agertzen ziren zuribeltzean, nahiz eta argazkilariak horrelakorik ez zuela nahi esan. Perituaren txostena ikusita, epaimahaiak erabaki du argazkilariari berak eskatzen zuen kopurua ordaindu behar zaiola, baina Barañanori ukatu egin dizkio egile eskubideengatik eskatzen zituen 600.000 pezetak.

TEATRO PRINCIPAL-ANTZOKI ZAHARRA

Gaur arratsaldeko 8-etan

PENTACION S.A..-k

aurkezten du

Rafael Alvarez "El Brujo"

"Lazarillo de Tormes"

Fernando Fernán Gómez-en bertsioa

Zuzendaritza: Rafael Alvarez y Juan Vladas

Iraupena: Ordu t'erdi inguru

Takilla orduak:
11'30-13'30 / 17'30-20'30
ANTZERKIDE tlfnoa. 48.11.55

Donostiako Udala
Ayuntamiento
de San Sebastián

KULTUR UDAL PATRONATUA
PATRONATO MUNICIPAL
DE CULTURA

Nobela haundien jatorrizko testuen kopia faltsuak saldu dira EEBBetan

Ernest Hemingway, Mark Twain eta abarren testuekin egin dute iruzurra

Collectors' Reprint argitaletxe iparramerikarrak liburu ospetsuen lehen edizioen faksimilak saltzen ditu jatorrizko testuak balira bezala eta honek iskanbila galanta sortu du EEBBetan.

IÑAKI BASTARRIKA / **DONOSTIA**

F. Scott Fitzgerald-en 'The Great Gatsby', Mark Twain-en 'The adventures of Huckleberry Finn', William Faulkner-en 'The Sound and the Fury' eta beste hogeitabost bat obra ospetsuren lehen edizioak 3.300 pezetan salgai jarri dituzte. First Edition Library izeneko serieak egundoko buruhausteak sortu ditu arkeologo, historialari, eta filologoen artean. Liburu hauek 1925, 1884 edota 1927n argitaratu ziren liburuekin erabateko antza dute, azalak berdinak dira, paperak konbinazio kimiko bera du eta formatoa dagokionez nekez bereiz daiteke faksimila lehen argitaraldikotik. Jatorrizko testuetan dauden akats tipografikoak ere bere horretan uzten dituzte eta baita jatorrizko salneurria ere. Salmentarako artifizio bikaina da azken batean, erosleak 'liburu zahar berriak' erosten ditu eta pozarren gainera.

ERNEST HEMINGWAYREN TESTUA

Orain egun batzuk Ernest Hemingwayren 'The Sun Also Rises' eta Sherwood Anderson-en 'Winesburg, Ohio' liburuen lehen edizioko ale bakoitzagatik miloi bat pezeta (50.000 libera) ordaindu zuten, noski jatorrizko testuak zirelakoan. Manhattanen 1987n sortutako Collectors' Reprint enpresak 1990ean miloi t'erdi dolar irabazi zuen, izan ere benetako profesionalak bait dira euren lanean.

Liburuen lehen argitaraldiak oso estimatzen dituzte kolekzionistek eta horregatik dute liburu hauek horrenbesteko arrakasta. 'Irakurlego aukeratuari' saltzen dizkiete liburu hauek, baina finean edonor izan daiteke irakurlego aukeratu horren partaide.

Zahiaz ogia egiteko era honek mugitu duen dirutzaz gain bada beste alderdi aipagarri bat: Jatorrizko testuen faksimil hauek errata guztiak berdin berdin ateratzen dituzte eta esate baterako Ernest Hemingwayren liburu bateko Catherine Barkley berriz ere Katherine Barclay irakur daiteke, horrelakoek sortzen dituzten hausi-mausiekin.

Francis Scott Fitzgerald eta Ernest Hemingway.

IRAGARKI MERKEAK Tfna.: (943) 46 90 22

oskorri
Disko berria
bi ere dantzari
Kontratuetarako (94) 416 31 22

SENDAGILE DENTISTA
J. M. ARIZALA
ASEGUROAK: Lagun Aro, Diputazioa, Previasa, Asisa, Capisa, Ipresa, Medifiata, Salud Data
Ferrerias plaza, 5-entr.
Tfna.: 45 90 45
Amara DONOSTIA

ZURE OPORRAK EUSKARAZ
TXEKOSLOVAKIA
HUNGARIA
33.000 pta
ABUZTUAN (4-25)
GUARA MENDIKATEA
KAINOIEN JAITSIERA
25.000 pta
ABUZTUAN (12-19) (19-25), (26-1)
AZKEN LEKUAK
INFORMAZIOA:
Diputazio kalea, 3-1. eskn.
Tfna.: 424.17.10 BILBO
Zek bidaiak

34x17mm
EGUN BAT 840pta/42l.
ASTEBETE 4.160pta/208l.
BI ASTE 7.200pta/360l.
HILABETE 10.100pta/505l.

34x37mm
34x37 MODULOA
EGUN BAT 1.680pta/84l.
ASTEBETE 8.320pta/416l.
BI ASTE 14.400pta/720l.
HILABETE 20.200pta/1.010l.

Bidaiak TXINDOKI, S.A.
PORTUGAL OSOA 9 EGUN ..... 38.900 pta.
MAROKKO HIRI INPERIALAK 10 EGUN ..... 47.100 pta.
MAROKKO ATLAS SAHARA 12 EGUN ..... 55.900 pta.
ITALIA 12 EGUN ..... 55.700 pta.
ITALIA BUSA + HOTELA 11 EGUN ..... 64.900 pta.
PARIS HERBEHEREAK 10 EGUN ..... 48.900 pta.
EUROPAKO MUINA ABIOIA + BUSA 12 EGUN ..... 74.600 pta.
INGALATERRA ESKOZIA ABIOIA + BUSA 11 EGUN ..... 76.300 pta.
ESKANDINAVIA ABIOIA 10 EGUN ..... 95.300 pta.
ESKANDINAVIA FIORDOAK ABIOIA 10 EGUN ..... 102.900 pta.
IPAR LURMUTURRA ABIOIA 15 EGUN ..... 143.600 pta.
TURKIA ABIOIA 15 EGUN ..... 94.400 pta.
GREZIA ISTANBUL CAPADOZIA ABIOIA 15 EGUN ..... 94.700 pta.
GREZIA ISTANBUL ABIOIA 15 EGUN ..... 92.700 pta.
KENIA ABIOIA 10 EGUN ..... 167.000 pta.
INDIA NEPAL ABIOIA 20 EGUN ..... 198.400 pta.
INDIA NEPAL ABIOIA 16 EGUN ..... 203.600 pta.
TAILANDIA ABIOIA 13 EGUN ..... 143.700 pta.
SINGAPUR MALAYSIA TAILANDIA ABIOIA 15 EGUN ..... 189.400 pta.
TXINA ABIOIA 21 EGUN ..... 212.000 pta.
TXINA TIBET NEPAL ABIOIA 23 EGUN ..... 293.000 pta.
ESTATU BATUAK KANADA ABIOIA 15 EGUN ..... 157.000 pta.
MEXIKO NEW YORK ABIOIA 15 EGUN ..... 189.000 pta.
MEXIKO GUATEMALA ABIOIA 22 EGUN ..... 229.000 pta.
FRANZISKO GASKUE, 1 / Telf.: 52 45 12 / 20100 ERRENTERIA
ETXAGUE GENERALA, 14 / Telf.: 42 38 84 / 20003 DONOSTIA
URDANETA, 11 Behea / Telf.: 88 72 00 / ORDIZIA
LEGAZPI, 8 Behea / Telf.: 72 37 76 / ZUMARRAGA

TURKIA 15 EGUN 128.000
EGIPTO 18 EGUN 148.000
INDIA/NEPAL 28 EGUN 252.000
INDIA HEGOALDEA 22 EGUN 228.000
INDONESIA 29 EGUN 333.000
FILIPINAK 29 EGUN 286.000
TAILANDIA 22 EGUN 212.000
MEXIKO/GUATEMALA 27 EGUN .. 314.000
ISLANDIA 14 EGUN 225.400
KENIA 17 EGUN 227.500
ALGERIA HOGGAR 11 EGUN 135.000
MALI 16 EGUN 275.000
SAHARA 26 EGUN 161.000
ZAIRE 15 EGUN 216.000
PERU/BOLIVIA 29 EGUN 306.000
BRASIL/AMAZONA 23 EGUN 364.300
TREKKING
LADAKH 29 EGUN 308.000
ANNAPURNA 29 EGUN 298.000
PAKISTAN 28 EGUN 225.000
EVEREST 24 EGUN 324.500
DOLPO 22 EGUN 365.000
PERU 24 EGUN 361.000
ACONCAGUA 22 EGUN 295.000

Aduana kalea 5
Tfna.: (943) 61.51.77
Faxa: (943) 61.95.17
20300 IRUN
ERRO BIDAIAK
Urbieta 6
Tfna.:(943) 33.00.49
20120 HERNANI

Andrei Serban antzerki zuzendari errumaniarra Parisen da berriro

PARISE

Andrei Serban zuzendariak gidaturik, Bucurestiko Antzerki Nazionala 'Medea', 'Troiarrak' eta 'Elektra' antzezlanak ematen ari da egunotan Pariseko La Villette-ko antzokian. Joan den ostegunean hasi ziren emanaldiak, 'Paris, quartier d'ete' ('Parise, udako auzo') izeneko jaialdiaren barruan.

Peter Brook-ekin batera, Parisen izan zen 1972an Andrei Serban, bertako Nazioarteko Ikerketa Zentruan. Errumaniara itzultzeari uko egin —Ceausescuren tiraniak hartaraturik— eta New Yorkera jo zuen orduan. Baina orain, Parisera itzuli denean, Errumaniatik itzuli da, Ceaucescuren agintea amaitu zenetik bertan bizi bait da Serban, eta Bucurestiko Antzerki Nazionaleko zuzendari bait da gainera.

Bere trilogia greziarrean, Serbanek grekera zaharra erabiltzen du, «inoiz erabili izan den materialik emankorrena» bait da bere ustez. Peter Brook lankideari eskainitako 'La vie du son' ('Soinuaren bizitza') izeneko idazlanean, honela dio Serbanek: «Aktorean lana soinu hori berreskuratzea da, soinu horri zerbitzatzea, eta zer egin dezakeen ikustea».



Antzezle bat lanean.

Datorren urterako, antzezle gazteekin lan egiteko asmoa du Andrei Serbanek.

'Picasso 1905-1906' erakusketa eratuko dute Barcelonan 1992an

BARCELONA

Barcelonako Picasso museoak 'Pablo Picasso, 1905-1906' izeneko erakusketa antolatu behar du datorren urterako, eta bertan Picassoren 150 koadro baino gehiago bilduko dira, pintorea Parisera joan zeneko garaian eginak guztiak, eta 'Las señoritas de Aviñon' koadro famatua baino lehenxeagokoak.

Picassoren pinturak bizi izan zuen bilakaeraren une erabakior bat erakutsiko dute museoan bildutako koadroek. Picasso museoak Bernako (Suitza) Kunstmuseumaren laguntza izango du erakusketa antolatzeko. Koadrorik gehienak bilduma pribatuetatik eramango dituzte Barcelonara, eta zenbaiten kasuan lehen aldiz aterako dituzte beren ohizko erakustegitik.

Erakusketa hau eratzea lan handia izango dela adierazi dute Picasso museoko zuzendariek. «Seguruetan eta garraioetan oso gastu handiak egin beharko ditugu. Ardura berezia eskatzen dute, gainera, *gouachearen* teknikarekin egindako koadroek». Era guztietako teknikak erabili ohi zituen Picassok bere lanetarako, erakusketa honek jasotzen duen ikasketa eta bilakaera garaian batez ere.

Sail ezberdinetan banatuko da erakusketa. Urdinetik arrosarako pausuaren garaia jasoko da sail batean (zirkoaren munduari buruzko obsesioa izan zuen garai horretan Pablo Picassok), eta 1905eko udararen ondoren egindakoak beste sail batean ('Las señoritas de Aviñon' lanaren azken aitzindariak diren lanak).

ANTZERKIA

• DONOSTIA

Moncho Borrajo. Victoria Eugenia antzokian 20.00etan. Uztailaren 31a arte.

Rafael Alvarez 'El Brujok' 'Lazarillo de Tormes' lana antzeztuko du. Antzoki Zaharrean 20.00etan. uztailaren 31a arte.

Angel García Morenok Lola Herrera 'Palomas intrépidas' obrarekin aurkeztuko du Principe antzokian 20.00 eta 23.00etan.

• GESALTZA

Gasteiz antzerki taldeak antzeztuko dituen lanak: 'Una de piratas' 18.30etan, 'Pase del video confeccionado' 20.30etan, 'Aquí no paga nadie' 22.30etan, 'El show de las Bergarako Sisters' 00.00etan eta 'Fin de fiestas y traka de despedida' 00.30etan.

• KANBO

Antzerki festibala. 16.30etan squarean, Bordaxuri taldea, Berantenaz seietan eta 21.30etan Arnagako baratzean, Baladins en Agenais taldea.

MUSIKA

• AZKOITIA

Lizarrako Fliter taldearen eskutik kontzertua. Gaztetxean 21.00etan.

• AZPEITIA

Arkaitz taldearekin dantzaldia izango da. Enparantza nagusian 23.00etan.

• BERANGO

Niko Etxarten musika entzuteko aukera. Santa Ana auzoan 23.00etan.

• BILLABONA

Matraka eta Kanka taldeen emanaldia izango da herriko jaiak direla eta gaueko 11etan.

• DOHOZTIRI

Loreak taldearekin dantzaldia 22.00etan.

• DONAZAHARRE

Altzükütarrak taldearen kantaldia arratsaldean eta 23.00etan Minxoriak taldearekin dantzaldia.

• DONOSTIA

Alboka taldearen musika emanaldia entzuteko aukera izango da. Intxaurrodoko kioskoan 19.30etan.

• ELORRIO

Bat Bitten eta Maria eta La Plantación taldeen ekitaldia izango da. Argineta auzoan gaueko 10etan.

• GASTEIZ

Europa Cantat. 10.00etan kontzertuak hirian: San Migelen: 'Ave Maris Stella'. Mintegian: 'Motetes para doble coro'. Jesus Obrero: 'Europako garaiko musika erlijiosoa'. **Espainiako Orkestra Nazional Gaztearen** kontzertua Araba pabilioia.

• GOTAINE

Euskal kantu festibala, herriko 40 kantarirekin. 23.00etan, dantzaldia Gazteok taldearekin.

• IPAZTER

Urkiola taldearen eskutik erromeria izango da 20.00etan.

• LAUDIO

SDO% taldearen kontzertua izango da Txitxarrak antolatuta. Skuaten 21.30etan.

• ZESTOA

Kaxianoren soinu alaia izango da. Arroa Goian eguerdi partean eta iluntzean hasi eta goizalderarte.

• ZURAIDE

Akelarre taldearekin dantzaldia 23.00etan.

KAXIANO soinujole ezagunak Zestoako Arroa Goia auzoko kale eta inguruko bazter guztiak alaituko ditu eguerdian eta iluntzean goizaldera arte.

ERAKUSKETAK

• AZPEITIA

San Agustin Eliza. Hausnarketa Barrokoak. Jesus Mº Corman eta Koldobika Jauregi. Urrira arte.

• BILLABONA

Udaletxeko Erakusketa Aretoa. Euskal Baserria. Uztailaren 31a arte.

• BILBO

Arte Ederretako Museoa. Hernandez Pijuanen obra grafikoa. Abuztuaren 31a arte. Horrezaz gain, **Adolf Loos-en lanak.** Irailaren 30a arte.

Montmartre. Euskal artista talde baten lanak. Uztailaren 30a arte.

• DONOSTIA

San Telmo Museoa. Sandra Tucciren lanak. Uztailaren 31a arte.

• GASTEIZ

San Prudentzio Aretoa. 'Euskal argazkilariak, 150 geroago' erakusketa. Abuztuaren 7a arte.

Amarica Aretoa. XXI Bienal Monocrome Print. Abuztuaren 11a arte.

• GERNIKA

Kultur Etxean Marisa Aregoren marrazki eta grabatuak. Uztailaren 31a arte.

• IRUN

Amaia kultur aretoa. Bienabe Artia pintorearen erakusketa antologikoa. Abuztuaren 18a arte.

• ZARAUTZ

Torre Luzea. 'Imaginate Euskadi' lehiaketako pinturak eta argazkiak. Uztailaren 30a arte.

Sanz Enea. Iñaki Larrañagaren pinturak. Azken eguna.

ZINEMA-BIDEOA

• DONOSTIA

«La mujer de rojo». Zuzendaria: Gene Wilder. Ondarreta hondartzan 23.00etan. Nazioarteko Zinemaldia.

DANTZA

• AZPEITIA

Dantzari Txiki Eguna ospatuko da. Eguerdiko 12etan dantzarien kalejira egingo da kaleetan zehar. 13.00etan berriz, euskal dantza saioa Plaza Nagusian. Arratsalde partean berriro kalejira egingo da 17.00etan.

• DONOSTIA

Nazioarteko folklore jaialdia ospatuko da. Bi talde atzerritar eta euskal talde batek parte hartuko dute jaialdian. Loiolako Pilotalekuan 19.00etan.

• ELORRIO

Andra Mari, Hungriako Neetanckor eta Transilvaniako Mera taldeak. Plazan 19.00etan hasita.

• ZESTOA

Arroako dantzariek emanaldia eskainiko dute, Arroako jaien egitarauen barnean eta eguerdi partean.

BERTSOLARITZA

• ITZIAR.

Lizarreta, Imanol Lazkano, Jon Lopategi, Mikel Mendizabal, Millan Telleria eta Sebastian Lizasoren bertsoak entzuteko aukera izango da. Gai jartzailea: Laxaro Azkune. Pilotalekuan gaueko 10etan.

• OIARTZUN

Sebastian Lizaso eta Angel Mari Peñagarikano bertsolariak izango dira kantari. Iturriotz auzoan eguerdiko 12etan.

• PASAI DONIBANE

Andoni Egaña eta Mikel Mendizabal bertsotan arituko dira eguerdi eta arratsaldez.

IHARDUNALDIAK

• DONOSTIA

Pepe Albaceteren Serigrafia tailerra. Iraupena: Irailaren 2tik urriaren 31a arte. Inskripzio eguna abuztuaren 21ean amaituko da. Informazio gehiago jakin nahi izanez gero, Artelekura jo edo ☎47 00 21 / 45 36 62 telefono zenbakira deitu.

Mentxu Galenen Pintura tailerra. Iraupena: Abuztuaren 21etik irailaren 20a arte. Inskripzio eguna abuztuaren 9an amaituko da. Informazio gehiago jakin nahi izanez gero, Artelekura jo edo ☎47 00 21 / 45 36 62 telefono zenbakira deitu.

Juan Carlos Savaterren Pintura tailerra. Iraupena: Urriaren 1etik 31a arte. Inskripzio eguna irailaren 20a arte Artelekun. Informazio gehiago nahi izanez gero Artelekura jo.

Esperientzia modernoari buruzko mintegia. Iraupena: Irailaren 25etik 27ra. Inskripzio epea: Irailak 19. Informazio gehiago Artelekun.

• HONDARRIBIA

Dantza ikastaroa. Bi txanda izango dira: abuztuaren 5etik 16ra, eta 19tik 30era. Ikastaroa Zaindua Gaztetxean izango da. Izena emateko telefono honetara deitu: ☎64 31 98.

LEHIAKETAK

• DEBA

Tene Mujika Lehiaketa. Euskarazko narrazioak. Gaia librea izango da. Lanak aurkezteko epea: azaroaren 29a. Lekua: Debako Udaletxea. Informazio gehiago bertan.

• DONOSTIA

Bilintx VI Haur eta Gazte Literatur Saria. Bi sail egongo dira, OHO eta BBBko ikasleentzat alegia. Lehiakide bakoitzak nahi hainbat lan aurkez ditzake. Narrazio, ipuin luze edo nobela. Lanak aurkezteko epea irailaren 30ean eguerdiko hamabietan amaituko da. Helbide honetara bidali behar dira: Bilintx Liburudenda. Fermin Calbeton Kalea. 20003 Donostia. Informazio gehiago liburudendan edo bi telefono zenbaki hauetan: ☎ 42 02 24 edo 42 09 30.

• EUSKAL HERRIA

Euskaltzaindiak Elizanbururen ohoretan bi sari antolatu ditu. Lanak aurkezteko epea: urriak 31.

BESTELAKOAK

• DONOSTIA

XV Donostiako Liburu Azoka. Boulevardean izango da, abuztuaren 4a arte.

• HONDARRIBIA

Euskal Herriko saskigintzaren erakusketa. Zuloaga Etxean uztailaren 30a arte.

• ORDIZIA

VII Ortzadar Sariko Lehiaketan saritutako lanen erakusketa, kultur etxean. Azken eguna.

Ordizia Kirol Elkartea 1941-1991 Erakusketa, Barrena kultur etxean. Azken eguna.

• ZUMAIA

Sendabelarrak Erakusketa. Foronda Kultur Etxean uztailaren 31a arte.



MUSIKA HAMABOSTALDIA
52
QUINCENA MUSICAL
VICTORIA EUGENIA UDAL ANTZOKIA
TXARTEL SALMENTA
Uztailak 29, astelehenetik aurrera
Takila orduak:
Uztailaren 29an: 09.00etatik 14.00etara eta 16.00etatik 20.30era
Uztailaren 30etik aurrera: 11.30etik 13.30era eta 17.30etik 20.30era
OHARRA: 6 txartel gehienez ikuskizun eta pertsona bakoitzeko

KARTELDEGIA

ARABA

• GASTEIZ

Azul 1. «Objeto de seducción». Akt: John Malkovich / 17.30 - 20.00 - 22.30.
Azul 2. «Tortugas Ninja» / 17.30. «Cyrano de Bergerac». / 20.00 - 22.30.
Gasteiz. «Arma perfecta» / 17.30 - 19.45 - 22.00.
Samaniego 1. «Agente juvenil». Akt: Richard Grieco / 17.00 - 19.45 - 22.30.
Samaniego 2. «Rafi, un rey de peso» / 17.00 - 19.45 - 22.30.
Samaniego 3. «Ella siempre dice sí». Zuz: Jerry Rees. Akt: Kim Basinger, Alec Baldwin / 17.00 - 19.45 - 22.30.
Samaniego 4. «Robin Hood, principe de los ladrones». / 17.00 - 19.45 - 22.30.
Mikeldia. «Mira quien habla también». Zuz: Anny Heckerling / 17.30 - 20.00 - 22.15.
Mikeldiak. «Las tortugas Ninja II» / 16.30 - 18.30 - 20.30 - 22.30.
Mikeldiak. «Zandalee». / 16.30 - 18.30 - 20.30 - 22.30. 18 gorak.
Mikeldiak. «New Jack City». Zuz: Mario Van Peebles / 16.30 - 18.30 - 20.30 - 22.30.
Mikeldiak. «Este chico es un demonio». Zuz: Dennis Dugan / 16.30 - 18.30 - 20.30 - 22.30.
Mikeldiak. «Depredador 2». / 17.30 - 20.00 - 22.30. 18 gorak.

BIZKAIA

• BILBO

Astoria. «Robin Hood, principe de los ladrones». / 16.45 - 19.30 - 22.15.
Avenida 1. «Este chico es un demonio». Zuz: Dennis Dugan / 11.15 - 17.30 - 19.45 - 22.00.
Avenida 2. «Robin Hood, principe de los ladrones». / 17.00 - 19.30 - 22.00.
Avenida 3. «Agente juvenil». Akt: Richard Grieco / 11.15 - 17.00 - 18.30. «Depredador II». / 20.00 - 22.00.
Avenida 4. «Bésame antes de morir». / 11.15 - 17.30 - 19.45 - 22.00. 18 gorak.
Avenida 5. «Las tortugas Ninja II». Zuz: Michael Pressman / 11.15 - 17.30 - 19.45 - 22.00.
Avenida 6. «Ella siempre dice si». / 11.15 - 17.30 - 19.45 - 22.00. 13 gorak.
Ayala. «Cyrano de Bergerac». Akt: Gerard Depardieu / 17.30 - 20.00 - 22.30.
Capitol. Ez dago emankizunik.
Coliseo Albia. «Ella siempre dice si». / 17.30 - 19.45 - 22.00. 13 gorak.
Consulado. «Bésame antes de morir». / 17.30 - 20.00 - 22.15. 18 gorak.
Campos Eliseos. Ez dago emankizunik.
Gran Via. «Unidos por las armas». Akt: Richard Berry / 18.00 - 20.00 - 22.00. (Etenik gabeko emankizuna). 18 gorak.
Ideal 1. «Robin Hood, principe de los ladrones». / 17.00 - 19.45 - 22.30.
Ideal 2. «Este chico es un demonio». Zuz: John Ritter / 17.30 - 20.00 - 22.30.
Ideal 3. «Bailando con lobos». Zuz: Kevin Costner. / 17.00 - 20.30.
Ideal 4. «La profecia IV». Akt: Faye Grant / 17.30 - 20.00 - 22.30. 18 gorak.
Ideal 5. «Mira quien habla también». Akt: John Travolta / 17.00 - 18.30 - 20.15. «Drougstore cowboy». / 22.30.
Ideal 6. «Zandalee». Akt: Nicolas Cage / 17.30 - 20.00 - 22.30. 18 gorak.
Ideal 7. «Depredador II». Zuz: Stephen Hopkins / 17.15 - 20.00 - 22.30. 18 gorak.
Ideal 8. «Agente juvenil». Akt: Richard Grieco / 17.30 - 20.00 - 22.30.
Mikeldiak. «Las tortugas Ninja II» / 16.30 - 18.30 - 20.30 - 22.30.
Mikeldiak. «Zandalee». / 16.30.- 18.30 - 20.30 - 22.30. 18 gorak.
Mikeldiak. «El marido de la peluquera». Zuz: Patrice Leconte / 16.30 - 18.30 - 20.30 - 22.30. 13 gorak.
Multi 1. «Misery». Zuz: Rob Reiner / 11.15 - 17.30 - 19.45 - 22.30. 18 gorak.
Multi 2. «Como ser mujer y no morir en el intento». / 11.15 - 17.30 - 20.00 - 22.30.
Multi 3. «Rafi, un rey de peso». Akt: John Goodman / 11.15 - 17.30 - 19.45 - 22.30. 13. gorak.
Multi 4. «Colegas a la fuerza». / 11.15 - 17.30 - 20.00 - 22.30.
Multi 5. «La cenicienta». Zuz: Walt Disney / 11.15 - 17.30 - 19.45. «Que suerte llegaron... los parientes» / 22.30.
Multi 6. «Matrimonio de conveniencia». / 11.15 - 17.30 - 20.00 - 22.30.
Multi 7. «Agente juvenil» / 11.15 - 17.30 - 19.45 - 22.30.
Multi 8. «Poli de guardería». / 11.15 - 17.30 - 20.00 - 22.30.
Vistarama. «Tortugas Ninja». / 18.00 - 20.00. (Etenik gabeko emankizuna). «No hay salida». / 22.00. 13 gorak.
X - 1 Aretoa. «Barby y sus hombres» / 11.30 - 15.30 - 17.00 - 18.30 - 20.00. 18 gorak.
X - 2 Aretoa. «Ardor sexual» / 11.30 - 15.30 - 17.00 - 18.30 - 20.00. 18 gorak.

• ALGORTA

Gurea. «Matrimonio de conveniencia» / 17.30 - 20.00.

• AREETA

Gran Cinema. «Derrepente un extraño» / 17.30 - 19.00 - 22.00. 13 gorak.

• BARAKALDO

